



# Diagnostiko ebaluazioa Euskal Autonomia Erkidegoan

Garatzeko eta aplikatzeko proposamena

2008ko MARTXOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Sarrera .....	5
<b>I. DIAGNOSTIKO EBALUAZIOAREN MARKOA</b>	
I.1. Diagnostiko ebaluazioaren legezko aldeak .....	11
I.2. Diagnostiko ebaluazioaren helburuak .....	14
I.3. Diagnostiko ebaluazioaren ezaugarriak .....	14
I.4. Diagnostiko ebaluazioaren printzipioak .....	16
I.5. Antolaketa .....	17
<b>II. EBALUAZIOAREN HELBURUA: OINARRIZKO KONPETENTZIAK</b>	
II.1. Zergatik sortu da kompetenzien araberako ikuspegia? .....	24
II.2. Zer ulertzen dugu oinarrizko kompetentzia gisa? .....	25
II.3. Zeintzuk dira oinarrizko kompetentziak? .....	27
II.4. Nola banakatzen da kompetentzia bakoitza? .....	30
II.5. Nola graduatu dira kompetentziak? .....	34
II.6. Zer lotura dago kompetenzien eta curriculumaren artean? .....	35
<b>III. EAE-N DIAGNOSTIKOA EGITEKO EBALUAZIOAREN APLIKAZIO EREDUA</b>	
III.1. Diagnostiko ebaluazio ereduaren ezaugarriak .....	40
III.1.1. Ereduen justifikazioa .....	40
III.1.2. Diagnostiko ebaluazioaren antolaketa diseinua .....	42
III.1.3. Oinarrizko kompetentziak aplikatzeko data eta egutegia .....	45
III.1.4. Proben aplikazio hizkuntza .....	48
III.1.5. Proba egin behar duten ikasleak .....	49
III.2. Ebaluazio tresnak: errendimenduko proben eta testuinguruko galdesorten ezaugarriak .....	51
III.2.1. Probak eta galdesortak prestatzeko prozesua .....	51
III.2.2. Errendimendu proben ezaugarriak .....	56
III.2.3. Testuinguruko galdesorten ezaugarriak .....	64

III.3. Aplikazio prozesua: ezaugarriak eta baliabideak	68
III.3.1. Aplikazio faseak	69
III.3.2. Kanpoko aplikaziorako beharrezko baliabideak	72
III.3.3. Aplikazioaren garapena	74
III.4. Digitalizazioa, probak zuzentzea eta datuen analisia	76
III.4.1. Sailkapen prozesua eta digitalizazioa	76
III.4.2. Zuzenketa prozesua	77
III.4.3. Zuzenketarako beharrezko baliabideak	79
III.4.4. Datuen analisia	79
III.5. Ebaluaketa txostenak	81
III.5.1. Banakako txostena	82
III.5.2. Ikastetxeko txostena	82
III.5.3. Txosten orokorra	83

#### IV. EAEKO DIAGNOSTIKOA EGITEKO EBALUAZIOKO HOBEKUNTZA PROZESUAK

IV.1. Hobekuntza prozesuaren ezaugarriak: diagnostikoaren ebaluaziotik esku-hartzera ikastetxeak hobetzeko	87
IV.2. Esku-hartze prozesuko elementuak ikastetxeen funtzionamendua hobetzeko	91
IV.2.1. Hobekuntza prozesuan garatu beharreko ekintzak	91
IV.2.2. Hobekuntzarako dokumentuen deskribapena	94
IV.2.3. Arduradunak eta epeak	96
IV.2.4. Laneko kargara gerturatzea	98

## SARRERA

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapak dira gure hezkuntza sisteman oinarrikoak eta derrigorrezkoak diren bakarrak; hori dela eta, gure gizartean herritar aktibo, parte hartzaile eta kritiko gisa bizitzeko ikasle guztiei oinarrikoak eta ezinbestekoak diren kompetentzia eta ikasketak bermatzen saiatzeko konpromisoa eta erantzukizuna dago etapa horietan.

Hori dela eta, derrigorrezko hezkuntzan gero eta nabariagoa da ikasleen kompetentzia mailak, zein ikastetxeen eta, bere orokortasunean, hezkuntza sistemaren egoera, modu objektiboan ezagutzeko beharra. Hala eta guztiz ere, orain arte, ikastetxeek beren egoera ondo baloratu eta epe ertainean beren bilakaera baloratu ahal izateko kanpoko erreferentzia falta izan dute.

Ikastetxeek, orain arte, gainditutako eta tituludunen ehunekoetan soilik oinarrituta eman izan dituzte kontuak. Hala ere, jakin beharrekoa da kasurik gehienetan, emaitza horiek lortzen dituzten ebaluazio prozesuak barne heziketa irizpideetatik eta prozedura berezietatik abiatuta egiten direla; ondorioz, bide horretatik lortutako emaitzak ezin dira alde-ratu. Ikastetxeek, kalifikazioak emateko orduan, ikasleen lorpenak ez dituzte modu berdinean baloratzen; horren eraginez, testuinguruen arabera, kalifikazio berberak ikaskuntza maila desberdina islatuko du.

Ikastetxeetako barne emaitzen bilketan erabiltzen diren irizpide aniztasunaren aurrean, gaur egun, hezkuntza prozesuaren kalitatea neurtu behar da prozedura homologatuak, gardenak eta aldez aurretik baliozkotutako erreferente komunak kontuan hartuz. Eta hori, batez ere, ebaluazio prozesuen bidez egiten da.

Ildo horretatik, euskal hezkuntza sistemak, ISEI-IVEIren bidez, kanpo ebaluazio prozesu zabal baten bidez, lehen pausoak eman ditu azken urteetan; horretarako, gure hezkuntza sistemako alor zehatzak neurtzeko zehazki sortutako probak egin dira. Gainera, Estatu mailako ebaluaketetan, Hezkuntza Ministerioaren Ebaluazio Institutuarekin lankidetzan, eta nazioarteko probetan ere parte hartu dugu.

Batzuetan, ebaluazioan berrikuntzari uko egiten zaio prozesu hauek dakartzaten zenbait efektu perbertso eta arrisku batzuk aipatuz (curriculum murrizketa eta uniformizazioa, pertzepzio fiskalizatzailea, ikasleen hautaketa...), baina ebaluaketarik ez egiteak ere efektu negatiboak dakartza berekin eta horiek kontuan izatea komeni da: erabakiak inpresioetan oinarrituta hartzea eta datuetan oinarritu gabe, konparatu ahal izateko erreferentziarik ez izatea, edo eragin-kortasun gabezia edo baxua eragiten duten helburu argirik ez izatea.

Heziketa sistema desberdinetan lortutako errendimenduaren ebaluaketari dagokionez, arreta aldaketa gertatu da; izan ere, curriculumeko ezagutzazko edukietatik ikasleen trebezia edo kompetentzietara pasatu da arreta. Ildo horretatik, PISA ekimena (Ikasleen nazioarteko ebaluaziorako programa) aipatu behar dugu; programa hori ELGak zuzentzen du eta herrialde desberdinetako hezkuntza sistemetak curriculum berezitasunak alde batera utzita, ikasleek lortu behar dituzten oinarriko kompetentzietan oinarritutako probak erabiltzen ditu; horrela, lortutako emaitzen artean alderagarritasuna errazten du.

Hezkuntzaren Lege Organikoaren (LOE) eta Euskal Autonomia Erkidegorako Oinarriko Hezkuntzaren curriculum (EHAA 2007-XI-13) ezartzen duen urriaren 16ko 175/2007 Dekretuaren onarpenak bi behar horiei eguneratutako erantzu-

na eman die: batetik, gure hezkuntza sisteman ebaluazio prozesuak txertatu dira bi etapetan diagnostiko ebaluazioen bidez; eta bestetik, oinarrizko kompetentziak curriculumeko beste osagai baten moduan txertatu dira eta kompetentzia horien balioa aitortu da herritarren etengabeko ikaskuntzarako.

Kompetentzien garapena banakoaren bizitzan zehar egiten den prozesu jarraitu gisa ulertzen den arren, oinarrizko kompetentzia horiek menderatzearen lehen mailak derrigorrezko hezkuntzan du bere testuinguru naturala. Ikastetxe eza-gutzak eta trebeziak testuinguru ez formaletara pasatu ahal duten neurrian, kompetentzien garapenaz hitz egin deza-kegu. Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar hezkuntza formala ez diren beste alor batzuk ere, hau da, familia, komunikabideak, lagunak edo hainbat motatako gizarte erakundeak ere garrantzitsuak direla kompetentzia kognitibo-ak, pertsonalak eta sozialak garatzeko.

Aipatutako diagnostiko ebaluazioak ez du ikasleek lortutako kompetentzien garapen maila soilik zehaztuko, baizik eta hezkuntza eragileei informazio zorrotza eta baliozkoa eskainiko die alderdi ahuluneetan aldaketak eta hobekuntzak sartu ahal izateko, eta indarguneak finkatu eta sustatu ahal izateko. Hau da, diagnostiko ebaluazioek emaitzen gaineko informazioa eskaintzeaz gain, ikaskuntzaren prozesuen eta testuinguruen gaineko informazioa ere eskaini nahi dute.

Beraz, nahiz eta eskusiboa ez izan, ebaluazio hau tresna pribilegiatu gisa ulertu behar da, ikastetxeetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen, eta ondorioz, euskal hezkuntza sistema osoaren etengabeko hobekuntza sustatzeko.

Diagnostiko ebaluazioa oinarrizko kompetentzien gainean oinarritzen denez, neurri batean behintzat, ez du curriculum edukiekin lotura zuzenik izan behar. Ebaluazio honen helburua ez da ikasleen ezagutzak sakon baloratzea, baizik eta subjektuek ikaskuntzak egoera eta testuinguru desberdinean fidagarritasunarekin aukeratu eta aplikatzeko kompeten-tziari dagokionez lortutako garapen maila zehaztea.

Ildo honi jarraituz, argi izan behar da oinarrizko kompetentzien ebaluazioak ez duela ordezkaten irakasleek ikasleekin egindako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren testuinguruko curriculum ebaluazioa. Hain zuzen ere, alderantziz izan-go litzateke; izan ere, kompetentzien ebaluazioak ikasleen ikaskuntzaren gaineko informazio osagarria eskaintzen baitu; hori arloen eta materien curriculumekin modu estuan lotuta dagoen ebaluazioa eskaintzen duenari gehitu ohi zaio. Kompetentzien ebaluazioari esker, ikasleek ikasi dutena adierazteko kompetentzien gaineko informazioa jasoko dugu; horretarako, ezagutzak eta trebeziak aplikatuko zaizkie esperientzia pertsonaletik, sozialetik eta eskolako esperientzia-tik gertuko bizitza errealeko egoerei.

Aurreko ideiak kontuan izanda, dokumentu honen helburua hauek zehaztea da: Euskal Hezkuntza Sistemarako propo-satutako diagnostiko ebaluazioaren parte diren testuingurua, ezaugarriak, prozesuak eta tresnak, LOEn eta EAEko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumarekin ezartzen deneko dagokion Dekretuan adierazitako ikasmailetan funts publikoe-kin ordaindutako ikastetxe guztiek egin behar duten moduan.

Dokumentua lau ataletan zatitzen da:

**I. Diagnostiko ebaluazioaren markoa.** Kapitulu honetan, ebaluazioari lotutako lege alorrak garatzen dira (helburuak, ezaugarriak eta printzipioak), baita antolaketa izaerako zenbait alor ere.

**II. Ebaluazioaren helburua: oinarrizko kompetentziak.** Kapitulu honetan oinarrizko kompetentziaren kontzeptuaren defi-nizioa eta bilakaera, eta horrek curriculumarekin duen lotura aztertzeaz gain, garatzeko, banakatzeko eta mailakatze-ko oinarrizko proposamena ere aurkezten da.

**III. EAEn diagnostiko ebaluazioaren aplikazio erdua.** Atal hau ebaluazioa burutzeko (proben eta galdera-sorten disei-nua, ezaugarriak eta sortzea, aplikazio prozesuak, emaitzen zuzenketa eta azterketa, gizarte eta hezkuntza sektore des-berdinetarako informazioa) beharrezko material, giza baliabide, zeregin eta prozesu guztien garapen eta zehaztapene-an oinarritzen da.

**IV. Hobekuntza prozesuak diagnostiko ebaluazioan.** Kapitulu honetan, diagnostiko ebaluazioari lotutako prozesuen irizpideak eta ezaugarriak deskribatzen dira; gainera, hori sustatzeko eta martxan jartzeko zenbait tresna garatu dira, eta azpimarratzen da prozesuan parte hartzen duten zerbitzuen eta protagonisten inplikazioa eta zeregina.

Amaitzeko, kontuan izan behar da diagnostiko ebaluazioaren marko hau ez dela bukatutako produktu gisa ulertzen, etengabe gainbegiratu eta hobetu behar den tresna gisa baizik. Proba pilotuetan eta diagnostiko proben ondorengo aplikazioetan lortutako esperientziaren bidez dagozkion aldaketak eta zuzenketak sartu ahal izango dira dokumentu honen geroko bertsioetan.





# I. Diagnostiko ebaluazioaren markoa



## I.1. DIAGNOSTIKO EBALUAZIOAREN LEGEZKO ALDEAK

Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (LOE), 21, 29 eta 144 artikuluetan, diagnostiko ebaluazioaren araudia, ezaugarriak eta eskakizunak ezartzen ditu, eta baita ere ikastetxetako eta Hezkuntza Administrazioetako betebeharrak.

21 eta 29 artikuluetan, aipatutako Legeak Lehen Hezkuntzan (bigarren zikloa amaitzean) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (bigarren maila amaituta) diagnostiko ebaluazioa egitea ezartzen du, honakoa adieraziz: “... ikastetxe guztiek ikasleek lortutako oinarritzko konpetentzien diagnostiko ebaluazioa egingo dute”. Ebaluazioa hezkuntza administrazioen eskumenekoa izango da eta “prestakuntza izaera eta orientatzailea izango du ikastetxeetarako, eta informazio izaera familientzako eta hezkuntza komunitate osoarentzat. Ebaluazio horiek Lege honetako 144.1 artikuluan ezartzen diren diagnostiko ebaluazio orokorrak izango dituzte erreferentzia marko gisa”.

Gainera, Legeak honakoa ezartzen du: “Hezkuntza administrazioei dagokie euren mende dauden ikastetxeek egiten dituzten diagnostiko ebaluazioak garatu eta kontrolatzea, baita dagozkien ereduak eta laguntzak eskaintzea ere, ikastetxe guztiek prestakuntza eta barne izaera izango duten ebaluazioak modu egokian egin ditzaten” (144.2 artikulua). Horrez gain, “ikastetxeek diagnostiko ebaluazio horien emaitzak eta horietatik eratoritzen diren jarduera planak hezkuntza komunitatearen ezagupenean jarri ahal izateko erregulatzeke modua” (144.3 artikulua) ere izango dute.

Diagnostiko ebaluazio mota bi bereizten dira:

➔ **Diagnostiko ebaluazio orokorra;** helburu nagusien artean “*Erkidego Autonomoetako eta Estatuko ikastetxeen eta ikasleen datu esanguratsuak lortzea du*”; ebaluazio hori Ebaluazio Institutuak eta Hezkuntza Administrazioei dagozkien erakundeek gauzatu beharko dute.

➔ **Zentsuzko diagnostiko ebaluazioa;** Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa eta DBHko lehen zikloa amaitzean, ikastetxeek beren ikasleen oinarritzko konpetentzien diagnostiko ebaluazioa egiteko duten derrigortasunean zehazten da. Hezkuntza Administrazioen konpetentzia da eta prestakuntza eta orientazio izaera du ikastetxeetarako, eta informazio izaera familietarako eta hezkuntza komunitaterako, oro har.

Aipatutako artikuluen arabera, diagnostiko ebaluazioaren garapenean hezkuntza administrazioak arduradun diren zereginen artean honakoak barneratzen dira zehazki:

- Diagnostiko proben emaitzak eta horietatik eratorriko diren **jarduera planak** edo gomendioak zabaltzeko **prozesua arautzea**, betiere, emaitza horiek ikastetxeen sailkapenak egiteko ez direla inoiz ere erabiliko bermatuz.
- Diagnostiko **ebaluazioak kontrolatzea**, ikastetxeek ebaluazioak egiten dituztela bermatzeko helburuz.
- **Dagozkien ereduak eta laguntzak eskaintzea** ikastetxeek ebaluazioak gauza ditzaten.


Hau da, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ikasturtea amaitzean, diagnostiko ebaluazioaren erregulazioa, kontrola eta orientazioa Hezkuntza Administrazioaren erantzukizuna da. Ebaluazio horrek lege horretan bertan (144. art.) ezarritako diagnostiko ebaluazioen marko orokorraren arauak jarraitu behar ditu.

Ildo horretatik, 2007ko urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegorako curriculum ezartzen duenak (EHAA 07-XI-13), 36. artikuluan (*V. kapituluaren baitan: ikasleak, ebaluazioa, sustapena eta titulazioa*) mota honetako ebaluazioak biltzen ditu, eta garapenean kontuan izan beharreko hainbat betebeharrak aipatzen ditu:

- Ikastetxeek ebaluazio horietatik jasotako informazioa izango dute kontuan *“beste helburu batzuen artean, ikasleen arreta hobetzera eta dagozkion oinarrizko konpetentziak betetzen dituela bermatzera zuzendutako beharrezko neurriak eta programak antolatzeke. Era berean, emaitza horien bidez, irakaskuntza prozesuen ebaluazioarekin eta irakaskuntzako praktikaren laguntzarekin batera, aurretiko ikasturteetan garatutako ekintzak aztertu, baloratu eta bideratu ahal izango dira”* (36.3 artikulua).
- Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoa kontuan izan behar duen ebaluazio honen bidez lortutako informazioa ebaluazio honetako *“talde, arlo eta ikastetxeen estatistikak egiteko eta ebaluazioaren helburuetarako”* baino ezingo da erabili, eta ezin izango da *“ikastetxeak sailkatzeke”* erabili (36.4 artikulua).
- Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI) erantzukizuna izango da ikastetxeei *“egokiak diren ereduak eta laguntzak ematea, betiere, guztiek ebaluazioak ondo egin ahal izan ditzaten”* (36.2 artikulua).

*Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio:*

- *Diagnostiko ebaluazioen prozesu osoa arautzea; horrekin batera doa proben emaitzak eta horietatik eratorzen diren gomendioak edo **jarduera planak** zabaltzeko **prozesua arautzea**, betiere, emaitza horiek ikastetxeen sailkapenak egiteko ez direla erabiliko bermatuz.*
- *Diagnostiko ebaluazioen prozesua kontrolatzea, lege zehaztutako oinarrizko konpetentziak erreferentzia gisa hartuz, ikastetxeek egiten dituztela bermatuz.*
- *Ikastetxeek gauzatu ahal izateko egokiak diren ereduak eta laguntzak eskaintzea, helburutzat hezkuntza ikastetxearen hobekuntza hartuz.*
- *Ebaluazio prozesu osoan lortutako datu guztien konfidentziasuna eta babesa bermatzea.*



## I.2. DIAGNOSTIKO EBALUAZIOAREN HELBURUAK

Diagnostiko ebaluazioak xede bikoitza du: batetik, ikastetxeak bizitzan aurrera egiteko zenbateraino prestatzen duen baloratzea eta ikasleak zein neurri arte dauden prestatuta gizarte modernoko herritar gisa jarduteko; eta bestetik, ikastetxeei hezkuntza praktikak hobetzen laguntzea eta administrazioari baliozko informazioa ematea hezkuntza politika zuzentzeko.

Aipatutako xedeak helburu hauen lorpenean zehazten dira:

- Oinarrizko kompetentzien ebaluazioaren bidez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen hezkuntza helburuen lorpen maila ezagutu eta baloratzea.
- Hezkuntza prozesuekin lotutako faktoreak eta aldagaiak, eta oinarrizko kompetentzien lorpenean eta garapenean eragiten duten testuinguruko faktoreak aztertzea.
- Ikastetxeei balio duten informazio garrantzitsua eskaintzea ikasleen arreta hobetzera eta egokiak diren oinarrizko kompetentziak lortzea bermatzeko, eta hala baldin badagokio, aurreko ikasturteetan egindako jarduerak baloratu eta birbideratzera zuzendutako beharrezko neurriak eta programak antolatuzeko.
- Ikastetxeetan gogoeta eta hobetze prozesuak sustatzea, betiere, beren antolaketaren, funtzionamenduaren eta emaitzen hobekuntzan erantzukizunak baloratu eta bere gain hartu ditzaten.
- Euskadiko hezkuntza administrazioari beharrezko informazioa, objektiboa eta garrantzitsua eskaintzea hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzera zuzendutako erabakiak hartu ahal izateko.
- Familiei seme-alabaren kompetentzien lorpen mailaren inguruko informazio garrantzitsua ematea, motibatuzeko eta hobekuntza errazteko helburuarekin.
- Hezkuntza komunitateko kide guztien eta Euskadiko ikasleen errendimendua hobetzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza-zerbitzuen ahaleginen lankidetzeta eta integrazioa bultzatzea.

## I.3. DIAGNOSTIKO EBALUAZIOAREN EZAUGARRIAK

Aipatu berri ditugun helburuekin bat etorritik, egin nahi dugun ebaluazio motak ezin du ikasleek lortutako ikaskuntza maila eta kompetentzien garapena soilik zehaztu; izan ere, informazio zehatza eta fidagarria eskaini behar die hezkuntza eragile guztiei, alor defizitarioetan aldaketak eta hobekuntzak egin eta alor indartsuak finkatzeko. Ebaluazioaren bidez, ikaskuntzako produktuak, prozesuak eta testuinguruak ikusi ahal izan beharko dira.

Beraz, ebaluazio hau irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen etengabeko hobekuntza eta hezkuntza sistemaren hobekuntza sustatzeko lehentasunezko tresna gisa hartu behar da.

Ilido horretatik, proposatzen den diagnostiko ebaluazio ereduak ezaugarri hauek ditu:

### 1. ERANTZUKIZUN PARTEKATUA. Barne ebaluazioa da eta alderatu ahal izateko kanpo erreferenteak ditu.

Diagnostiko ebaluazioa funtsean barnekoa da. Ez oinarrizko prozesua ikastetxean egiten delako soilik, baizik eta batez ere erabakiak hartzeak eta hobekuntza proposamenei ikastetxerako barne izaera dutelako.

Hala eta guztiz ere, alderatu ahal izateko kanpo erreferenteak izateko aukera da ekarpen garrantzitsua. Hainbat ikasturtetan zehar datu zehatzetatik eta alderagarrietatik abiatuta ikastetxeak bere egoera aztertu ahal izateak hobetzen lagunduko dio. Informazio hori alderagarriak diren kanpo erreferentziekin batera baldin badao, hau da, EAEko emaitza orokorrekin eta antzeko ezaugarriak dituzten (hizkuntza ereduak, sarea, maila sozio-ekonomikoa) ikastetxe taldeekin, ikastetxeak bere ikasleen ikaskuntzari eskaintzen dionaren gaineko gogoeta egiten lagungo

da. Edonola ere, emaitzen interpretazio erreala eta osatua ikastetxeen esku geratzen da; horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zerbitzuen laguntza eta aholkularitza izan ahalko du.

## 2. PARTE HARTZEA. Prozesu osoan ikastetxearen parte hartzea eta inplikazioa aintzat hartzen duen ebaluazioa da.

Ebaluazioaren helburua ikastetxea hobetzea da; horrela, ikastetxeek erabakiak hartu ahal izango dituzte beren esku-hartzea ikasleen eta hezkuntza komunitatearen beharretara egokitu dadin; beraz, ebaluazio honen fase nagusietan, ikastetxeen parte hartzea oinarritzko elementu baten gisa hartzen da aintzat:

- Ebaluazio tresnen *aplikazioan*; izan ere, ezartzen diren aplikazio komuneko arauetz gain, ikastetxeek berezko tresnen aplikazioa beren baldintzetara eta aukeretara egokitu ahal izango dute.
- Datuen *azterketan*; ikastetxeek esku artean duten informazioa aztertzeo, lehendik egindako beste batzuetan kokatzeko eta hobetzeko proposamenak egiteko aukera izango dutela bermatuz; zeregin horretarako, Ikuskaritzaren eta eremuko laguntza-zerbitzuen laguntza izango dute.
- *Hobetzeko konpromisoak* gauzatzean. Ikastetxeak soilik har ditzake bere erabakien konpromisoak; hori dela eta, bildutako informaziotik abiatuta, ikastetxe bakoitzak zehaztu beharko ditu zein diren hobekuntza alor nagusiak, eta hobekuntza alorrak egonez gero, administrazio zerbitzu desberdinen orientazioa eta laguntza izan beharko dute.


## 3. TALDE LANA. Saileko hainbat zerbitzuren eta hezkuntza sistemako beste sektore batzuen parte hartzea, laguntza eta koordinazioa ahalbidetu eta eskatzen duen ebaluazioa da.

Euskadiko administrazioaren ikuspegitik, diagnostiko ebaluazioek hezkuntza zerbitzu desberdinen artean lankidetzako lan eredia egiteko aukera eskaintzen dute:

- *Hezkuntzako Ikuskatzailatza*. Ikastetxea ebaluatzeo dituen funtzioak direla medio, ikastetxe bakoitzaren egoeraren gaineko informazio kontrastatuak jasoko ditu; gainera, zeregin garrantzitsua izango du ikastetxeetako hobekuntza konpromisoen jarraipenean.
- *Berritzeguneak*. Berritzeguneen zeregina garrantzitsua da prozesuaren hiru unetan: oinarritzko kompetentzien eta horiek ebaluatzeo tresnen definizioan; ikastetxeei eskainiko dieten aholkularitzan, datuak aztertzeo eta hobekuntzak proposatzeko orduan; eta hobekuntza horiek ezartzeko, ikastetxeei emango dieten laguntzan.
- *ISEI-IVEI*. Ebaluazioko diseinua egitean, prozesu guztiaren jarraipenean, datu orokorren eta partzialen azterketan, eta hezkuntza sistema orokorraren eta ikastetxe eta ikasle bakoitzaren txostenen prestaketan.
- *Irakasle taldeak* (aurrez ezarrita edo elkartuta edota mintegien bidez). Beren laguntza oso baliagarria izan daiteke ebaluatu beharreko oinarritzko kompetentziak definitzean eta ebaluatzeo tresnak proposatzean.
- Ikastetxeen, zuzendaritza-talde... *elkarreak*. Ebaluatu nahi diren oinarritzko kompetentzien diseinua eta markoa kontrastatzeko erreferentzia gisa.

## 4. EBALUAZIO KULTURA. Ebaluazio honek ikastetxeen eta inplikaturako hezkuntza zerbitzuen ikaskuntzarako aukera izan nahi du.

Diagnostiko ebaluazioko proposamen honen helburua, alde batetik, ikastetxeetan **ebaluatzeo kultura egonkorra** ezartzea da, emaitzetatik abiatuta, ikaskuntza eta etengabeko hobekuntza prozesuen garapena sortzeo; bestetik, ikasleen kompetentzien garapena baloratuz eta sistema osoko berrikuntza eta hobekuntza prozesuak bultzatuz, Euskadiko hezkuntza sistema osoko egoera ezagutzea.



## I.4. DIAGNOSTIKO EBALUAZIOAREN PRINTZIOAK

Lehen aipatutakoaren ildotik, diagnostiko ebaluazio honek printzipio hauek bere gain hartzen ditu:

- a) **Gardentasuna:** Gizarte demokratikoak ebaluazio honen bidez lortutako informazioa inplikaturakoen eta gizartearen eskuetan jartzea eskatzen du ordezkari organoen bidez, inolako moldaketarik izan gabe eta interpretazio alderdikoirik gabe; betiere, uneoro datuen zuzentasun zientifikoan oinarritutako gardentasuna bermatuz.

*Ondorioak:*

- Euskadiko hezkuntzan inplikaturako sektore guztiek ebaluazio honetako datu orokorrak lortzea bermatuko duten informazio egonkorren prozesuak eta kanalak sortzea.

- b) **Konfidentzialtasuna:** Mota honetako ebaluazioak datuen bilketaren eta azterketaren prozesu osoaren konfidentzialtasuna bermatzea eskatzen du, baita intimitate eskubiderako guztizko errespetua ere. Bi alor horiek dira konfiantza giroa sortzeko oinarria. Konfidentzialtasun honek, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa kontuan izan behar duenak, banakako pertsonari eta ikastetxei, zerbitzuei eta ebaluazio prozesu honen garapenean inplikaturako ekipoei eragingo die.

*Ondorioak:*

- Ebaluazio prozesu osoan zehar, informazioa kontrolatzeko neurri zehatzak sustatuko dira.
- Ez dira inolako ebaluazio irizpideen araberrako antolaketako helburuak dituzten alderaketa nominalak egingo.
- Datu alderatzaileen helburu bakarra kalitatea hobetzea izango da, eta ikastetxea eta hezkuntza sistema hobetzeko prozesuetan txertatuko dira.
- Ikastetxetara emango den datu oro testuinguruaren aldagai jakin batzuetatik abiatuta kokatuko dira.

- c) **Kalitate teknikoa:** Zentzuzko diagnostiko ebaluazioak kalitate teknikoaren irizpide batzuei erantzungo die ebaluatzekeo tresnen eta proben diseinuan, ikastetxeen aplikazio fasean, emaitzen azterketa sistemetan eta hobekuntza eta hezkuntza komunitatearen informazio prozesuetan.

*Ondorioak:*

- Ebaluazio honetan, gaur egun tinkotasun gehien erakusten duten irizpide teknikoak eta eredu estatistikoak erabiliko dira, batez ere, nazioarteko ebaluazio desberdinek eskainiak, baita berezko ebaluazioen esperientziatik lortutako ikaskuntzak ere.

- d) **Adierazgarritasuna eta erabilgarritasuna:** Oro har, kanpo izaerako ebaluazio batek muga handiak izan ohi ditu egoeraren gaineko eta hezkuntza komunitatearen lorpenen gaineko irudi osatua eta zehatza emateko; izan ere, hezkuntza komunitatearen aberastasuna ezin da emaitza numerikoetan soilik adierazi. Hori dela eta, ikastetxetarako esanguratsua eta erabilgarriagoak diren aldeak aukeratu behar dira; hau da, azaltzeko duten konpe-



tentziarengatik gogoeta eta hobekuntza prozesuan laguntza hobea eskain dezaketenak. Azken instantzian, printzipio honek ebaluazio honetako prestakuntza ezaugarriarekin du zerikusia, eta ez kontuak emateko izaerarekin bakarrik.

Ondorioak:

- Ebaluatzeko, esanguratsuenak diren eta azaltzeko konpetentzia gehiena duten konpetentzia-alorrak aukeratu.
- Emaitzen azterketa eta interpretazio hobea egiteko, eta egoera argitzeko lagungarri diren oinarrizko aldagaiak identifikatu eta erabiltzea.
- Erantzunen trataera eta emaitzen esplotazioa bizkorrak izango dira; izan ere, denboran atzeratuko balira, bere balioa galduko lukete, behintzat prestakuntza ikuspegitik.



## I.5. ANTOLAKETA

Diagnostiko ebaluazioek ikastetxeen funtzionamendurako eta Administrazioak hezkuntza sistemaren egoeraren eta aurrerapenaren gainean egin behar duen kontrolerako duen garrantzia dela eta, eta lanaren konplexutasuna eta horren garapenean inplikaturik dauden pertsonak, zerbitzuak eta instituzioak kontuan hartuta, erabakitze eta kudeatzeko egitura sinplea ezarri da; bertan, lanak modu teknikoan eta bizkorrean egitea nagusitzeaz gain, hezkuntza zerbitzu desberdinen arteko lankidetzak hartzen da aintzat.

Eskumen betearazle edo exekutiboa duen eta erabakiak hartzen diren *Koordinazio Batzordearen* bidez, eta aurreko batzordearen laguntzaile gisa jarduten duen *Batzorde Teknikoaren* bidez dago egituratuta. Horietako bakoitzaren osaketa eta funtzioak jarraian adieraziko ditugu.


### a) Diagnostiko Ebaluazioaren Koordinazio Batzordea

Zentzuzko diagnostiko ebaluazioarekin zerikusia duten azken erabaki guztiak hartzeaz arduratzen da. Parte hartzen duten Saileko zerbitzuen arteko koordinazioa errazten du eta martxan jarritako talde desberdinen lana gainbegiratzen du.

Hezkuntza Sailburuordeak zuzendutako Batzorde honetan, Ikuskatzaitza Zentraleko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako eta Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko (ISEI-IVEI) arduradunek parte hartzen dute, baita erakunde hauetako bakoitzeko zenbait teknikaririk ere.

Hauek dira beren funtzioak:

- Zentzuzko diagnostiko ebaluazioaren garapenerako behar den araudia egitea.
- Lanaren egitura eta prozesua onartzea.
- Zeregin desberdinez arduratu behar diren zerbitzuen edota pertsonen definizioa.
- Zentzuzko diagnostiko ebaluazioaren diseinu orokorra onartzea.
- Funtzionamendu mailako arazo orokorren azterketa eta konponbidea.
- Ebaluazio txostenak berrikusi eta onartzea.
- Prozesuaren jarraikortasunaren bermea.



## b) Batzorde Teknikoa

*Diagnostiko Ebaluazioaren Koordinazio Batzordea* talde teknikoa da, eta berak erabakiak hartzeko beharrezkoak diren materialak eta proposamenak egiten dizkio funtsean. Era berean, diagnostiko ebaluazioaren oinarriko elementu guztien kudeaketaz arduratzen da, Batzorde Orokorrean ezarritako jarraibideei jarraituz. Azkenik, prozesuaren une bakoitzean beharrezkotzat jotzen diren lantaldeen funtzionamendua koordinatzen du, Koordinazio Batzordearen adierazpenetatik abiatuta eta bere ikuskaritzapean.


ISEI-IVEIko bi teknikariz, Ikuskatzaitza Teknikoko pertsona batez eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako beste batez dago osatuta. Lan eta jarduera zehatzak garatzeko, Saileko edo kanpoko (esate baterako, datuen azterketa, probak aplikatzea, ikastetxeei informazioa ematea...) beste pertsona edo talde batzuen laguntza du. Oinarriko Hezkuntzako 175/2007 Dekretuaren 36.2 artikuluan adierazitako eskakizunari erantzuteko helburuarekin, ISEI-IVEIn talde zehatza dago ebaluazioa Institutuaren funtzioekin zuzenean lotutako alorretan garatzeko.

*Koordinazio Batzordeak* hala ulertzen duen heinean, talde egonkorra da, bai antolaketa martxan jartzean, bai datozen ikasturteetako prozesu osoaren garapenean.

Zeregin nagusiek honako gaiekin dute zerikusia:

- Diseinuaren proposamena eta laneko egituraren egokitzapena (pertsonak, ardura, funtzioak...).
- Hauen gaineko oinarriko proposamenak barne hartzen dituen diagnostiko ebaluazio ereduaren diseinua:
  - Ebaluazioaren markoa, oinarriko konpetentzien definizioa eta irakaskuntza arloekin duen harremana barne hartuz.
  - Ebaluatu beharreko oinarriko konpetentziak.
  - Tresnak eta formatua, eta ebaluazio euskarria (informatikoa, arkatza eta papera...) zehaztea.
  - Galdera-sortak egitea.
  - Aplikazio hizkuntza eta probak itzultzeko irizpideak.
  - Aplikazio prozesua: aplikazioaren arduradunak, unea eta baldintzak, aplikazio tresnak eta kalitate kontrola.
  - Zuzenketa eta informazioa grabatzea.
  - Datuen analisia (egin beharreko analisi motak, alderaketak denbora baten zehar...).
  - Txosten orokor mota, ikastetxearen txosten mota eta banakako txosten mota.
  - Informazioa zabaltzea (emaitzak, datu baseak, probak...).
  - Aurrekontua.
- *Diagnostiko Ebaluazioaren Koordinazio Batzordeak* onartutako ebaluazio ereduaren atal guztien kudeaketa.
- Probetako taldeen eta informatikako ekipoen, eta ebaluazioa garatzeko martxan jartzen den beste edozein talderen koordinazioa.
- Informazioaren proposamenak eta, hala baldin badagokio, inplikaturako estamentuekin lankidetzarako proposamenak (ikastetxeak, irakasleak, familiak, elkarte profesionalak, titularren erakundeak...).
- Saileko zerbitzuetatik, ebaluazioak egiteko eta hobekuntza proposamenak lantzeko sustapena.

Dokumentu honetan aurkeztzen den *diagnostiko ebaluazioaren markoa* garatzeko, martxan jarri diren lantaldeak grafiko honetan biltzen dira:



Talde horiek diagnostiko ebaluazioaren garapen eta aplikazio prozesuan sortuko diren beharretara egokitzen joango dira. Edonola ere, *Koordinazio Batzordea* osatzen duten erakunde orok berezko egitura jarriko du martxan, dagozkion edo gomendatzen dizkien funtzio eta zeregin zehatzak garatzeko helburuarekin, bai lege ikuspegitik, bai ebaluazio honetako berezko garapenaren ondorio gisa.



II.

# Ebaluazioaren helburua:

oinarrizko kompetentziak



Laurogeita hamargarren hamarkadan zehar eta mende honetako lehen urteetan, hezkuntza sistemak aldatzeko, curriculum egiteko modu berriak bilatzeko, eta azken finean, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak ulertzeko modu berrien kezka areagotu egin da nazioartean.

LOEn ezarritako curriculum berriak eta Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Irakaskuntzaren curriculum ezartzen duen 175/2007 Dekretuan oinarrizko kompetentzien garapenean oinarritutako derrigorrezko hezkuntza orientatzearen aldeko apustua egiten du, alor honetan ELGAK eta Europako Batasunak azken urteetan egindako proposamenak erreferente gisa hartuta.

UNESCOren *“Ezagutzaren gizarteetarantz”*<sup>1</sup> Munduko Txostenak adierazten duenez, egungo egoeran, *“aurrerakuntza teknikoen bizkortasunarekin kompetentziek gaurkotasuna berehala galtzen dutenez, ezagutzaren alor desberdinetan ikaskuntza mekanismo malguen lorpena sustatzea komeni da, ondo zehaztutako ezagutzen multzoa ezarri beharrean. Ikasten ikasteak esan nahi du gogoeta egiten ikastea, zalantza egiten ikastea eta ahalik eta bizkorren egokitzen ikastea, baita norberaren ondare kulturalaren gogoeta egiten jakitea ere, adostasunak errespetatuz. Ezagutzaren gizarteek ardatz hauetan oinarritu behar dute”*.

Ildo horretatik, A. Pérez Gómez<sup>2</sup> jaunak hau erantsi zuen: *“Informazioaren eta ezagutzaren gizarteak ohikoetatik desberdinak diren eskaerak zuzentzen dizkio hezkuntzari, herritar guztiek beren bizitzan zehar ikasteko duten kompetentziaren garapenarekin lotuta. Beste modu batera esanda, arazoa ez da ikasleek jasotzen duten informazio kopurua, horren kalitatea baizik: ulertzeko kompetentzia, prozesatzekoa, aukeratzekoa, antolatzekoa eta hori guztia ezagutza bihurtzeko kompetentzia; baita proiektu pertsonalen eta sozialen balioen eta asmoen arabera egoera eta testuinguru desberdinetara aplikatzeko kompetentzia ere”*.

Planteamendu horrek eguneroko bizitzarekin, eta modu autonomoan eta kritikoan moldatu eta bizitza proiektua garatu ahal izateko oso erabilgarriak diren trebezien eta kompetentzien garapenarekin zerikusi gehiago duten eskaera berriei erantzutea du helburu. Horrek guztiak hezkuntzarako oinarrizko ideia dakar berekin: ikastetxean lantzen den diziplina edo diziplina arteko ezagutza bere horretan helburu gisa ikusi beharrean, kompetentzien zerbitzura dagoen tresna pribilegiatu gisa ulertzea.

Oinarrizko kompetentzien azterketari zuzendutako kapitulu honetan, galdera hauei erantzungo diegu:

- Zergatik sortu da kompetentzien arabeko ikuspegia?
- Zer ulertzen dugu oinarrizko kompetentzia diogunean?
- Zeintzuk dira oinarrizko kompetentziak?
- Nola banakatzen da kompetentzia bakoitza?
- Nola graduatu dira kompetentziak?
- Zer lotura dago kompetentzien eta curriculumaren artean?

<sup>1</sup> Hezkuntzarako, Zientziarako eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea (2005): UNESCOren Munduko Txostena 2005: Ezagutzaren gizarteetarantz.

<sup>2</sup> Pérez Gómez, A. (2007): *La naturaleza de las competencias básicas y sus aplicaciones pedagógicas*, Kantabriako Hezkuntzako koadernoak, 1. zk, Hezkuntza Kontseilaritza, Santander.

## II.1. ZERGATIK SORTU DA KONPETENTZIEN ARABERAKO IKUSPEGIA?

Ikuspegi honek 90eko hamarkadan hasitako korronteari jarraitzen dio; une hartan hasi ziren mundu osoan oinarritzko konpetentziekin lotutako azterketak, argitalpenak, kongresuak eta ekimen politikoak egiten. Lan munduan sortutako eta hezkuntza alor osora zabaldu den ikuspegia da; herritar guztiek gutxieneko konpetentziak behintzat lortzea nabarmendu nahi du, aukera berdintasunak lortzeko bide gisa.

Konpetentzien araberako ikuspegian oinarritutako hezkuntza korronte berria gure garaiko ezaugarri erabakigarri batzuei emandako erantzuna da. Batetik, herritar guztientzat oinarritzko konpetentziak lortzeari begira hezkuntzaren bidez aukera berdintasunak lortzeko saiakera egitea da. Antzinako printzipio pedagogiko hau eguneratu nahi du: hezkuntza komunak edo orokorrak gizabanakoarentzako zein komunitaterako “oinarritzko-nahikoa” trebakuntza eskaini behar du. Bestetik, eskola porrota saihesteko eskakizunari erantzuna ematea da; horretarako, ikasle guztientzat nahikoa prestakuntza bermatuko da.

Hezkuntza politikak gai honen inguruan interesa agertzearen arrazoa ikastetxea eta hezkuntza bere testuinguruan kokatu nahi duen kultura iraultzari dagokio, betiere, gertatutako eraldaketa handiak kontuan izanik. Horien artean hauek nabarmendu ditzakegu:

- *Eskakizun maila handitzea ezagutzaren gizartean txertatu ahal izateko; eskakizun horrek beharrezko konpetentziak dituztenen eta konpetentzia horiek ez dituztenen artean (marjinazioa eta bazterketa arriskuan daudenak) arrail digitala sortzen du.*
- *Prestakuntzaren maila orokorra handiagotzea. Hala ere, herritarren %10 inguru oinarritzko titulaziorik gabe geratuko lirake.*
- *Prestakuntza edukien etengabeko krisia; aurrerakuntza zientifiko-tekniko bizkorra dela eta, eta horrek dakartzan egoera ekonomiko-sozial berriak direla eta, berehala geratzen dira zaharkituta. Horregatik, bizitzan zehar ikasteko konpetentzia sustatzea oso garrantzitsua da, ezagutzen jakinduria handia eskaintzea baino gehiago. Curriculumua “puztea”, maiz arazo sozialen arduradun izendatzen diren hezitzaileei gainezka egiten diena.*
- *Ikastetxearen ostean bizitzarantz orientatzea, ikaskuntzen transferentziaren bilaketa eta testuinguru anitzetan horren aplikazio egokia nabarmenduz.*
- *Hezkuntza paradigma aldatzea, orain ez irakaslean ezta ikastetxean zentratuta, ikaslean baizik. Korronte psikologiko eta pedagogiko desberdinen ekarpena (konduktismoa, konstruktibismoa, adimen emozionalaren lanketa eta abar), ikaskuntzen eraginkortasunaren, esanahiaren eta osotasunaren garrantzia areagotzen dutenak.*
- *Azkenik, kudeaketa metodoen eta emaitzen ebaluazioaren arteko oreka, hau aitortuz: hezkuntza sistemen kalitatea ez dagoela baliabideen baitan soilik (nahiz eta garrantzitsuak izan), baita emaitzen ebaluazioan eta kontrolean ere.*

Azken finean, hezkuntza sistemetan orokortutako hezkuntzaren kalitatearengatik arduratzea da ikaskuntzak praktikan jartzea nabarmentzen duten oinarritzko konpetentziei arreta eskaintzeko arrazoi nagusia; horrela, kalitatea eta ekitatea harmonizatu nahian, transferentzia eta ebaluazioa erraztuko dira.

Horrek guztiak, curriculuma berriz pentsatzera eramane da eta oinarritzko hezkuntzan oinarritzkoa denaren gaineko eztabaidari ekitera; kontuan izan behar da hezkuntza maila hauetan ezin dela guk nahiko gurek guztia irakatsi eta ikasi, ezta guretzat segurtasun osoz haurrek eta gazteek ikastea garrantzitsua den guztia ere. Aukerak egin behar dira. Aukeratu egin behar da. Edukiak zabaltzen edo berriak sartzen direnean, beste batzuk kendu edo baztertu egin behar dira, eta batzuetan, edukiak ezabatu eta beharrezkoa dena bilatu nahi izaten da, ikaskuntza berriz egituratuz eta hezkuntzaren mundua eta horren ingurua lotzen duten metodologia barneratzaileak aplikatuz.



## II.2. ZER ULERTZEN DUGU OINARRIZKO KONPETENTZIA GISA?

Egun, Europako Batasuneko estatu kideen curriculumak askok konpetentzien garapenari dagozkion erreferentzia esplizituak edo inplizituak barneratzen dituzte; hala eta guztiz ere, Eurydicek 2002. urtean egindako txostenean agertzen den bezala, erabilpen terminologikoan eta kontzeptu horren ulergarritasunean ez dago homogeneousunik (azken konpetentziez, oinarriko konpetentziez, konpetentzia orokorrez edo zeharkako konpetentziez, konpetentzien atalaseez... hitz egiten da).


Beraz, ez dago “konpetentzia gako edo oinarrikoa” kontzeptuaren onarpen unibertsalik; hala ere, konpetentzia gako, beharrezko edo oinarriko gisa hartu ohi dira edonorentzat eta gizartearentzat beharrezkoak eta onak direnak; beharrezko konpetentzia horiek "gizarteko kide aktibo gisa bizitza egokia eduki ahal izateko gizabanako guztien beharrezko ezagutzen, trebezien eta jarrerren multzo" gisa ulertzeko adostasun komuna dago.

Ikuspegi honetatik, alor edo jarduera batean trebea izateak alor horrekin lotutako egoera eta arazo jakin batzuei aurre egin ahal izateko ezagutza garrantzitsuak aktibatze eta erabiltzeko gai izatea esan nahi du. Hezkuntza alorrean, terminoak testuinguru batean modu eraginkorrean jarduteko konpetentzia edo ahalmena adierazten du. Ezagutzak baino gehiago, erabilpen eraginkorra barne hartzen du.

DeSeCo (*Konpetentzien Definizioa eta Aukeraketa*) txostena izenekoa da gogoetaren prozesu honen guztiaren dokumentu garrantzitsuetako bat, ELGAK egina; lehen bertsioa 2000. urtean agertu zen eta azken bertsioa 2003an zabaldu zen. Dokumentu horretatik aurrera, ELGAKo herrialde gehienak eskola curriculum hori oinarriko konpetentzien kontzeptuaren (“Key competencies”) inguruan kokatzen hasi dira.

DeSeCo txostenak honela definitzen du konpetentzia: *“eskaera konplexuei erantzuteko eta hainbat zeregini modu egokian irtenbidea emateko ahalmena. Konpetentzia praktikoan, ezagutzen, motibazioaren, balio etikoan, jarrerren, emozioen eta beste konpetentzia sozialen eta jarrera konpetentzien konbinazioa da, batera mugitzen direnak ekin-tza eraginkorra lortzeko”*.

“Egiten jakitea” da, beraz; jakite hori aplikatu egiten da eta hainbat egoera eta testuingurutara egokitu daiteke; gainera, izaera integratzailea du, ezagutzak, prozedurak eta jarrerak barneratuz.



Beraz, konpetentzia baten definizioan hauek barneratu daitezke:

- eragiketa kognitiboa (batzuetan, konpetentzia orokorrek edo zeharkakoak izenekoekin nahasten da);
- ezagutza esaten diogun objektuaren gainean aplikatzen da,
- horrekin zerbait egin behar da helburu jakin bat lortzeko.


Azken finean, argi dago oinarriko konpetentziek arloen eta curriculumeko diziplinen araberako banaketa gainditu behar dutela; gainera, ezagutzen, trebezien eta jarrera orokorren zeregin bateratuak edo integratuak planteatu behar dituzte. Mota desberdinetako edukiak erabili behar diren edo eduki horiek aplikatzen ez diren oinarriko konpetentziak

ebaluatzea ezinezkoa ez baldin bada ere, zaila dela esan dezakegu. Itemetan dauden zeregin gehienak egiteko, ikasleek ikastetxean lortutako eta garatutako ezagutzak erabili beharko dituzte.

Ebaluazio helburu gisa oinarrizko kompetentziak dituzten ebaluazio gehienen helburua ikasleek kompetentzia horiek zein *gradutan* edo mailatan garatu dituzten baloratzea da; horrek esan nahi du alde aurretik ikasturte, ziklo edo etapa jakin baterako zehaztu egin behar direla.

DeSeCo txostenaren arabera, kompetentzia gako edo oinarrizkotzat hartu ahal izateko, herritar guztiarentzat baliozkoa izan beharko du, sexua, gizarte eta kultura egoera, eta familia ingurunea edozein izanda ere; gainera, hiru baldintza bete beharko dituela agintzen du txostenak:

- Derrigorrezko irakaskuntzan edo prestakuntzan zehar garatu beharko da.
- Transferigarria izan beharko du; hau da, egoera eta testuinguru askotan aplikatu ahal izango da.
- Funtzio anitzekoa izan beharko du; izan ere, hainbat helburu lortzeko, arazo mota desberdinak ebazteko eta zeregin mota desberdinak aurrera eramateko erabili ahal izango da.



Azkenik, kompetentziaren kontzeptua ulertzean, ezaugarri hauek hartu behar dira kontuan:

- a) **Ez dira zuzenean ebaluagarriak:** Eskola ikaskuntzak “kompetentzien” terminoetan soilik definitzea, engainagarriak diren eta kompetentziaren kontzeptuarekin kontraesankorrak diren eduki eta ezagutza mota desberdinen identifikazioa alde batera utziz. Kompetentziaren lorpena jakituria jakin batzuk eskuratzearekin dago zuzenean lotuta (ezagutzak, kompetentziak, balioak, jarrerak, emozioak...). Kompetentzia lortu edo garatzeko, asimilatu egin behar da eta kompetentzia horri lotutako jakituria jakin batzuk lortu behar dira; gainera, mobilizatzen eta aplikatzen ikasi behar da. Landu eta garatu ahal izateko eduki egokienak aukeratu, sekuentzia zehaztu, eta maila eta ikasturte desberdinen berezko gradua aukeratu behar dira; gainera, lorpeneko adierazleak ezarri eta ikasleak egin ahal izateko zereginak behar bezala proposatu behar dira.
- b) **Izaera dinamikoa dute eta osagai ideologiko garrantzitsua dute.**
- c) Gaur egun curriculumean aintzat hartzen diren elementuak **ez ditu ordezkatzeko**; alderantziz, eskola curriculum osoaren ikuspegi bateratua eta bateratzailea emanez hartzen ditu aintzat. Hori dela eta, eguneroko praktikan garapen eraginkorra lortu ahal izateko, arloetako helburuekin, edukiekin eta ebaluazio irizpideekin bat etorritu ipini behar dira.
- d) **Oinarrizko kompetentziak** ez dira gutxieneko ikaskuntzak balira bezala interpretatu behar. Hain zuzen ere, curriculumetan hainbat ikaskuntza multzo barneratzen dira, zentzu hertsian gutxieneko gisa hartu daitezkeenak baino zabalagoak.

Kompetentzia multzo horrek ez du ikastetxean irakasten den guztia osatzen; izan ere, egungo gizartean bizi eta elkarbizi ahal izateko, eta ikasten jarraitu ahal izateko beharrezkoa denaren aukeraketa da.

- e) Elkarrekiko **EZ dira independenteak**, lotuta daude. Horietako zenbait elementu osagarriak dira edo gurutzatu egiten dira. Horietako bakoitza garatzeak eta erabiltzeak besteen beharra du era berean. Zenbait kasutan, lotura hori oso tinkoa da; esate baterako, hizkuntza komunikaziorako, ikasten ikasteko edo informazioaren tratamendurako kompetenzien oinarrizko elementu batzuk, elkarren artean oso lotuta daudenak, gainerako kompetentziak garatzeko eta erabiltzeko oinarria dira. Are gehiago, hizkuntza komunikaziorako kompetentzia, bere izaera instrumentala dela eta, kompetentziarik zeharkakoena dela esan genezake; kompetentzia hori menderatzeak gainerako ezagutza guztietarako sarbidea errazten du. Azkenik, kompetenzien arteko lotura estua horiek guztiek osatzen dituzten zenbait elementuren bidez hartzen da aintzat: problemak ebaztea, jarrera kritikoa, sormeneko ekimena, arrisku ebaluazioarekin erabakiak hartzea, eta batez ere, informazioaren aukeraketa, trataera, erabilpena eta komunikazioa.

## II.3. ZEINTZUK DIRA OINARRIZKO KOMPETENTZIAK?

Uneotan, kompetentzia gakoei edo oinarrizkoei buruzko proposamen ugari aurki ditzakegu. Gai honen inguruan eztabaidatzen eta gogoeta egiten pasatu ditugun urte hauetan zehar, hainbat hezkuntza erakundek eta erakunde politikok eta ekonomikok bere kompetentzia zerrendak aurkeztu ditu.

Adierazi dugun moduan, laurogeita hamargarren hamarkadan ELGAko herrialdeetan DeSeCo Proiektua egitea izan da ekarpenik handiena, Salganik, Rychen, Moses eta Konstant adituen koordinazioarekin eta parte hartzearekin. Azken txostena oinarrizko erreferentzia da; izan ere, kompetentzia kontzeptuaren definizioa egin eta arrazoitu du eta gako diren hiru maila handi kategorizatu ditu. Taula honetan biltzen dira:

### Gako kompetentziak “DeSeCo txostena” (ELGA)

<p><b>1. kategoria:</b> <b>TRESNAK MODU INTERAKTIBOAN ERABILI</b></p>	<p>a) Hizkuntza, sinboloak eta testua modu interaktiboan erabiltzeko kompetentzia. b) Ezagutzak eta informazioak modu interaktiboan erabiltzeko kompetentzia. c) Teknologia modu interaktiboan erabiltzeko kompetentzia.</p>
<p><b>2. kategoria:</b> <b>TALDE HETEROGENEOTAN ELKARRERAGITEA</b></p>	<p>a) Besteekin ondo konpontzeko kompetentzia. b) Lankidetzan jarduteko kompetentzia. c) Gatazkak kudeatzeko eta konpontzeko kompetentzia.</p>
<p><b>3. kategoria:</b> <b>MODU AUTONOMOAN JARDUTEA</b></p>	<p>a) Egoera zabal/konplexu batean jarduteko kompetentzia. b) Bizitzako planak eta proiektu pertsonalak egin, bideratu eta kudeatzeko kompetentzia. c) Eskubideak, interesak, mugak eta beharrak adierazteko eta defendatzeko kompetentzia.</p>

2000ko martxoan Lisboan izandako Europako Kontseiluak helburu berri hau lortzea proposatu zuen: "munduko ekonomiarik lehiakorrena eta dinamikoena bihurtzea, hazkunde ekonomiko iraunkorrerako gai dena, enplegu kalitate hoberekin eta enplegu gehiagorekin eta gizarte kohesio handiagoarekin lagunduta". Horretarako, 2001eko otsailean, Europako Batzordeak hamahiru helburu zehatz eta elkartutako hamahiru helburu identifikatu zituen datozen hamar urteetarako; eta, 2002ko otsailean, praktikan jartzeko programa diseinatu zuten.

Era berean, 2000. urteko Lisboako Europako Kontseiluak estatu kideak eta Batzordea gonbidatu zituen "bizitzan zehar ikaskuntzaren oinarrizko trebezia berriak" zehaztera; hauek ziren trebezia horiek: Informazioaren teknologiak, atzerriko hizkuntzak, kultura teknologikoa, enpresa espiritua eta trebezi sozialak. Ondorengo saioetan trebezia horiek baieztatu ziren, eta 2002. urtean ondorengo zortzi trebezia eremu proposatu ziren:

- Komunikazioa ama hizkuntzan.
- Komunikazioa atzerriko hizkuntzetan.
- IKTak.
- Kalkulua eta konpetentziak matematikan, zientzian eta teknologian.
- Enpresa espirtua.
- Pertsonen arteko konpetentziak eta konpetentzia zibikoak.
- Ikasten ikastea.
- Kultura orokorra.

2002ko ko Bartzelonako Europako Kontseiluak alor horiek errepikatu zituen, eta atzerriko hizkuntzen eta irakurketa digitalaren garrantzia nabarmendu zuen; gainera, irakaskuntzan Europako dimentsioa sustatzeko beharra ere gorai patu zuen. 2004. urtetik aurrera, Europako Batasunak etengabeko ikaskuntzarako gako-konpetentzia jakin batzuk ezartzeko beharra aztertu zuen; konpetentzia horiek estatu kideetako hezkuntza sistematarako erreferentzia gisa balioko lukete; honela uler dezakegu: *"gizabanako guztiak beren garapen pertsonalerako, txertaketarako eta enplegurako behar dituzten eza gutzen, trebezien eta jarrerren pakete funtzio anitzekoa eta transferigarria"*.

Europako Batasunak *"Gako konpetentziak etengabeko ikaskuntzarako, Europako erreferentzia markoa"* dokumentuan (Europako Parlamentuak 2006ko otsailean onartutako gomendioa) proposatutako konpetentziak nabarmen bereizten dira ELGAK DeSeCo txostenean ezarritakoetatik; izan ere, neurri batean, formulazioari dagokionez, eskola curriculumetako arlo eta materia tradizionaletara gehiago hurbiltzen dira.

### GAKO KONPETENTZIAK – Europako Batasuna

#### **2006ko abenduaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren gomendioa etengabeko ikaskuntzarako gako konpetentzien gainean (EBAO, 2006ko abenduak 30)**

- Komunikazioa ama hizkuntzan.
- Komunikazioa atzerriko hizkuntzetan.
- Matematikarako konpetentzia eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko konpetentzia.
- Konpetentzia digitala.
- Konpetentzia sozialak eta zibikoak.
- Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.
- Ikasten ikastea.
- Ekimenaren zentzua eta enpresaren espirtua.

Bestalde, laurogeita hamargarren hamarkadatik, hainbat dokumentuk adierazi izan digute gako konpetentziak eta hobekuntza metodologikoak alderatzea, zabaltea eta ebaluatzea ahalbidetuko duen Europako sistema sortzeko beharra (Hezkuntzari eta Trebakuntzari buruzko Liburu Zuria; Hezkuntzaren Europako dimentsioari buruzko Liburu Berdea eta abar). Ordena honetan, aipamen berezia merezi du alderatutako ebaluazioaren azterketa handiak "PISA 2000: hezkuntza errendimenduaren kalitatearen eta ekitatearen gaineko datuak", Andreas Schleiderrek zuzenduta eta ELGAREN baitan eginda.

Aurreko proposamenetik abiatuta, eta LOE eta horri dagozkion Gutxieneko Irakaskuntzen Errege Dekretuak sustatzearen testuinguruan, MECek Derrigorrezko Hezkuntzaren curriculumetan oinarrizko konpetentziak txertatzea eta ebaluaziorako erreferente gisa aintzat hartzea erabaki du. Ministerioak, erreferente teoriko gisa DeSeCo Txostena hartzen badu ere, Europako Batasuneko "Hezkuntza eta trebakuntza 2010. Gako konpetentziak" dokumentuari heldu dio; Europako Batasuneko kideak diren herrialdeei gomendio izaera nabarmentzen die, nahiz eta "Espainiako hezkuntza sistemaren egoera zehaztetara eta ezaugarrietara" egokitzen saiatu. LOEk ezarritako lege-markoa osatzen duten oinarrizko 8 konpetentziak dira emaitza<sup>3</sup>.

<sup>3</sup> Ikus daitekeen moduan, Europako Batasunak zehaztutako 8 konpetentzietako batzuk aldatu dira; horrela, bi hizkuntza konpetentziak baka-rean elkartu dira, eta Ekimenaren zentzua eta enpresaren espirtua konpetentzia *Autonomia eta ekimen pertsonala* bihurtu da; izan ere, hezkuntza etapetarako hobeto egokitzen zen.

## OINARRIZKO KONPETENTZIAK - LOE

**1513/2006 ED; horren bidez ezartzen dira Lehen Hezkuntzari dagozkion gutxieneko irakaskuntzak (2007ko abenduaren 8ko BOE)**

**1631/2006 ED; horren bidez ezartzen dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion gutxieneko irakaskuntzak (2007ko urtarrilaren 5eko BOE)**

- Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia.
- Matematikarako konpetentzia.
- Mundu fisikoa ezagutzeko eta horrekiko elkarrekintza izateko konpetentzia.
- Informazioaren trataera eta konpetentzia digitala.
- Ikasten ikasteko konpetentzia.
- Konpetentzia soziala eta herritarra.
- Autonomia eta ekimen pertsonala.
- Konpetentzia kulturala eta artistikoa.

Euskal Autonomia Erkidegorako Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duen 2007ko urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak oinarrizko konpetentziaren definizio eta irizpide berberak mantentzen ditu edukiari eta zentzuari dagokionez, baina terminologia eta eduki aldaketa batzuk txertatzen ditu:

## OINARRIZKO KONPETENTZIAK - 175/2007 Dekretua

### **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGORAKO OINARRIZKO HEZKUNTZAREN CURRICULUMA**

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
- Matematikarako konpetentzia.
- Zientzia-, teknologia- eta osasun- kulturarako konpetentzia.
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko konpetentzia.
- Ikasten ikasteko konpetentzia.
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
- Autonomia eta ekimen pertsonala.
- Giza- eta arte-kulturarako konpetentzia.

Euskal hezkuntza sistemarako oinarrizko konpetentzien zerrendaren gainean, aipatutako Oinarrizko Irakaskuntzen Dekretuak honakoa adierazten du: *“oinarrizko konpetentzien artean, batzuek zeharkako izaera dute, hau da: ikasten ikasteak, hizkuntza komunikazioak, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko konpetentziak, gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak eta autonomia eta ekimen pertsonalak. Besteak curriculumeko arlo edo materia zehatzekin lotzen dira gehiago, zientzia-, teknologia- eta osasun- kulturarako konpetentzia; matematikarako konpetentzia eta giza eta arte-kulturarako konpetentzia. Hala eta guztiz ere, oinarrizko konpetentzia guztiak garrantzitsutzat jotzen dira; izan ere, horietako bakoitzak ezagutzaren gizartearen baitan bizitzan arrakasta izaten lagun dezake, eta era berean, eremu bateko oinarrizko alor jakin batzuek beste bateko konpetentzia babesten duten sarea osatzen dute”.*

Kontuan izan behar dugu konpetentzia gehienak gainjarri eta gurutzatu egiten direla: eremu bateko oinarrizko alor batzuek beste eremu batean babesten dute konpetentzia. Hizkuntzaren, irakurketaren, idazketaren, kalkuluaren eta informazioaren eta komunikazioren teknologietarako oinarrizko konpetentziek ikaskuntzarako beharrezko euskarria osatzen dute; eta, halaber, ikaskuntzako jarduera guztiak ikasten ikasteko konpetentzian oinarritzen dira. Zenbait alor marko guztira aplikatu ahal izan da eta oinarrizko zortzi konpetentzietan parte hartzen dute: pentsamendu kritikoa, sormena, ekimenerako konpetentzia, problemen ebazpena, arriskuaren ebaluazioa, erabakiak hartzea eta sentimenduen kudeaketa konstruktiboa.

Azkenik, diagnostiko ebaluaziorako erreferente gisa oinarritzko konpetentzien zerrendarekin lotuta, Europako markoak jakinarazpen garrantzitsua egin du zenbait konpetentzien menderatze-maila neurtzeko mugak daudela ohartarazteko; lehendik dauden neurtzeko tresnei dagokienez, eta neurri handi batean nazioarteko ebaluazio handiek eskainita, hizkuntza konpetentziaren eta matematikarako edo zientziarako konpetentzien alorrak xehetasun handiz lantzen dituzte, baina agerian uzten dute konpetentzia digitala eta ikasten ikastearena esperientzia ebaluatzaile txikiagoa dagoela, eta, nola ez, konpetentzia orokorrak eta zeharkakoak neurtzeko egungo erreferentzia eskasia.

## II.4. NOLA BANAKATZEN DA KONPETENTZIA BAKOITZA?

Konpetentziak etapen eta ikasmilen arabera zehazteko egokitasunaren eta mugen inguruko nolabaiteko eztabaida dago. Europako markoaren proposamen berberak ohartarazten du balitekeela garrantzitsua ez izatea, konpetentzien eremu gehienetan, konpetentzia baten oinarritzko eskuratze mailen (ezinbesteko gisa ulertutakoak) eta horren menperatze maila aurreratuen arteko bereizketa egitea; izan ere, egoera edo testuinguru zehatz batean problema bat ebazteko konpetentzia bat nahiko ondo menderatzea baliteke nahikoa ez izatea beste egoera batean, bereziki etengabe aldatzen ari den gizarte batean, norbanakoaren eskaerak egoera eta une batetik bestera aldatzen ari baitira.


Hala eta guztiz ere, derrigorrezko etapa bakoitzean konpetentzien banakapen sekuentziatua egitean zuhur jarduteko aholkatzen duen jakinarazpen honez gain, *Batzorde Teknikoak*, erreferentziako elementu gisa, aintzat hartu du banakapen hori beharrezko tresna dela ebaluatu nahi diren testuinguruetara eta konpetentzien mailetara egokitutako errendimendu probak egin behar dituztenentzat.

Konpetentziak ebaluatzeko aukerak eta beharrak, norberaren errealizaziorako, herritar aktiboak egiteko eta gizartearen txertatzeko eskatzen diren ezagutzen, trebezien eta jarreraren multzo integratzaileagoan ulertuta, errendimendu mailak estandarizatzen lagunduko duten elementuen sekuentziazioa eta banakapena eskatzen du.

Dekretuan zehaztu diren eta ebaluatu behar diren oinarritzko konpetentzia bakoitza aztertze, antolatze eta horien banakapena egiteko, adituen lana eta parte hartzea nabarmendu behar dugu bakoitzari dagokion konpetentzien alorrean.

*Zer elementuk osatzen dute konpetentzia?*

Proposamen honetan, konpetentzia bakoitzaren banakapena hiru mailatan dago egituratuta:



Konpetentzia bakoitza bloke edo alor handitan egituratzen da, eta horiei *dimentsioak* deitzen zaizkie. Horiek, konpetentziaren esparru handiak direnez, berberak dira Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, eta curriculumak garatzen den Dekretuaren eranskinean konpetentzia bakoitzaz egiten den deskribapenetik sortzen dira.


<sup>4</sup> Batez ere ELGaren PISA probaz ari gara (Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa), 15 urteko ikasleen irakurmeneko, matematikarako eta zientzietako konpetentziak neurtzen dituena, baita IEAren (Errendimendu Akademikoa Ebaluatzeko Nazioarteko Elkarte) TIMSS (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan zientzia eta matematikako ezagutzak neurtzen dituena) eta PIRLS (Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen irakurmena neurtzen duena) probaz ere.

Dimentsio horietako bakoitza *azpikonpetentzietan* zehazten da. Lehen zehaztapen maila honetan, azpikonpetentzia generikoen lehen zerrenda proposatzen da eta horiek etapa bakoitzean zehazten dira; zenbait kasutan, azpikonpetentzien batek Lehen Hezkuntzako maila gaindi dezake, baina kompetenziaren dimentsio bakoitzean txertatuta dauden guztien zerrenda egitea komenigarritzat jotzen da.


Azkenik, azpikonpetentzia horientzat *ebaluazio adierazleak* identifikatzen dira; ikasleek kompetentzia menderatzen dutela egiaztatzeko garatu beharreko zeregin edo operazio behagarriak dira horiek. Adierazleek argi adierazten dute ikasleen jakin eta egiten jakin behar dutena. Adierazleetan, Lehen Hezkuntzako 4. mailaren eta DBHko 2. mailaren arteko mailaketa argia bereiz daiteke.

Arloetako ebaluazio irizpideak erreferentzia gisa hartu dira diagnostiko ebaluazioa egingo den ikasmaila bakoitzean ebaluazio adierazleak zehazteko orduan.

Grafiko honetan, kompetentziak banakatzeko eta garatzeko eskema hierarkikoa erakutsiko dugu:



Aurreko eskema hierarkikoa, kompetentzia guztiekiko komuna, *Hizkuntza Komunikaziorako kompetentzian* adieraziko dugu:



Eskema honetatik abiatuta, etapa bakoitzerako zehaztapenak egin dira; horrela, argi ikusi ahal izango dira etapa bakoitzerako proposatzen diren kompetentzien garapenaren diferentziak. Hurrengo orrialdeetan, Hizkuntza komunikaziorako kompetentziako *Ahozko adierazpena* dimentsioko hirugarren azpikonpetentziaren (*"Modu egokian eta zuzenean mintzatzea"*) inguruko eta Matematika kompetentzian Kopuruaren dimentsioko lehen azpikonpetentziaren inguruko bi adibide agertzen dira.



## LEHEN H. 4. MAILA

## DIMENTSIOA: MINTZAMENA

## DBH 2. MAILA

**Azpikompetentzia: Ahozko testu errazen eta ikasleentzat interesgarriak direnen bidez ondo adieraztea****Adierazleak:**

- Argi eta bizkor mintzatzen da.
- Elementu prosodikoak eta keinu elementuak erabiltzen ditu.
- Testu generoaren ezaugarriak errespetatzen ditu.
- Adierazpen diskriminatioak aitortzen ditu.

**Azpikompetentzia: Ahozko adierazpen errazetan eta ikasleentzat interesgarriak diren gaien inguruan modu egokian eta zuzenean adieraztea****Adierazleak:**

- Argi, zuzen eta erraztasunez mintzatzen da.
- Elementu prosodikoak eta keinu elementuak erabiltzen ditu.
- Estrategiak erabiltzen ditu hartzailea inplikatzeko.
- Testu generoaren berezko arauak errespetatzen ditu.
- Ikus-entzunezkoen eta IKTen babesa erabiltzen du.

**1. maila**

- Hitz egitean une batzuetan argitasunez adierazten da.
- Keinua eta jarrera zailtasunez kontrolatzen ditu.
- Testu generoaren oinarriko ezaugarriak kontuan hartzen ditu.

**2. maila**

- Argi eta nolabaiteko erraztasunez adierazten da.
- Intonazioa ondo aldatzen du.
- Keinua eta jarrera modu eraginkorrean kontrolatzen ditu.
- Testu generoaren oinarriko ezaugarriak errespetatzen ditu.
- Bere ekoizpenetan adierazpen diskriminatzaileak erabiltzea onartzen du.

**3. maila**

- Argi eta erraztasunez adierazten da.
- Intonazioa diskurtsuaren ezaugarrietara egokitzen du.
- Keinua eta jarrera ondo kontrolatzen ditu.
- Testu generoaren berezko ezaugarriak errespetatzen ditu.
- Bere ekoizpenetan adierazpen diskriminatzaileak erabiltzea onartu eta zuzentzen du.

**1. maila**

- Bere diskurtsuaren une batzuetan argi eta erraztasunez adierazten da.
- Bere diskurtsuaren zuzentasuna zailtasunez kontrolatzen du.
- Elementu prosodikoak eta keinu elementuak zailtasunez kontrolatzen ditu.
- Gutxienez, keinu baliabide bat erabiltzen du jasotzailea inplikatu ahal izateko.

**2. maila**

- Bere diskurtsuak ez ditu generoaren arauak adierazten: aurkezpena, ondorioa...
- Bere diskurtsuak argi eta erraz adierazten da.
- Hizkuntzari dagokionez, une askotan mintzatzeko era zuzena da.
- Elementu prosodiko eta keinu elementu batzuk kontrolatzen ditu.
- Hizkuntza eta keinu prozedurak erabiliz, hartzailearen inplikazioa bilatzen du.
- Batzuetan, jarrera egokia kontrolatzen du.
- Aurkezpenari, ondorioari... dagokionez, generoaren arau batzuk errespetatzen ditu.
- Ikus-entzunezko baliabideen eta IKTen babesa adierazgarritasun gutxiarekin erabiltzen du.

**3. maila**

- Bere diskurtsuak argi eta nahikoa erraz adierazten da.
- Diskurtsuak nahikoa hizkuntza zuzentasunarekin adierazten da.
- Elementu prosodikoak eta keinu elementuak ondo kontrolatzen ditu.
- Hizkuntza eta keinu prozedurak erabiliz, hartzailearen inplikazioa bilatzen du.
- Jarrera modu onargarrian kontrolatzen du.
- Hizkuntza eta testu ezagutzak erabiltzen ditu generoaren berezko arauak errespetatzeko.
- Ikus-entzunezko eta IKTen baliabideen laguntza nabarmen erabiltzen du.



LEHEN H. 4. MAILA

MATEMATIKARAKO K. - 1 DIMENTSIOA: KOPURUA

DBH 2. MAILA

**1. azpikonpetentzia:** Eguneroko bizitzako testuinguru desberdinetako informazioak eta mezu numerikoak interpretatu, ulertu, ekoiztu eta jakinarazteko, eta arrazonomendu numerikoko arazo-egoerak konpontzeko, beharrezkoak diren ezagutza numerikoak erabiltzea

*Adierazleak:*

- Zerbakiak irakurri eta idazten ditu.
- Zerbakiak konparatu eta ordenatzen ditu.
- Zerbakiak osatu, banatu eta birbiltzen ditu.
- Irudikapen grafikoak ezagutzen ditu, eta oinarritzko frakzioak irakurri, idatzi, alderatu eta ordenatzen ditu.
- Serie numeriko errazak identifikatu, egin eta osatzen ditu.
- Testu numeriko desberdinetan agertzen diren zerbaki naturalen eta frakzio errazen balioa interpretatzen du.
- Ahoz eta idatziz igorritako informazio eta mezu numerikoak ulertu, interpretatu, ekoiztu eta jakinarazten ditu.
- Asmakizun eta jolas numeriko txikiak egin eta ebatzen ditu, baita arrazonomendu numerikoa eskatzen duten problemak ere.

**1. azpikonpetentzia:** Eguneroko bizitzako testuinguru desberdinetako informazioak eta mezu numerikoak interpretatu, ulertu, ekoiztu eta jakinarazteko eta problemak ebazteko, beharrezkoak diren ezagutza numerikoak erabiltzea

*Adierazleak:*

- Zerbaki mota desberdinak (naturalak, osoak, zatikizkoak eta hamartarrak) irakurri, idatzi eta identifikatzen ditu.
- Zerbaki mota desberdinak irudikatzen eta sinboloak ezagutzen ditu.
- Zerbakiak beren artean alderatu eta ordenatzen ditu.
- Zerbakiak beren artean erlazionatzen ditu.
- Zerbaki mota desberdinak (naturalak, osoak, zatikizkoak eta hamartarrak) irakurri, idatzi eta identifikatzen ditu.
- Testuinguru desberdinetako informazio numerikoak jakinarazten ditu.
- Ezagutza numerikoak barneratu, eta problemak eta arrietak ebazteko erabiltzen ditu.

1. maila	2. maila	3. maila
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbaki errazak irakurri eta idazten ditu (hiru zifritako zerbakiak, zeroak dituzten unitateak...).</li> <li>• Zerbakiak zuzenean duten adierazpenaren arabera zerbaki arruntak alderatzen eta ordenatzen ditu.</li> <li>• Zerbaki errazak osatzen, deskomposatzen eta birbiltzen ditu gertueneko hamarrekora, ehunekora, miiakora... arte.</li> <li>• Oinarritzko zatikiak irakurtzen eta idazten ditu.</li> <li>• Serie numeriko errazak osatzen eta identifikatzen ditu (bikoitiak, bakoitiak, 5eko seriea, 10ekoa, 25ekoa, 50ekoa, 100ekoa...).</li> <li>• Hainbat testu numerikotan (prezioak dituzten liburuxkak, publikizitate liburuxkak, albisteak...) agertzen diren zerbaki arrunten eta zatiki errazen balioa interpretatzen, alderatzen eta aztertzen du.</li> <li>• Ahoz eta idatziz igorritako informazioak eta mezu numerikoak ulertzen, interpretatzen, ekoizten eta jakinarazten ditu.</li> <li>• Asmakizun eta jolas numeriko txikiak egin eta ebatzen ditu, baita arrazonomendu numerikoko problemak ere, erantzuna justifikatuz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sei zifra arteko zerbakiak irakurri eta idazten ditu, eta zailtasun handieagoarekin, erdian zeroa dutenak.</li> <li>• Zerbakiak zuzenean duten adierazpenaren arabera sei zifra arteko zerbakiak alderatzen eta ordenatzen ditu.</li> <li>• Zerbaki errazak osatzen, deskomposatzen eta birbiltzen ditu gertueneko hamarrekora, ehunekora, miiakora... arte.</li> <li>• Oinarritzko zatikiak irakurtzen eta idazten ditu.</li> <li>• Serie numeriko errazak osatzen eta identifikatzen ditu (bikoitiak, bakoitiak, 5eko seriea, 10ekoa, 25ekoa, 50ekoa, 100ekoa...).</li> <li>• Hainbat testu numerikotan (prezioak dituzten liburuxkak, publikizitate liburuxkak, albisteak...) agertzen diren zerbaki arrunten eta zatiki errazen balioa interpretatzen du.</li> <li>• Ahoz eta idatziz igorritako informazioak eta mezu numerikoak ulertzen eta interpretatzen ditu.</li> <li>• Ahoz eta idatziz igorritako mezu numeriko errazak ulertzen ditu.</li> <li>• Asmakizun eta jolas numeriko txikiak egin eta ebatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbakiak irakurtzen eta idazten ditu, zifra bakoitzaren kokapenaren balioa interpretatuz.</li> <li>• Zerbakiak kokapenaren balioaren eta zerbakiak zuzenean duten adierazpenaren arabera alderatzen eta ordenatzen ditu, aurrekoaren eta ondorengoaren loturak ezariz.</li> <li>• Emanadako zerbakiak konposatzen, deskomposatzen eta birbiltzen ditu gertueneko hamarrekora, ehunekora, miiakora... arte.</li> <li>• Zerbakiak zuzenean oinarritzko zatikiak irakurtzen, idazten, alderatzen eta ordenatzen ditu.</li> <li>• Serie numeriko errazak bere irizpideekin identifikatzen, osatzen eta erakitzen ditu.</li> <li>• Hainbat testu numerikotan (prezioak dituzten erakusleihoak, publikizitate liburuxkak, albisteak...) agertzen diren zerbaki arrunten eta zatiki errazen balioa interpretatzen, alderatzen eta aztertzen du.</li> <li>• Ahoz eta idatziz igorritako informazioak eta mezu numerikoak ulertzen, interpretatzen, ekoizten eta jakinarazten ditu.</li> <li>• Asmakizun eta jolas numeriko txikiak egin eta ebatzen ditu, baita arrazonomendu numerikoko problemak ere, erantzuna justifikatuz.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbaki errazak irakurri eta idazten ditu (hiru zifritako zerbakiak, zeroak dituzten unitateak...).</li> <li>• Zerbakiak zuzenean duten adierazpenaren arabera zerbaki arruntak alderatzen eta ordenatzen ditu.</li> <li>• Zerbaki errazak osatzen, deskomposatzen eta birbiltzen ditu gertueneko hamarrekora, ehunekora, miiakora... arte.</li> <li>• Oinarritzko zatikiak irakurtzen eta idazten ditu.</li> <li>• Serie numeriko errazak osatzen eta identifikatzen ditu (bikoitiak, bakoitiak, 5eko seriea, 10ekoa, 25ekoa, 50ekoa, 100ekoa...).</li> <li>• Hainbat testu numerikotan (prezioak dituzten liburuxkak, publikizitate liburuxkak, albisteak...) agertzen diren zerbaki arrunten eta zatiki errazen balioa interpretatzen, alderatzen eta aztertzen du.</li> <li>• Ahoz eta idatziz igorritako informazioak eta mezu numerikoak ulertzen eta interpretatzen ditu.</li> <li>• Ahoz eta idatziz igorritako mezu numeriko errazak ulertzen ditu.</li> <li>• Asmakizun eta jolas numeriko txikiak egin eta ebatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Edozein zerbaki mota identifikatzen, irakurtzen eta idazten du.</li> <li>• Zerbaki mota desberdinak adierazteko sinboloak ezagutzen ditu.</li> <li>• Zerbakiak beren artean alderatzen, eta zerbakiak zuzenean ordenatzen ditu.</li> <li>• Edozein komunikabidetako zerbaki motako mezuak ulertzen eta interpretatzen ditu.</li> <li>• Hainbat testuingurutan ikus ditzakegun izaera numerikoko informazioak jakinarazten ditu, eta arrietak egiteko erabiltzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Edozein zerbaki mota identifikatzen, irakurtzen eta idazten du.</li> <li>• Zerbaki mota desberdinak adierazteko sinboloak ezagutzen ditu.</li> <li>• Zerbakiak beren artean alderatzen, eta zerbakiak zuzenean ordenatzen ditu.</li> <li>• Edozein komunikabidetako zerbaki motako mezuak ulertzen eta interpretatzen ditu.</li> <li>• Hainbat testuingurutan ikus ditzakegun izaera numerikoko informazioak jakinarazten ditu, eta arrietak egiteko erabiltzen ditu.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbaki errazak irakurri eta idazten ditu (hiru zifritako zerbakiak, zeroak dituzten unitateak...).</li> <li>• Zerbakiak zuzenean duten adierazpenaren arabera zerbaki arruntak alderatzen eta ordenatzen ditu.</li> <li>• Zerbaki errazak osatzen, deskomposatzen eta birbiltzen ditu gertueneko hamarrekora, ehunekora, miiakora... arte.</li> <li>• Oinarritzko zatikiak irakurtzen eta idazten ditu.</li> <li>• Serie numeriko errazak osatzen eta identifikatzen ditu (bikoitiak, bakoitiak, 5eko seriea, 10ekoa, 25ekoa, 50ekoa, 100ekoa...).</li> <li>• Hainbat testu numerikotan (prezioak dituzten liburuxkak, publikizitate liburuxkak, albisteak...) agertzen diren zerbaki arrunten eta zatiki errazen balioa interpretatzen, alderatzen eta aztertzen du.</li> <li>• Ahoz eta idatziz igorritako informazioak eta mezu numerikoak ulertzen eta interpretatzen ditu.</li> <li>• Ahoz eta idatziz igorritako mezu numeriko errazak ulertzen ditu.</li> <li>• Asmakizun eta jolas numeriko txikiak egin eta ebatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Edozein zerbaki mota identifikatzen, irakurtzen eta idazten du.</li> <li>• Zerbaki mota desberdinak adierazteko sinboloak ezagutzen ditu.</li> <li>• Zerbakiak beren artean alderatzen, eta zerbakiak zuzenean ordenatzen ditu.</li> <li>• Edozein komunikabidetako zerbaki motako mezuak ulertzen eta interpretatzen ditu.</li> <li>• Hainbat testuingurutan ikus ditzakegun izaera numerikoko informazioak jakinarazten ditu, eta arrietak egiteko erabiltzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Edozein zerbaki mota identifikatzen, irakurtzen eta idazten du.</li> <li>• Zerbaki mota desberdinak adierazteko sinboloak ezagutzen ditu.</li> <li>• Zerbakiak beren artean alderatzen, eta zerbakiak zuzenean ordenatzen ditu.</li> <li>• Edozein komunikabidetako zerbaki motako mezuak ulertzen eta interpretatzen ditu.</li> <li>• Hainbat testuingurutan ikus ditzakegun izaera numerikoko informazioak jakinarazten ditu, eta arrietak egiteko erabiltzen ditu.</li> </ul>

Aurreko adibideetan argi ikus daiteke ikasleek aurre egin beharreko zereginen konplexutasunaren eta maila bakoitzeko proposatutako ebaluazio adierazleetako aldean eta zehaztasunen artean dagoen mailaketa.

## II.5. NOLA GRADUATU DIRA KONPETENTZIAK?

Hiru lorpen mailatan mailaketa egitea komenigarritzat jo dugu. Gaur egun, hiru maila horiek laneko hipotesizat eta errendimenduko probak lantzeko taldeetarako laguntza tresnatzat soilik hartzen dira. Maila horien baliozkotasuna proba pilotuaren eta proba bakoitzaren behin betiko aplikazioaren emaitzak aztertu ostean egiaztatu beharko da.

Konpetentzia bakoitzean irizpide orokorrak txertatu dira konpetentziaren garapen mailak ezartzeko. *Hizkuntza komunikazioan*, esate baterako, hauek dira:

- Emandako zereginaren lorpen maila.
- Zereginaren konplexutasuna.
- Alor desberdinak erlazionatzeko konpetentzia (ideiak, egitura...).
- Zeregina egitean agertutako autonomia maila.
- Hizkuntza zuzentasunaren maila.
- Esplizitua ez dena ondorioztatzeko eta interpretatzeko konpetentzia.
- Zeregina egiteko hizkuntza ezagutzen erabilpena.

*Matematikarako konpetentzian*, hiru sakontasun mailatako bakoitza bereizteko irizpide orokorrak honela zehaztu dira:

- ➔ *Lehen mailan* kokatuko lirateke prozedura algoritmiko estandarrak erabiltzen dituzten ikasleak, ariketa errazak egin eta ebazten dituztenak, eta oro har, erreproduzio teknikak izenekoak erabiltzen dituzte, baina kasurik gehienetan, aplikatzeko arazoak eta exekuzioan akatsak izaten dituzte.
- ➔ *Bigarren mailan*, matematikarako hizkuntza egokia erabiltzen duten ikasleak matematikarako gai desberdinak konektatzeko gai dira; gainera, ariketa klasikoak segurtasunez ebazten dituzte eta problemak nolabaiteko konplexutasunez ebazteko gai dira; oro har, lanak egiterakoan segurtasun handia dute.
- ➔ *Azkenik, Hirugarren mailan*, matematikaren alor desberdinak lotzeaz gain, landutako arrazonamenduak erabiltzen dituzten ikasleak kokatuko lirateke; gogoeta egiten dute eta logikarekin argumentatzen dute; gainera, jatorrizko problema berriak ebazteko gai dira eta oro har erraztasun eta segurtasun handi samarra izaten dute matematikarako egoerak landu eta ebazteko.

Irizpide orokor horietatik abiatuta, konpetentziaren dimentsio bakoitzean zehaztutako azpikonpetentzia bakoitzean, errendimendu proben itemak egiteko erreferentzia gisa balio izateko hiru zailtasun maila zehaztu dira.

## II.6. ZER LOTURA DAGO KONPETENTZIEN ETA CURRICULUMAREN ARTEAN?

Adierazi dugun moduan, konpetentzia bakoitza osatzen duten elementuak deskribatzeko, Oinarrizko Irakaskuntzen Dekretuak egin duen deskribapenetik abiatuko gara, eta ELGak eta IEAk oinarrizko konpetentzien nazioarteko azterketetan, eta *Hizkuntzak ikasteko Europako Erreferentzi Marko komunak* erabakitako irizpideak hartu dira kontuan.

Oinarrizko konpetentziak ezin dira gutxieneko edukiekin identifikatu; hau da, hezkuntza sistema bateko ikasleei bermatu behar dieten beharrezko irakaskuntzekin. Gutxieneko eduki horiek arloetako curriculumean adierazten dira, beste elementu garrantzitsu batzuekin batera (helburuak, ebaluazio irizpideak, orientazioak eta abar). Beraz, oinarrizko konpetentziak ez dira gutxieneko konpetentziak, baina egungo gizartean bizi eta elkarbizi ahal izateko eta ikasten jarraitu ahal izateko beharrezkotzat jotzen direnak dira.

Eskola ikaskuntzak “konpetentzia” terminoetan zehaztea, ikasleak mobilizatu behar dituen eduki eta ezagutza mota desberdinen identifikazioa albo batera utziz, engainagarria da; gainera, konpetentziaren kontzeptuarekin kontraesan-korra da. Konpetentzia bat eskuratzea jakituria jakin batzuk lortzearekin dago zuzenean lotuta. Konpetentzia bat lortu edo garatu ahal izateko, horrekin lotutako ezagutza jakin batzuez jabetu behar da, eta gainera, horiek mobilizatzen eta aplikatzen jakin behar da.

Arlo jakin batzuen irakaskuntzaren eta konpetentzia batzuen garapenaren artean ez dago alde bakarreko loturarik. Arau gisa, arlo bakoitzak konpetentzia desberdinen garapenean laguntzen du, eta era berean, oinarrizko konpetentzia bakoitza hainbat arlotan egindako lanaren ondorio gisa lortzen da.

Irakaskuntza eta ikaskuntza —curriculum ikasketa eta oinarrizko konpetentziekin lotutakoa— ulertzeko bi modu horien artean aldea egon arren, bistakoa da bi ikusmolde horien artean lotura nabarmena dagoela. Hurrengo tauletan lotu nahi izan ditugu eta oinarrizko konpetentzia bakoitzak Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako arloetako curriculumean duen lotura handia edo txikia erakusten da.

Ikuspegi horrek argi nabarmentzen du konpetentzien zeharkako izaera, eta curriculumeko konpetentziak ebaluatzeko hurbilketa egokia egiteko orientazio interesgarriak eskaintzen ditu; erreferentzien testuingurua desberdina den neurrian, ardatz nagusi gisa konpetentziaren ideia indartzen du, eta konpetentzia modu mugatuan ezagutzazko arlo bakar batekin edo gutxi batzuekin lotzeko desegokitasuna tinko azpimarratzen du.

Gainera, orientazio bezala, probaren zati bakoitza osatu beharko luketen galderak iradoki behar dira konpetentzia bakoitzaren dimentsioak ezarritako proportzioan adieraz daitezela.

<sup>5</sup> Proposamena adibide gisa soilik hartu behar da, konpetentzien eta curriculum arloen arteko loturaren gainean egin daitekeen irakurketa posible gisa, eta inola ere ez behin betiko loturaren eredu moduan.

## Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Arloak, 2. maila

	ZK	Euskara	Gaztelania	Matem.	Natura Zientziak	Atzerriko Hizkuntza	Gizarte Zient. Geografia eta Historia	Gorputz hezkuntza	Hezkuntza plastikoa eta bisuala	Musika	Tecnología	Giza Eskub. eta Herritar. hezkuntza
Oinarrizko kompetentziak	1	★★★	★★★	★	★★	★★★	★★	★	★★	★	★	★★
	2	▽	▽	★★★	★★	▽	★	★	★	★	★★	▽
	3	★★	★★	★★	★★★	★	★★	★★	▽	▽	★★	★
	4	★★	★★	★★	★★	★★	★★	▽	★	★	★★	★★
	5	★★	★★	★	★★	★	★★★	▽	★	★	★	★★★
	6	★★	★★	▽	▽	★	★★★	▽	★★★	★★★	★	★
	7	★★★	★★★	★★	★★★	★★	★★	★	★	★	★★	★
	8	★★	★★	★★	★★	★★	★★	★★	★★	★★	★★	★★

## Lehen Hezkuntzako Arloak, 4. maila

	ZK	Euskara	Gaztelania	Matematika	Atzerriko Hizkuntza	Inguruaren ezaguera	Gorputz hezkuntza	Arte hezkuntza	Herritartasun. hezkuntza
Oinarrizko kompetentziak	1	★★★	★★★	★	★★★	★★	★	★★	★★
	2	▽	▽	★★★	▽	★★	★	★	▽
	3	★★	★★	★★	★	★★★	★★	▽	★
	4	★★	★★	★★	★★	★★	▽	★	★★
	5	★★	★★	★	★	★★★	▽	★	★★★
	6	★★	★★	▽	★	★★	▽	★★★	★
	7	★★★	★★★	★★	★★	★★	★	★	★
	8	★★	★★	★★	★★	★★	★★	★★	★★

Sinboloen interpretazioa:

- ★★★ Oinarrizko kompetentzia batek arlo bateko curriculumarekin duen oso lotura estua edo presentzia handia.
- ★★ Dimentsio batek edo hainbat dimentsio arlo bateko curriculumarekin duen lotura edo presentzia handia.
- ★ Oinarrizko kompetentzia baten gai garrantzitsu batek arlo batekin duen lotura edota presentzia puntuala.
- ▽ Oinarrizko kompetentzia batek arlo batean duen loturaren edo presentzia eskasa edo hutsalaren lotura.

1: Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia. 2: Matematikarako kompetentzia. 3: Zientzia-, teknologia- eta osasun- /kulturarako kompetentzia. 4: Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko kompetentzia. 5: Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia. 6: Giza- eta arte-kulturarako kompetentzia. 7: Ikasten ikasteko kompetentzia. 8: Autonomia eta ekimen pertsonala.

Bestalde, arloez gain, ikastetxeetan badaude beste faktore batzuk ere ikasleek, gehiago edo gutxiago, oinarrizko kompetentziak lor ditzaten laguntzen dutenak; beraz, faktore horiek ere aintzat hartu beharko lirake. Esate baterako, tutorretaz ari gara; bertan, autonomia eta ekimen pertsonalarekin, hizkuntza komunikazioarekin zuzenean lotutako alorrak lantzen dira, baita ikasten ikasi kompetentziaren, eta gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren alor jakin batzuk ere.

Ildo horretan, txerta daitezke eskolaz kanpoko jarduerak ere, proiektu zehatzak egitea (diziplina artekoak edo ez, beti curriculum arlo batekin lotuta ez daudenak), ikastetxeko antolaketaren alorrak eta abar.

Hala eta guztiz ere, hautazkoak materiak eta aukerako jakintzagaiak, oro har, arlo zehatz batekin lotuta egon ohi dira; beraz, aurreko tauletatik abiatuta, oinarrizko kompetentziekin duten loturan eragina izan dezakete. Materia hauetan lotura hori indartu edo ahuldu egin daiteke, bertan lantzen diren helburu eta eduki zehatzen arabera.

### III. EAE-n diagnostiko ebaluazioaren aplikazio eredua



Proposatzen den diagnostiko ebaluazioa prozesu berria da orokortasunari eta egiteko derrigortasunari dagokionez, baina errealitatean, zenbait ikastetxek denbora luzea darama modu batera edo bestera ebaluazio mota horiek egiten:

- Zikloaren edo ikasturtearen hasierako ebaluazioa ohiko moduan barneratuta duten ikastetxeak; beren parte hartzeak egokitzeko informazioa biltzen dute horrekin.
- Beste batzuek kanpo ebaluazioak egiten dituzte antzeko ezaugarriak dituzten beste ikastetxeekin; beraz, hobekuntza planak egite aldera, barne datuak edukitzeko eta alderaketak egiteko konpetentzia dute.

Hala eta guztiz ere, oro har, diagnostikoa egiteko izaerarekin, ikastetxeek egiten dituzten ebaluazioak curriculum alorretan oinarritzen dira eta ia inoiz ere ez oinarritzko konpetentzien ikuspegitik.

Esan berri dugun moduan, diagnostiko ebaluazioak ikasleek oinarritzko konpetentzietan lortutako garapenaren maila egjatzatzea du helburu; horretarako, ikastetxeei, formazio izaerarekin, irakaskuntzaren plangintzarekin eta hezkuntza prozesua hobetzearekin lotutako erabakiak hartu ahal izateko informazioa eskainiko die.

Kontuan izan behar da diagnostiko ebaluazioak, batetik, ikastetxe bakoitzeko curriculum zehaztapen desberdinetan zehatz landutako edukiek guztiz baldintzatu gabeko oinarritzko alorren ikaskuntzari egiten diola erreferentzia; eta bestetik, ikastetxeei lortutako errendimenduaren gaineko informazio osagarria eman nahi die ikastetxeei. Horretarako, testuinguru zehatz bakoitzaren bereizgarriak diren hainbat faktore eta aldagai sozio-ekonomiko, kultural eta didaktiko izango dituzte kontuan; gainera, informazio garrantzitsua eskainiko die familiei.

Aurreko kapituluetan garatu diren helburuetatik, ezaugarrietatik eta printzipioetatik abiatuta, dokumentuaren atal honetan, diagnostiko ebaluazio ereduaren parte diren alor guztien ezaugarri teknikoak deskribatzen dira:

1. EAEn diagnostiko ebaluazio ereduaren ezaugarriak.
  - Ebaluazio ereduaren justifikazioa.
  - Antolaketa diseinua.
  - Konpetentziak aplikatzeko egutegia eta data.
  - Aplikazio hizkuntza.
  - Ebaluazioan parte hartuko duten ikasleak.
2. Ebaluazioaren tresnak: errendimenduko proben eta testuinguruko galdesorteen ezaugarriak.
  - Probak eta galdesortak egitea.
  - Proben luzera eta iraupena.
  - Ezaugarri formalak (euskarriak).
  - Itemen formatua.
  - Hizkuntza ezaugarriak eta itzulpen prozesua.
3. Aplikazio prozesua: ezaugarriak eta baliabideak.
  - Aplikazioaren ezaugarriak: iraupena, antolaketa...
  - Giza baliabideak eta baliabide teknikoak.

4. Digitalizazioa, probak zuzentzea eta datuen analisia.
  - Digitalizazio eta zuzenketa prozedura.
  - Giza baliabideak eta baliabide teknikoak.
  - Estatistika azterketa.
5. Ebaluazio txostenak.
  - Ebaluazio honetako emaitzen erabilpena.
  - Txostenen tipologia.
  - Emaitzen aurkezpena: prozedurak, arduradunak, baliabideak...

## III.1. DIAGNOSTIKOA EGITEKO EBALUAZIO EREDUAREN EZAUGARRIAK

### III.1.1. EREDUAREN JUSTIFIKAZIOA

LOEn eta Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko irakaskuntzen dekretuan aintzat hartutako diagnostiko ebaluazioek barne izaera dute eta ikastetxeek egin behar dituzte; horretarako, hezkuntza administrazioek eskaintzen dizkien babesak eta ereduak dituzte

Beste komunitate autonomo batzuek diagnostiko ebaluazioa egitea aukeratu dute, eta alor nagusietan eta modu zehatzean, proben aplikazioa eta zuzenketa ikastetxeen esku geratzen da. Aplikazio eta zuzenketa hori irizpide eta prozedura komunei jarraituz egiten da eta proba guztiak hezkuntza administrazioak prestatzen ditu. Komunitate mailan emaitzak lortzeko, kasu gehienetan, ikastetxeen lagin bat aukeratzen da eta ikastetxeko langileek aplikazioa modu kontrolatuan egiten dute.

Zalantzarik gabe, diagnostiko ebaluazioaren eredu honek ezaugarri interesgarriak erakusten ditu eta ezaugarri horiek batez ere adierazten dute ikastetxea dela ebaluazioaren azken arduraduna; beraz, administrazioaren esku-hartze eta kontrol sentipena mugatzen da, eta gainera, ekonomia eta antolaketa mailako abantaila handiak ditu. Hala eta guztiz ere, gure ustez, honen moduko ereduak sortzen dituen ondorioek ebaluazioko alor garrantzitsuei eragiten diete; horien artean, hauek nabarmendu daitezke:

- Ikastetxeek ez dute aplikazio bakoitzean alderagarria den kanpo erreferentziarik; izan ere, laginaren datuak baino ez dituzte; beraz, ezingo dituzte emaitzak alderatu eta baloratu, aplikazioak eta zuzenketak ez baitira estandar komunei jarraituz gauzatzen.
- Ikastetxeek beren konfidentzialtasuna bermatzeko Sailak proposatutako probak aplikatzen badituzte inolako kanpo kontrolik gabe, aplikazio bakoitzean probak erretzen dira eta ikasturte bakoitzean berriak egin behar dira.
- Elementu komunik gabe oso zaila da zailtasun maila antzekoak dituzten probak egitea; hau da, urtero proba osorik erretzen denez, hutsean geratzen diren ainguraketa itemak behar dira. Hori dela eta, urteetan zehar ezin dira luzetarako alderaketak egin, eta emaitzen hobekuntza ezin da proba desberdinekin neurtu; ondorioz, ebaluazioaren azken helburua eragozten da.
- Datuen fidagarritasunaren gaineko zalantzak sartzen dira, horietatik baliabideen banaketa sortzen baldin bada.
- Luzetarako alderagarriak diren daturik izan ezean, eta aplikazio bakoitzeko datuak oso baliagarriak izan ezean, barne ebaluazio ereduak pertsuasio ahalegin handia eskatzen du ikastetxeei erabilgarritasunaren gainean konbentzitzeko, eta ikasleen kasuan zailtasuna are handiagoa da.

Arrazoi horiek guztiek, beste batzuen artean, diagnostiko ebaluazio eredu desberdin baten alde egitea bultzatzen dute, dokumentu honen I. kapituluan zehaztutako helburu eta ezaugarriei modu osatuagoan erantzuneko diena.

EAEEn diagnostiko ebaluazio ereduaren gaineko erabakia hartzeko, alde zuzenetik bi galderari erantzun behar zaie:



- Ikastetxe guztietako emaitzen luzetarako alderaketak lortu nahi al dira?
- Ikasle bakoitzaren emaitzak lortu nahi al dira?

Aurreko galderei emandako erantzuna bi kasuetan baiezkoa baldin bada, kanpoan kontrolatutako ebaluazio baten alde ari gara egiten. Ikastetxea baino altuagoak diren analisi unitatetan ikastetxeek egiten dituzten ebaluazioen emaitzen eransketak esanahia du ikastetxe desberdinetan ebaluazioa egiteko garaian planteamendu komuna dagoen bitartean, eta alde horretatik, garatu beharreko ebaluazioen zuzeneko kontrolaren bidez baino ezin dira bermatu planteamendu komun horiek.

Banakako emaitzak lortzeko helburuak zenbait muga dituen arren, oinarrizkoak dira ikasleen motibazioa eragin eta mantentzeko, eta familiei eta irakasleei informazio erabilgarria bermatzeko. Banakako datuak dituzten errolda ebaluazioek zenbait abantaila dituzte:

- Arazoak egonez gero, arazo horiek aurkitzea ahalbidetzen dute eta batez ere, banakako eta taldeko erantzunak eta laguntzak pertsonalizatzea ahalbidetzen dute.
- Baliabide banaketa zehatza ahalbidetzen dute, eta hobekuntza helburu zehatzak eta ebidentzietan oinarritutako politikak ezartzeko datu baliagarriak eskaintzen ditu.


Emaitzen baliozkotasuna bermatzeko, probak baldintza berberetan egin behar dira talde eta ikastetxe guztietan. Esate baterako, ikasle guztiei argibide berberak irakurri behar zaizkie, edo besteak beste, antzeko iraupena eta baldintzak bermatu behar zaizkie.

Ildo horretatik, kontuan izan behar da egun ebaluazio fidagarriak eta alderagarriak honelakoa izan behar duela:

- **Estandarizaturia** aplikazioan, eta zuzenketa aukera berdintasunarekin; hau da, berdina guztientzat, eta baldintza eta egoera berberetan.
- **Kanpokoa:** Ikastetxeekin loturarik ez duten aplikatzaileek eginda, ondo prestatuta, eta irizpideetan eta aplikazio arauetan entrenatuta egoteaz gain, aplikazioaren kalitatea eta homogeneotasuna bermatzeko kontrolatuta. Era berean, probak horretarako prestatutako eta kontrolatutako zuzentzaileek zuzendu behar dituzte.
- **Konfidentzialtasuna:** Ikastetxeen arteko eta urtez urteko alderaketa bermatzeko, eta aplikazio baldintzei dagokienez ikastetxe guztien berdintasuna ere bermatzeko, ikastetxeek aldeztatik ez dutela proba horien berri izan bermatu behar da. Ikastetxe bakoitzeko irakasleek funtsezko zeregina dute aplikatzaileari ikasleen antolaketan eta diziplinan lagunduz, baina ez dute probetarako sarbiderik izango.
- **Teknikoki aurreratua;** bertan, zorrotz baliozkotutako kalitate itemak erabiltzen dira, proben arteko baliokidetasunaren inguruko bermekin, emaitzak TRI eskaletan eta ikasleen lorpen mailen adierazpena...

Esan beharrean gaude diagnostiko ebaluazioak ez duela irakasleen edo ikastetxeen ebaluazioa ordezkatzeko; alderantziz, osatu egiten du. Datu objektiboak, baliozkoak, fidagarriak eta alderagarriagoak izatea ahalbidetzen zaien ikastetxetarako informazio osagarria da, ikasle bakoitzaren egoera, eta taldeek eta ikastetxeek norberarenak baino testuinguruko erreferente zabalagoekin lotuta duten egoera ezagutzeko. Aurreko planteamendu eta irizpide guztiak aintzat hartuz, proposatzen den diagnostiko ebaluazio eredu adierazten da grafiko honetan:

### Diagnostiko ebaluazio eredu zehazteko, erabakiak hartzeko prozesua



Aurreko ezaugarriak kontuan hartuta, legeak berak ebaluazio honetarako adierazten duen formazio eta orientazio izaera honela zehaztu behar da:

- Ikastetxeei beren ikasleei buruzko emaitza fidagarriak eskaintzea, gainerako ikastetxeekin alderagarriak (ikasturte bakoitzean eta ikasturte batetik bestera), testuinguruko ezaugarri jakin batzuk kontuan izanik: familiako eta ikastetxe maila sozio-ekonomikoa eta kulturala.
- Ikasleen luzetarako alderaketak ahalbidetzea; izan ere, derrigorrezko hezkuntza prozesuaren bi unetan ebaluatuko dira guztiak, eta horri esker, izan dezaketen hobekuntza, beren aurrerapenak edo eskolatze prozesuan zehar izandako gelditzea ahalbidetuko da.
- Ikastetxeei eta familiei ikasle edo seme-alaba bakoitzaren kompetentzia mailaren berri ematea, beren arazoak identifikatzea ahalbidetzeko eta soluzio indibidualak martxan jartzea errazteko helburuarekin.

### III.1.2. DIAGNOSTIKO EBALUAZIOAREN ANTOLAKETA DISEINUA

Adierazi dugun moduan, diagnostiko ebaluazioa hezkuntza ikastetxeek onartu eta gauzatu beharreko ekintza da, beren ikasleek oinarriko kompetentzien garatze maila ezagutzeko, beren lorpenen inguruan gogoeta egiteko eta hobekuntza erabakiak hartzeko helburuarekin. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, eta gizarteak oro har, hezkuntza sistemen egoeraren gaineko erradiografia, aldian behin eguneratuta, lortzeko aukera osatzen du.

EAEn diagnostiko ebaluazioaren eredu gisa hartu den aukerak proba homologatuak erabiltzea dakar berekin; horren bidez, ebaluazioa ez dute baldintzatuko ez curriculum zehaztapen desberdinetan zehatz landutako edukien elementuek, ez eskola testuinguru bakoitzak gure autonomia erkidegoan oinarri gisa hartzen den curriculum komuna egokitzeko eta garatzeko erabiltzen duen moduak ere.

Hala eta guztiz ere, batzuetan, kanpo ebaluazioek aurrez ikusitako helburuen kontrako efektuak sor ditzakete, eta zenbaitetan, garatzeko aurrez ikusitako asmoak bertan behera uzten dituzte. Hori dela eta, oso garrantzitsua da espero gabeko gertaera horiez jabetzea, baita horien eragina saihestu edo arindu behintzat egingo duten mekanismoak mar-txan jartzea. Hori dela eta, eta gerta daitezkeen arrisku horiek murriztu edo ezabatzeko, ebaluazio honen zentzuan, helburuetan eta ezaugarri zehatzetan ahalegintzea beharrezkoa da:

- a) *Diagnostiko ebaluazioa da, ez azken ebaluazioa*: Ebaluazioaren helburu nagusia, estandarizatutako kanpo eba-luazioak eskaintako datuetatik abiatuta, ikasleen eta ikastetxeen kompetentziak hobetzea da. Ezaugarriak ez daude ikastetxeen praktikak kontrolatzeari edo fiskalizatzeari lotuta; izan ere, ikastetxeek eman beharko diete zentzua eta erabilgarritasuna informazioei.
- b) *Ebaluazioak ez du eta ezin du ikastetxeetan egiten eta lantzen den guztia ebaluatu*: ebaluazio oro errealitatearen argazki partziala da, eta paperean kanpo ebaluazioaren bidez neurtu daitekeena baino askoz ere aberatsagoa da beti. Zalantzarik gabe, ebaluazioak egiazko errealitatea adierazten du eta ikastetxeei aintzat hartu beharreko infor-mazio eta datu zehatzak eta kontrastatuak eskaintzen dizkie; hala ere, testuinguruko ezaugarrietatik abiatuta az-tertu behar dira. Ildo horretatik, emaitzen ordezkagarritasunari egindako kritika posiblea nabarmendu behar da; izan ere, ebaluazioak denbora eskuragarrian posible dena eta probako formatuak ahalbidetzen duena baino ez du eba-luatu. Edonola ere, ikastetxeek, proba bakoitzarekin neurtu nahi diren kompetentzia elementuen berri izango dute.
- c) *Ikasleen motibazioa*: batzuetan, proba mota horiek kritikatzin dira, eta horretarako, ikasleek beren notetan eta ikasturtea edo zikloa gaintzeko inolako eraginik ez duten probetan ahalik eta esfortzu handiena egiteko motiba-ziorik ez dutela izaten aipatzen dute. Ikasle bakoitzaren banakako datuak entregatzean, arazo hori, zenbait kasu-tan erreala, nabarmen murriztuko dela iruditzen zaigu.

Aurrekoarekin batera, gogoratu behar da I.3 atalean adierazitako ebaluazio honen ezaugarriak prozesuan dagoen ikaste-txearekin elkarbanatutako parte hartzearekin, laguntzarekin eta lanarekin zuzenean lotuta daudela, baita ikastetxeetan kul-tura sortu nahi duen eta ikaskuntza prozesuak sustatu nahi dituen ebaluazioa izatearen ideiarekin ere.

Azkenik, gogoan izan behar da ebaluaziorako metodorik egokienak balorazioa ikasleek ezagutza aplikatzea eskatzen duten egoeren aurrean emandako erantzunetatik lortutako informazioan oinarritzen dutenak izan direla. Hala eta guz-tiz ere, hainbat kompetentzien eta zenbait azpikonpetentzien dimentsioaren kasuan, arkatzarekin eta paperarekin, edo euskarri informatikoan egindako probatik desberdinak diren beste prozedura batzuk eskatzen dira ikaslearen lana zabalago baloratu ahal izateko. Baliabide, prozedura eta teknika mota horiek (lanak eta jarduera praktikoak egitea, simulazioak, paper-zorroak egitea, elkarrizketak, autoebaluazioa eta koebaluazioa...) nekez ezar daitezke ikastetxetik kanpoko ebaluazioan.

### ■ Zer diseinuk lagun diezaguke ikastetxeak diagnostiko ebaluazioaren garapena berea balitz bezala egin dezan?

Proposatutako antolaketa eredua (ikus grafikoa 45. orrialdean) bi osagai nagusi dituen eta nahitaez izaera osagarria duen ebaluazioan babesten da:

- **BARRUKO ZATIA**: Ikastetxeak berak borondatez eta modu autonomoan garatzen duen diagnostiko ebaluazioarekin lotutako ekintza multzoa; horretarako, berezko baliabideak erabiliko dituzte (irakasleak, materialak, antolaketa eta abar).
- **KANPOKO ZATIA**: corresikastetxeek garatutako “barneko zatia” osatu eta aberasteko, eta hezkuntza sistemaren emaitza orokorrak lortzeko, Sailak garatuko duen diagnostiko ebaluazio prozesuari dagokio.

Antolaketa eredu honen abantailak:

1. Ikastetxeak berak esanguratsutat jotzen dituen alorrak ebaluatzea ahalbidetzen du, hau da, garrantzitsutat jo dituenak edo bultzatu nahi duen hezkuntza proiektuarekin eta curriculum proiektuarekin zuzenean lotzen direnak.


2. Kanpoko proba klasikoen (paperean eta arkatzarekin, edo ordenagailuan) bidez ebaluatu ezingo liratekeen alorren gaineko informazioa eskaintzen dio diagnostiko ebaluazioari, hau da, formatuarengatik, aplikatzeko eskuragarri dagoen denborarengatik... mugatuta daudenak.
3. Ikastetxeak diagnostiko ebaluazioa onartzea errazten du; izan ere, bere egiten du eta ebaluazio orokorreko eta koherenteko planean sar dezake. Barne ebaluazioa onartu ostean, kanpoko kontrolaren pertzepzioa murriztuko da eta erabilgarritasun sentipena handiagotu egingo da. Hori dela eta, irakasleek tresna horrekiko duten interesa hobetzen lagun dezake; izan ere, garapeneko parte hartzea hartzen du aintzat: erabakiak hartzen direnetik tresnak aplikatu arte; sortutako informazioarekin jabetzea eta ondorengo gogoeta prozesuan parte hartzea ahalbidetzen die, baita hobetzeko erabakiak hartzea ere. Laburbilduta, ebaluazioak eginez, ikastetxeak ikasi egiten du.
4. Ikastetxeak familiei informazio aberatsagoa eman ahal izango die; izan ere, ikastetxeak berak sortzen duena eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kanpo ebaluazioaren produktu gisa eskainiko diona izango ditu esku artean. Batzuetan, kanpo ebaluazioko emaitzek ikastetxeetakoekin bat egingo dute; besteetan, baxuagoak izango dira, eta besteetan, altuagoak. Ezaugarrien arabera, desadostasun horrek gogoetara eraman behar gaitu, baina kasu guztietan ohiko gauzatat hartu behar da; izan ere, beste une batzuetan adierazi den moduan, ikastetxeek beste irizpide batzuk eta batez ere ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz ebaluatzen dute.

### ■ Nola garatu eroldaren diagnostiko ebaluazioaren barneko zatia?

Antolaketa eredu honekin, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztutako diagnostikoa egiteko, ikastetxeek ez dituzte kanpo probak soilik erabiliko, baizik eta beste teknika edo tresnekin osatuko dira; izan ere, irakasleak ikasleari diagnostikoa egiteko teknika batzuk komenigarritzat joko ditu; horrez gain, une horretatik aurrera garatuko diren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan kokatuko du abiapuntua, eraldaketako eta hobekuntzako ondoz ondoko dinamikan.

Hauek dira une garrantzitsu batzuk:

- Bere autonomia alorraren baitan, ikastetxea arduratuko da barne ebaluazioko ekintzaren oinarrizko kudeaketaz, eta bere ebaluazio proiektua zehazteaz gain, urtero ebaluatzen dituen oinarrizko kompetentziak aukeratuko ditu (zein eta aukeratutako bakoitzaren zein dimentsio) Lehen Hezkuntzako 4. mailarako eta DBHko 2. mailarako.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zerbitzuek kanpo laguntza ematen diote ikastetxeari; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ebaluazioa garatu ahal izateko ereduak eta baliabideak errazten ditu (item ereduak, zuzenketa irizpideak, antolaketa proposamenak, familiarentzako txosten ereduak eta abar).
- Ikastetxeak bere baliabideak diseinatzen ditu edota Sailak eskainitakoak egokitzen ditu diagnostiko ebaluazio proiektuaren arabera (esate baterako, eskolako erregistroak, behaketako fitxak eta abar); horren bidez, kanpo ebaluazioa iristen ez den alorrak eta kompetentziak ebaluatu ahal izango dira. Laguntza zerbitzuek (berritzeguneak) ere esku-hartuko dute eta prestakuntza eta aholkularitza eskainiko dute.
- Ikastetxeak bere probak aplikatu eta zuzentzen ditu, bere txostenak egiten ditu (banakoak eta taldekoak), eta emaitzak hezkuntza komunitateari jakinarazten dizkio.
- Ikastetxeak lortutako emaitzetatik abiatuta egiten du gogoeta, eta ikasle bakoitzari arreta individuala eskaintzeko dagozkion erabakiak hartzen ditu, baita taldeari edo ikastetxeari eragiten dien beste alor orokorren gaineko erabakiak ere (metodologia, antolaketa, baliabideak, irakaskuntzaren prestaketa...). Gogoetako eta erabakiak hartzeko (ikuskaritza eta berritzeguneak) prozesu honetarako, ikastetxeak kanpo aholkularitza izan dezake.



### III.1.3. OINARRIZKO KOMPETENTZIAK APLIKATZEKO DATA ETA EGUTEGIA

#### ■ Oinarrizko zein kompetentzia ebaluatuko da kanpoko diagnostiko ebaluazioetan?

Dokumentu honetako II. kapituluaren ikus daitekeen moduan, diagnostiko ebaluazioen helburua curriculumeko oinarrizko kompetentzien multzoa da. Kompetentzia horiek banakoek beren ezagutzak, trebeziak eta jarrerak errealitatea ulertzeko eta eguneroko bizitzako egoeretan agertzen diren problema praktikoak ebazteko erabiltzeko dituzten ahalmenak dira; beste nolabait esanda, problema bat ebazteko testuinguru jakin batean ezagutzak aplikatzea da.

Laburbilduz, ikasleek gizarte moderno bateko herritar gisa nola jokatu ikas dezaten eskolak nola trebatzen dituen eta bizitzarako zer neurritan prestatzen dituen baloratzea da horren xedea.

Diagnostiko ebaluazioak, oro har, Oinarrizko Ikasketen inguruko 175/2007 Dekretuan zehaztutako oinarrizko zortzi kompetentzia biltzen ditu:

1. Zientziaren, teknologiaren eta osasunaren inguruko kulturarako kompetentzia.
2. Ikasten ikasteko kompetentzia.
3. Matematikarako kompetentzia.
4. Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia.
5. Informazioaren trataerarako eta kompetentzia digitalerako kompetentzia.
6. Kompetentzia soziala eta herritarra.
7. Kultura humanistikorako eta artistikorako kompetentzia.
8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia.

Kompetentzien zerrenda gainbegiratze hutsak nahikoa agerian uzten ditu haien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak. Lehena, hirugarrena, laugarrena, seigarrena eta zazpigarrena koadernotxoan eta arkatzarekin eta paperarekin

egin daitezke. Hala ere, ahozko adierazpenari eta ahozko elkarrekintzari dagozkion trebeziak ebaluatzen, euskaraz zein gaztelaniaz, beharrezkoa da ahozko probaren bidezko ebaluazio formatua eta, hori dela eta, dagokionean, mugatutako laginak biltzen dituen aplikazioarekin edo ikastetxeek aplikatuta egin behar dira. Era berean, *Informazioaren trataerarako eta konpetentzia digitalerako konpetentziaren* ebaluazioa egiteko beharrezkoa da espezifiko den aplikazio formatua erabiltzea dagozkien informatikako tresnak erabiliz. Fidakarritasun maila onargarria baino gehiago eskaintzen duten aurrekariak eta esperientziak badaude eskuragarri konpetentzia horietako batzuk ebaluatzen.

Hala ere, beste zenbait konpetentziek, *Ikasten ikastea* edo *Norberaren autonomia eta ekimena* izenekoek, toki txikiagoa onartzen dute arkatzarekin eta paperarekin, edo euskarri informatikoan egin beharreko proben bidez neurtzeko, gutxienez dimentsio eta azpikonpetentzia guztietan. Gainera, ebaluaziorako tresnen nagusitasuna galdesortetarantz baskulatzea eskatzen dute ikasleen zein irakasleen kasuetan, eta horrek portaeren eta jarreraren erregistroak erabiltzea eragin dezake ikasleek agertzen dituzten konpetentzia horien edo konpetentzia horiei zuzendutako *ariketarekin* eta *disposizioarekin* lotuta.

Hitz gutxitan esanda, uneotan ez da erraza batzuk edo horien zati batzuk ebaluatzea itemei erantzuna emateko ohiko proben bidez denbora mugatuan. Arrazoi hori eta diagnostikorako ebaluazioen eredia pixkanaka-pixkanaka finkatu beharra direla eta, oinarriko konpetentzien gaineko probak pixkanaka-pixkanaka aplikatzea komeni da. Proposamenaren oinarria izaera instrumentalagoa duten konpetentziei lehentasuna ematea eta gainerakoak prozesu ziklikoan txandakatzea da.

Aplikazio bakoitzean ebaluatuko diren oinarriko konpetentziek ondorengo sistema jarraituko dute:

<b>ZATI FINKOA</b>	<p>Maila guztietan ebaluatuko dira konpetentzia hauek:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia euskaraz.</li> <li>• Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia gaztelaniaz.</li> <li>• Matematikarako konpetentzia.</li> </ul>
<b>ZATI ALDAKORRA</b>	<p>Maila bakoitzak, zati finkoaz gain, gainerako bosten arteko konpetentzia baten aplikazioa izango du, hurrenez hurren:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zientziaren, teknologiaren eta osasunaren inguruko kultural konpetentzia.</li> <li>• Ikasten ikaste konpetentzia.</li> <li>• Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia.</li> <li>• Konpetentzia soziala eta herritarra.</li> <li>• Kultura humanistikorako eta artistikorako konpetentzia.</li> <li>• Informazioaren tratamenduan eta konpetentzia digitalean konpetentzia.</li> </ul>

### ■ Zein izango da aplikatzeko egutegia?

Diagnostiko ebaluazioak EAEko ikastetxe guztietan derrigor eta orokorrean aplikatzeko prozesua ebaluazioaren xede diren irakaskuntzak 2008-2009 ikasturtean ezarri ondoren hasiko da.

2007-2008 ikasturtean, oinarriko konpetentziak ebaluatzen adituak diren taldeek itemen multzoak prestatuko dituzte eta jarraian ikastetxe ugarian proben aplikazio pilotua burutuko dute probak aplikatzearen problema espezifikoak eta eskakizunak baloratzeko. Aplikazio pilotu horretan lortutako esperientzia oinarri izango da probak ikastetxe guztietara eta etapa bakoitzari dagozkion mailletako ikasleetara hedatzeko.

Zortzi konpetentziak aplikatzeko egutegia hurrengo taulan agertzen dena da: Hau behin-behineko egutegia da eta aldatu egin ahalko da aplikatzeko hurrenez hurreneko prozesuetan lortzen joango garen ondorioen arabera eta Euskadiko hezkuntza sistemarako zehazten joango diren beharren eta helburuen arabera.

ZATI FINKOA	ZATI ALDAKORRA	
	IKASTURTEA	OINARRIZKO GAITASUNA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia euskaraz.</b></li> <li>• <b>Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia gaztelaniaz.</b></li> <li>• <b>Matematikarako kompetentzia.</b></li> </ul>	2008-09	<i>Zientziaren, teknologiaren eta osasunaren kompetentzia.</i>
	2009-10	<i>Kompetentzia soziala eta herritarra.</i>
	2010-11	<i>Informazioaren trataerarako eta kompetentzia digitalerako kompetentzia.</i>
	2011-12	<i>Ikasten ikasteko kompetentzia.</i>
	2012-13	<i>Kultura humanistikorako eta artistikorako kompetentzia.</i>
	2013-14	<i>Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia.</i>
	2014-15	<i>Zientziaren, teknologiaren eta osasunaren kompetentzia.</i>
	2015-16	<i>Kompetentzia soziala eta herritarra.</i>

Zientziarako, teknologiarako eta osasunerako kompetentziak duen garrantzia eta haren presentzia indartzeko eta hobetzen laguntzeko beharra direla eta, kompetentzia hori ebaluazio xede ez duten mailen kasuan, ikastetxeei, gutxienez, proba osoa biltzen duen eredu bat eskainiko zaie aplikatzeko eta zuzentzeko irizpide eta guzti, irakaskuntza ikastetxeek erabil ahal dezaten.

Era berean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dituen aukeren baitan, antzeko neurria garatu ahal izango da zati aldakorreko gainerako kompetentziatarako.

### ■ **Ikasturtearen zein unetan aplikatuko dituzte kanpoko diagnostiko ebaluazio probak?**

Aplikazioa bideratzeko egokiena den ikasturteko unearen inguruko erabakia hartzeko, irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Ikastetxeek egindako ebaluazio akademikoekin batera ez egiteko moduan gauzatu beharko da probak pila ez daitezen eta ikasleak neka ez daitezen.
- Ez da egin behar ikasturte amaierako ebaluazioekin batera, ebaluazioen eta diagnostiko ebaluazioaren emaitzen arteko kontraesanik edo desadostasunik gerta ez dadin. Gainera, maiatzean edo ekainean egindako ebaluazioa ikasturte baitako amaierako lan soila bakarrik bihur liteke, batez ere batutzailea den esanahiarekin, eta horrek diagnostiko ebaluazioa zehazten duen prestakuntza izaera diluituko luke.
- Nazioarteko eta estatu mailako ebaluazioen aplikazioak egiteko erabili ohi diren datak ekiditea komeni litzateke (gehienetan, maiatzean eta ekainaren hasieran egin ohi dira).
- Kontuan izan nahikoa denbora behar izango dela lehen aldian behintzat aplikazioa burutu ahal izateko ezinbestekoak diren elementu eta baliabide guztiak prestatuta eduki ahal izateko.

Irizpide orokor horiek kontuan izanda, ikasturte bakoitzaren egutegiaren arabera, baldintza horiek betetzeko bi hilabete izango genituzke: martxoa eta apirila. Une bakoitzeko erabakia maila bakoitzak bigarren hiruhileko ebaluazioetarako finkatuta dituen daten eta Aste Santuko oporrak izango diren hilabetearen menpe geratuko da.

IKASTURTEA	APLIKATZEKO HILABETEA
2008-09	Martxoa
2009-10	Apirila-maiatza
2010-11	Martxoa-apirila
2011-12	Martxoa
2012-13	Apirila-maiatza
2013-14	Martxoa-apirila

Litekeena da zenbait pertsonak eta ikastetxek hilabete horiek ikasturte amaieratik urrunegi daudela pentsatzea eta, horrenbestez, konpetentzien garapena ez dutela benetan ebaluatzen uste izatea. Hala ere, gogoan izan behar da arlo horrekin lotutako oinarrizko konpetentzien ebaluazioak garrantzi txikiagoa duela, ez baitu lotura zuenik edukien garapenarekin eta ez baita curriculum proba bat.

Aplikazioa bi astetan gara daiteke (ikus III.3 atala). Hori dela eta, ez da beharrezkoa izango ikastetxe guztietan aplikazioa egun berean edo egun beretan egitea. Edonola ere, ez da komeni etapa bakoitzean bi aste baino gehiago irautea hezkuntza sistema osoa ebaluazio prozesu batean sartuta dagoela hauteman ahal izateko, oro har.

### III.1.4. PROBEN APLIKAZIO HIZKUNTZA

Proben aplikazioan erabili ahal izateko egokiena den hizkuntza zein den aukeratu ahal izateko, hiru elementu hartu behar dira kontuan: ebaluazio honen zentzua eta helburua, ikasleen ikasketako hizkuntza (hizkuntza ereduekin lotura duena) eta ikasleen familiako hizkuntza.

Hiru irizpide horiek aintzat hartuta, ikastetxe bakoitzak aukeratuko du probak aplikatzeko hizkuntza. Prozedura hori ikasle bakoitzaren diagnostikoa lortzera zuzendutako probaren eta hark duen prestakuntza izaeraren arabera da, nolabait hizkuntza proiektuarekin baitu lotura. Hala ere, erabaki horrek duen garrantzia dela eta, arlo hauek kontuan hartzea komeni da:

- Ikastetxeari aurretik jakinarazi beharko zaizkio erabaki horren ondorioak, egoera guztiak kontuan hartuta har dezan bere erabakia.
- Ikasturte bakoitzean, ikastetxeak idatziz jakinarazi beharko du bere erabakia diagnostikoaren ebaluazioa egiteko modu espezifikoan prestatutako zerbitzarian.
- Proba guztietarako komuna den aplikazio hizkuntza erabaki edo ebaluatutako konpetentziaren arabera hizkuntza aldatu ahalko du, hizkuntza ibilbide espezifikoak kontuan izanez.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere gain hartuko du proposamen eta egoera ugarien datu orokorrak entregatzeko konpromisoa aplikazio hizkuntzari dagokionez. Horri esker, ikastetxeek emaitzak alderatu eta hobetu ahal izateko ondorioak adostu ahal izango dituzte.

Galdesortak A ereduan gaztelaniaz aplikatuko dira, B ereduan euskaraz zein gaztelaniaz bete ahalko dituzte, ikastetxe bakoitzak aukeratutako hizkuntzaren arabera, eta D ereduaren kasuan, beti euskaraz izango da.

Garapeneko une bakoitzean aplikazioa egingo duten pertsonak erabiliko dute hizkuntza taula honetan agertzen dena izango da:

Egoerak	A eredia	B eredia	D eredia
<b>Komunikazioa ikasleekin</b>	Gaztelania	Gaztelania edo euskara	Euskara
<b>Arlo bakoitzerako jarraibide orokorrak</b>	Gaztelania	Gaztelania edo euskara	Euskara
<b>Jarraibideen irakurketa. Hizkuntza konpetentzia euskaraz</b>	Gaztelania	Euskara	Euskara
<b>Ikasleen galdesorta</b>	Gaztelania	Euskara/gaztelania	Euskara
<b>Gainerako galdesortak</b>	Euskara/gaztelania	Euskara/gaztelania	Euskara/gaztelania



### III.1.5. PROBA EGIN BEHAR DUTEN IKASLEAK

Funts publikoek mantendutako ikastetxeetan eskolatutako Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako talde guztietako ikasle denek egin beharko dituzte diagnostikoaren ebaluazioa egiteko probak prozesu orokorrean finkatutako baldintzetan eta epeetan.

Errolda izaerarekin Diagnostiko Ebaluazioa ezartzeko prozesuak erronka sortzen dio hezkuntza sistemari: hezkuntza behar desberdinak dituzten ikasleei nola erantzun, sistema horretan parte har dezaten. Kontuan hartu behar da abiapuntu gisa azken urteotan hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak integratzeko plan ugarien garapenak ingurune arruntean hezkuntza arloko egoera oso ezberdinak dituzten ikasleei erantzuna ematea ekarri duela.

Euskadiko hezkuntza sistemaren oinarri diren ekitate eta txertatze printzipioen arabera, ikasle guztiek lortu behar dituzte curriculumeko helburuak. Hori dela eta, honen moduko ebaluazio estandarizatuan, ikasle guztiak ebaluatze-ko tresna erabili beharra dago, zenbait eskolatan ikasketako arazoak dituzten ikasleak daudela kontuan izan gabe hasiera batean. Gizarteak ikasle guztiek lortutako maila zein den jakin behar du ikasketako lorpenen inguruko eta beren maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren arloko bereiztasunik egin gabe. Errendimendu mailen edo maila sozioekonomikoen araberrako proba bereziak egiten ez diren moduan (hori ekitatearen aurkakoa da eta ikasle batzuek esperotakoa gutxiago izatea ekartzen du), ezin daitezke proba ezberdinak egin beste edozein egoera dela eta, baina egokitze batzuk egin daitezke beranduxeago aipatuko dugu moduan. Lortu nahi duguna denerako kalitatea eta berdintasuna da, eta horretarako ezinbestekoa da tresna bera erabiltzea.

#### *Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak*

Lau motatan sailka ditzakegu sor daitezkeen beharrak:

1. Curriculumerako sarrera beharra duten ikasleak (ikusmeneko, entzumenerako, mugimena arloko... urritasunak).
2. Arlo horretako curriculum egokitzapen garrantzitsuak (CEI-ACI) dituzten ikasleak.
3. Ikasgela arruntean eskolatutako CEI orokor garrantzitsuak dituzten ikasleak.
4. Ikasgela egonkorrean eskolatutako CEI orokor garrantzitsuak dituzten ikasleak.

Behar horietarako, hezkuntza sistemak beharrezko baliabideak eskaini behar ditu ikasle horiei Diagnostiko Ebaluaziora sartzeko eskubidea emateko ikasleek curriculumera oro har sartu ahal izateko dituzten baldintzak betez.

Lau tipologia horiek aintzat hartuta, estali beharreko behar hauek hartu behar ditugun kontuan:

#### *1. Curriculumera sartzeko egokitzapenak dituzten ikasleak.*

Ikasle horiek Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan tipifikatutako proba beretan parte hartuko dute ebaluazio horietara sarbidea izateko dagozkien egokitzapenekin.

- *Ikusteko urritasuna duten ikasleak*; ikusmen mailaren arabera (ikusmen baxua edo itsutasuna), hauek behar izan daitezke:
  - Ebaluaziorako koadernotxoak Braille hizkuntzara itzultzea.
  - Letraren neurria handitu ahal izateko ordenagailua erabiltzea.
- *Entzumen urritasuna duten ikasleak (gorreria edo hipoakusia)*; erabiltzen duten komunikazio sistemaren arabera, hau behar izan dezakete:
  - Zeinu hizkuntzako interpretea.

- **Mugimendu urritasuna duten ikasleak;** eragina jasan duten mugimendu funtzioen arabera:
  - Ordenagailua edo beste baliabide tekniko bat erabiltzea erantzunak euskarri gisa exekutatzeko, pertsona bakoitzaren beharren arabera.

## 2. *Arlo horretako Curriculum Egokitzapen Indibiduala (CEI) garrantzitsuak dituzten ikasleak.*

Ikasle horiek beren mailari dagokion tipifikatutako proba egin ahalko dute ikasgelako gainerako ikasleen baldintza beretan, aldi berean sarrerako CEIren bat dutenean izan ezik. Hala ere, beharrezkoa izango da CEI gertatzen den arloaren ebaluazioa bereiztea eta familiei txostena bidaliko litzazieke, baina kompetentzi horren inguruko ikastetxeko batez besteko emaitzetan zenbatu gabe.

## 3. *Ikasgela arruntean eskolatutako CEI orokor garrantzitsuak dituzten ikasleak.*

Arlo ugarian ACI orokor garrantzitsua edo CEI garrantzitsua duten ikasleek distantzia handia dute ohiko curriculumarekin alderatuta. Horren aurrean, bi egoera bereizi behar dira:

- DBHko 2. mailako ikasleek Lehen Hezkuntzako 4. mailarako tipifikatutako proba egin ahalko dute eta familiei txostena bidaliko zaie ikastetxeko batez besteko emaitzetan zenbatu gabe. Alde batetik, horri esker, txertaketako eta parte hartzeko irizpidea bete ahal izango da ebaluazioa eginez; bestetik, aldiz, 4. mailan ebaluatutako kompetentzien eskuratzeko maila zein den ezagutu ahal izango dugu; eta, amaitzeko, CEIa prestatzeari dagokionez, erreferentzia garrantzitsua litzateke.
- CEI orokorra duten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei dagokienez, ikasgela arruntean egonda ere, litekeena da ziklo horretako curriculumetik nahiko urrun egotea eta, horrenbestez, ez izatea horiek egiteko beharrezkoak diren gutxieneko kompetentziak. Hori gertatuz gero, proban ez parte hartzea edo CEI horretara egokitutako ebaluazio alternatiboa egitea erabaki daiteke. Ikasgelan egonez gero, proba egiteko aukera baloratu ahal izango da ikastetxeko batez besteko emaitzetan kontabilizatu gabe eta familiei zuzendutako txostena egin beharrik izan gabe, beren curriculumera egokitutako ebaluazioa baitute.

## 4. *Ikasgela egonkorrean eskolatutako CEI orokor garrantzitsuak dituzten ikasleak.*

Ikasle mota horien ezaugarri espezifikoak direla-eta, eta beren curriculumera erabat bereizia denez, beharrezkoa litzateke erabat bereizitako ebaluazioa egitea eta proba egin behar duen biztanleriaren erroldatik kanpo geratuko litzateke.

### *Eskuragarri dauden baliabideak*

Euskadiko hezkuntza sistemak giza eta antolaketa mailako baliabide ugari du eta ISEI-IVEIri eta proben aplikatzaileei lehen iradokitakoa erraztu ahal izango lieke. Egoera ugari horietarako, baliabide hauek daude eskuragarri:

- Itsuen Baliabidetegia (IBT).
- Euskadiko hiru probintzietako terapeuta okupazionalen zerbitzua.
- Gorreria duten ikasleen lurralde mailako aholkularitzak.
- Ikasle horien ikastetxeetako giza baliabideak edo materialak: hezkuntza bereziko laguntzaileak, aholkulariak edo pedagogia terapeutikoko irakasleak.

Hori dela eta, laburbilduz, ikasle guztiek egingo dituzte probak eta taldeko eta ikastetxeko puntuazio orokorretik ikasle hauen emaitzak soilik utziko dira kanpoan:

- Curriculum egokitzapen garrantzitsua (CEI) duten ikasleak, horien parte hartzea ezin daitekeenean ebatzi lehen aipatu dugun prozeduraren baten bidez.
- Probako hizkuntzan ikasketak egiten urtebete baino gutxiago daramatelako hizkuntza ezagutzen ez dutenak. Kasu horretan, proba egin ahal izango dute, baina beren emaitzak ez dira kontuan hartuko.
- Euskaratik salbuetsita dauden ikasleak ere kontuan hartu beharko dira. Ikastetxeak egokitzat joz gero, proba egingo duten arren, haien emaitzak ez dira aintzat hartuko ikastetxeko emaitzei kalterik ez eragiteko.

## III.2. EBALUAZIO TRESNAK: ERRENDIMENDUKO PROBEN ETA TESTUINGURUKO GALDESORTEN EZAUGARRIAK

Atal honetan, funtsezkoak diren zenbait gai landuko dugu:

- Zein izango da errendimenduko probak eta testuinguru galdesortak diseinatzeko, eraikitze, aplikatzeko eta balioztatzeko prozesu nagusia?
- Nork hartuko du parte errendimendu probak prestatzen eta nola antolatuko dira?
- Zein izango da proben iraupena eta hedapena?
- Zein ezaugarri formal (euskarria) izango dute probek eta galdesortek?
- Zein ezaugarri tekniko eta linguistiko izango dira kontuan itemak eraikitze?

### III.2.1. PROBAK ETA GALDETESORTAK PRESTATZEKO PROZESUA

■ **Zein izango da errendimenduko probak eta testuinguru galdesortak diseinatzeko, eraikitze, aplikatzeko eta balioztatzeko prozesu nagusia?**

Errendimendu probak eta testuinguru galdesortak eraikitze eta aplikatzeko prozesu orokorrak zortzi fase eta 21 etapa edo ekintza biltzen ditu. Era berean, hurrengo taulan agertzen diren produktu partzialak eta amaierakoak lor-tzea ere biltzen du.

FASEAK	EKINTZAK	PARTE HARTZAILEAK	PROZEDURAK	PRODUKTUAK
<b>I. DISEINU ETA PLANGINTZA OROKORRA</b>	1. Diagnostiko ebaluazioaren diseinu orokorra.	<ul style="list-style-type: none"> <li>· DE Batzorde Teknikoa</li> <li>· ISEI-IVEI Batzorde Teknikoa</li> <li>· Konpetentzien aholkulariak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1. Dokumentazioaren irakurketa</li> <li>2. Lan taldeak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Diagnostiko ebaluazioa egiteko testuingurua.</li> <li>· Konpetentziak garatzeko dokumentua.</li> </ul>
	2. Testuinguru galdesorten diseinua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Batzorde Teknikoa (ISEI-IVEI).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1. Lan taldea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Testuinguruko galdesorten zehaztapenen matrizea.</li> </ul>
	3. Sistema informatikoaren diseinua eta garapena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>· ISEI-IVEIko IKTen teknikariak</li> <li>· Datu baseetan eta informazio sistemetan espezialistak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1. Lan taldea.</li> <li>2. Informatikako enpresaren kontratazioa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Datu basearen egitura eta funtzionamendua azaltzen dituen dokumentua<sup>6</sup>.</li> <li>· Itemen bankuaren sistema.</li> </ul>

<sup>6</sup> Hirugarren fasetik hasita, informatikako sistema elikatu egingo da prozesu osoan sortzen den informazioarekin.

FASEAK	EKINTZAK	PARTE HARTZAILEAK	PROZEDURAK	PRODUKTUAK
<b>II. PROBEN EGITURAKETA</b>	4. Neurketa proben diseinua.	· ISEI-IVEI probak prestatzeko talde teknikoak.	1. Dokumentazioa. 2. Materialen prestaketa. 3. Talde teknikoaren lana.	· Probak prestatzeko irizpide teknikoak biltzen dituen dokumentua. · Konpetentzia bakoitzaren zehaztapenen matrizea.
	5. Itemen ezaugarrien zehaztapena.			Itemak prestatzeko irizpideak biltzen dituen eskuliburu teknikoak.
<b>III. ITEMAK ERAIKITZEA</b>	6. Probatuko eta galdesortetako itemak prestatzea.	· Konpetentzien araberako adituen taldeak. · ISEI-IVEI Talde Teknikoa.	1. Dokumentazioa. 2. Prestakuntza. 3. Adituen taldeen araberako lana.	· Konpetentzia bakoitzerako irizpide espezifikoak biltzen dituen dokumentua. · Konpetentzia bakoitzerako prestatutako itemak dituen dokumentua. · Galdesorten itemak biltzen dituen dokumentua.
	7. Probak eta galdesortak baliozkotzea.	· Berrikusteko eta egiaztatzeko adituen taldea.	1. Dokumentazioa. 2. Prestakuntza. 3. Taldeen araberako lana.	· Balidazioa eta egiaztapena egiteko eskuliburu teknikoak. · Itemak baliozkotzeko dokumentua.
	8. Proben eta galdesorten gidaketa.	· ISEI-IVEIren Talde Teknikoa · Kanpoko aplikatzaileak.	1. Gidaketarako laginketa. 2. Proben edizioa 3. Aplikatzaileen prestakuntza. 4. Aplikazio pilotua.	· Gidaketarako eskuliburu teknikoak. · Biztanleriaren lagina. · Proben eta galdesorten koadernotxoak. · Gidaketako emaitzak biltzen dituen datu basea.
<b>IV. BEHIN BETIKO EBALUAZIOAREN DISEINUA</b>	9. Itemen aukeraketa eta koadernotxoak eta galdesortak eraikitzea.	· ISEI-IVEI Talde Teknikoa. · Adituen taldeak	1. Dokumentazioa. 2. Itemen eta galdesorten azterketa estatistikoa.	· Itemen azterketarako eskuliburu teknikoak. · Azterketa txostena. · Aukeraturako itemen dokumentua.
	10. Probak eta galdesortak editatzea.	· ISEI-IVEI Talde Teknikoa. · Kontratutako inprenta.	1. Koadernotxoak eta galdesortak editatzea. 2. Inprimatzea.	· Proben ediziorako eskuliburu teknikoak. · Konpetentzia bakoitzerako inprimaturako koadernotxoak. · Testuinguru galdesortak.
<b>V. APLIKAZIOA</b>	11. Biztanleriaren laginketa.	· ISEI-IVEI Talde Teknikoa.	1. Dokumentazioa.	· Eguneraturako laginketa testuingurua. · Biztanleriaren laginketa eta diseinua.
	12. Probak ematea.	· ISEI-IVEI Talde Teknikoa · Kontratutako langileak. · Irakaskuntza ikastetxeak.	1. Dokumentazioa. 2. Datu basea. 3. Aplikaziorako lan taldeak.	· Aplikazio tresnak. · Aplikazioko eskuliburu teknikoak. · Koadernotxoak eta galdesorten paketeak.
<b>VI. EMAITZEN AZTERKETA ETA INTERPRETAZIOA</b>	13. Proben zuzenketa.	· ISEI-IVEI Talde Teknikoa. · Kontratutako langileak.	1. Dokumentazioa. 2. Prestakuntza. 3. Zuzenketa taldeak.	· Zuzenketa irizpideen eskuliburuak. · Datu basea.
	14. Emaitzen azterketa.	· ISEI-IVEI Talde Teknikoa.	1. Emaitzen azterketa estatistikoa. 2. Lan taldeak.	· Ebaluazioko emaitzak biltzen dituen datu basea. · Itemen azterketari buruzko eskuliburu teknikoak. · Oinarritzko txosten teknikoak.
	15. Errendimendu mailen definizioa.	· ISEI-IVEI Talde Teknikoa.	1. Dokumentazioa. 2. Taldeen araberako lana.	· Errendimendu mailak eta muga puntuak biltzen dituen dokumentua.

FASEAK	EKINTZAK	PARTE HARTZAILEAK	PROZEDURAK	PRODUKTUAK
<b>VII. TXOSTENEN PRESTAKETA</b>	16. Txosten teknikoaren prestaketa.	· ISEI-IVEI Talde Teknikoa.	1. Dokumentazioa. 2. Lan taldeak.	· Oinarrizko txosten teknikoa.
	17. Ikastetxeen eta ikasleen txostena prestatzea.			· Ikastetxearen eta ikasleen txosten eredia. · Ikastetxe eta ikasle bakoitzaren txostenak.
	18. EAEko txostenaren prestaketa.			· EAEko emaitza orokorren txostena.
	19. Emaitzen hedapena.	· Ikuskapena. · Beste zerbitzu batzuk. · Ikastetxea.	1. Dokumentuak. 2. Prestakuntza. 3. Lan taldeak.	· Irizpide orokorrak dituen dokumentua. · Txosten espezifikoak.
<b>VIII. APLIKAZIOAREN HURRENGO HASIERA</b>	20. Prozesuaren baliozkotasuna aztertzea.	· ISEI-IVEI Talde Teknikoa.	1. Dokumentua. 2. Lan taldea.	· Helburu-ebaluazioaren dokumentua.
	21. Probak eta galdesortak baliozkotzea.	· ISEI-IVEI Talde Teknikoa.	1. Dokumentua. 2. Lan taldea.	· Helburu-ebaluazioaren dokumentua.

Taula: ERRENDIMENDU PROBAK DISEINATZEKO, ERAIKITZEKO, BALIOZKOTZEKO, APLIKATZEKO ETA AZTERTZEKO PROZESU OROKORRA.

Ikus dezakegun moduan, lehen fasea eta hiru etapak diagnostikoa egiteko aplikazioaren zati diren tresna eta prozesu guztien plangintza eta diseinu orokorraren ingurukoak dira. Bigarren fasea probaren diseinuan eta ezaugarri teknikoen zehaztapenean oinarrituta dago; aldiz, hirugarren fasean probetako eta galdesortetako itemak eraikitzea, balidatzea eta kontrolatzea landuko da ikasleen lagin zabalean gidaketa eta jatorri ugaritako irakasleekin eta adituekin batera.

Laugarren fasetik hasita, behin betiko aplikazioaren prozesua hasi ohi da. Lehenengo, koadernoak eraiki eta itemak aukeratu behar dira eta, jarraian, emaitzak aplikatu, zuzendu eta aztertu, eta txosten mota ugariak prestatu behar dira. Fase hori eta hurrengoak atal hauetan agertzen dira garatuta modu espezifikoan. Horien artean, aipatu beharrekoa da hurrengo aplikazioaren lehen fasearekin elkartzen den prozesu osoaren metaebaluazioaren azken fasea.

### ■ Nork hartuko du parte errendimenduko probak prestatzen eta nola antolatuko dira?

Probak prestatzeko, bi lantalde antolatuko dira:

- Probak prestatuko dituen taldea.
- Probak berrikusteko eta alderatzeko taldea.

Bi taldeak diagnostiko ebaluazioen Talde Teknikoaren menpe egongo dira eta geroxeago ikusiko dugun moduan, haien funtzioak eta epeak nabarmen izango dira ezberdinak.

- Probak prestatuko dituen taldea.

Itemak eta diagnostiko ebaluazioetan erabiliko diren probak prestatzeaz arduratuko diren pertsonen taldea da. Oinarritzko kompetentzien testuingurutik abiatuta, lan hauek izango ditu:


- Ebaluatu nahi diren kompetentzia horietako bakoitzaren ebaluazio matrizea prestatzea.
- Kompetentzi maila bakoitzarentzat egokiak diren itemak prestatzea, haietako bakoitza deskribatuz laneko fitxan.
- Proben aplikazio pilotuaren emaitzak aztertzea eta egokitzat jotako itemak egokitzea, ezabatzea edo zuzentzea.
- Behin betiko proba eta haren interpretazio matrizea prestatzea.

Talde hori ISEI-IVEIk koordinatuko du diagnostiko ebaluazioaren kudeaketa eta diseinua egingo duen taldeko kidea izango den teknikari baten bidez. Kompetentzia bakoitzak koordinatzaile bat eta itemak garatzeko behar adina pertsona izango du.

Prestaketako talde horietako kide diren pertsonak, batez ere, irakasleei laguntza emateko zerbitzuetatik (Berritzegune) eta Hezkuntzako Ikuskapenetik iritsitakoak izango dira. Horri esker, probak egiteko lanaren koordinazioa eta jarraipena bizkorragoa eta arinagoa izango da. Hala ere, iritzien eta ikuspegien aniztasuna bermatze aldera, probak prestatzeko talde horiek alderatzeko beste talde batzuen laguntza eta babesa izango dute. Haien funtzioak behean agertzen dira.

Horrek behar adina egonkorra den funtzionamendu egitura izan beharko du; izan ere, emaitzak alderatzea erraztuko duen itemen bankua prestatu beharko da denborak aurrera egiten duen heinean. Hala ere, talde hori osatzen duten pertsonak aldatzen joatea komeni da probak prestatzeko hainbat era eta ikuspuntu ugari eskaini ahal izateko.

Jarraian, adibide gisa, lehen aplikazioko itemak prestatzeko abian jarri den funtzionamenduko egitura agertzen da.



#### b) Probak berrikusteko eta alderatzeko taldeak

Berrikusteko eta alderatzeko talde horiek proben prestataketako taldeak koordinatuko dituzten pertsonen araberakoak izango dira eta funtzio hauek izango dituzte:


- Talde bakoitzak egindako itemen eta proben inguruko proposamenei buruzko iradokizunak irakurtzea, aztertzea eta ematea, batez ere edukiaren eta hizkuntzaren arloko ikuspuntutik.
- Testuei edo lan motei buruzko ideiak eta proposamenak, edo beste edozein iradokizun mota eskaintzea probak prestatzen dituzten taldeei.

Berrikusteko eta alderatzeko talde horiek jatorri ezberdinetako pertsonak osatuko dituzte (batez ere, ikastetxe publikoetako eta hitzartutakoetako, unibertsitateetako eta beste erakunde mota batzuetako irakasleek). Ezinbestekoa izan-

go da egiaztatzeko talde horietako bakoitzean jatorria behar bezain anitza dela bermatzea, itemen azterketan eta balorazioan ahalik eta aberastasunik handiena lortu ahal izateko.

### ■ Nola prestatu ohi dira probak?

Probak prestatzea prozesu konplexua da, hainbat urte irauten du eta lau etapatan antolatuta dago:



#### 1. etapa: Proben ebaluazio testuinguruaren definizioa

Ebaluatutako konpetentzia bakoitzerako idatzizko probaren bidez ebalua daitezkeen dimentsioak, azpikonpetentziak eta adierazleak identifikatu ohi dira. Jarraian, helburu horiek edukien eta abilezien testuinguru bihurtu ohi dira. Testuinguru horrek, beste hainbat arloz gain, proben iraupena, itemen tipologia eta konpetentzia bakoitzerako koaderno kopurua zehazten du.

#### 2. etapa: Proben itemak prestatzea

Itemak prestatu ahal izateko, erreferentzia gisa konpetentzia bakoitzaren ebaluazio testuinguruko zehaztapenak hartu behar dira kontuan. Galderak berrikusteko prozesu zorrotza izango dute ebaluatutako mailari eta konpetentziari buruzkoak eta hari dagozkionak direla ziurtatzeko, planteamendua zuzena dela egiaztatzeko eta neurtu nahi dituzten dimentsio eta azpikonpetentzia horiek benetan ebaluatzen dituztela ikusteko.

Erantzun anitzeko galderen kasuan, galderak zuzeneko aukera bakarra izan dezaten eta okerreko aukerek ikasleen kasuan ohikoak diren argudio edo kontzeptu okerrak erakutsi ditzaten saiatu beharko dugu. Galdera irekien kasuan, erantzun bat zuzena, partzialki zuzena edo okerrekoa dela ulertu ahal izan behar dituen ezaugarriak zehazten dituzten zuzenketa urratsak prestatu behar dira.

Proben galderak prestatzeko lanean ebaluatutako arlo bakoitzeko espezialistek eta ebaluazio arloko adituek parte hartuko dute eta, jarraian, ikasgelako irakasleekin alderatuko dira.

#### 3. etapa: Proba esperimentala (gidaketa)

Proba bakoitzerako prestatutako itemak ISEI-IVEIk onartzen dituenean, haiek proba pilotuan probatuko dituzte. Proba esperimentala Euskadi behar adina ordezkatzeko duen laginari aplikatu ohi zaio. Proba hori behin betiko proba baino urtebete lehenago egin ohi da. Proba esperimentaleko emaitzak barne erabilerarako dira; hau da, ez dira eza-gutaraziko.

Proba pilotuari esker, probetako galderen kalitatea azter daiteke. Adibidez, probak item oso errazak eta oso zailak dituen, emaitza orokor onenak dituzten ikasleek itemik konplexuenak zuzen erantzuten dituzten, eta zailenak diren galderak benetan erantzun zuzenen ehuneko txikiagoa duten aztertu ohi da.

Item irekiak zuzendu egin ohi dira ikasleek esperotako erantzunak garatu dituzten baloratzeko, zuzenketa urratsek ikasleek eman ohi dituzten erantzun ohikoenak betetzen eta agertzen dituzten egiaztatzeko, eta zuzenketa kategoriak ondo zehaztuta dauden zehazteko (zuzena, partzialki zuzena eta okerra). Zuzentzaileek urrats horiek era koherentean aplikatzen dituzten ere aztertu ohi da.

#### 4. etapa: Behin betiko proba

Aurreko etapan lortutako emaitzak oinarri gisa hartuta, ISEI-IVEIko teknikariek, prestaketa taldeen aholkularitzari esker, behin betiko proban sartuko dituzten galderak aukeratu ohi dituzte. Era berean, ikasle bakoitzak erantzun beharreko galdera kopurua, koadernotxoaren eta erantzun orrien formatua, eta koadernotxo bakoitzeko galderen sekuentzia ere aukeratu ohi dituzte.

### III.2.2. ERRENDIMENDU PROBEN EZAUGARRIAK

#### ■ Zein iraupen izango dute kanpoko diagnostiko ebaluazio proben aplikazioko saiok?

Probak aplikatuko diren saioren iraupena zein izango den erabakitzeko, funtsezkoak diren bi arlo hartu dira kontuan:

- Ikasleen adina eta kontzentrazioa mantentzeko duten kompetentzia. Beharrezkoa da ikasleen nekea ekiditea, arreta maila nabarmen gutxitzen baita epe jakina igaro ostean. Izan ere, epe hori igaro ostean, erantzunak hausnarketarik gabeak izan daitezke eta balioa galduko lukete.
- Beharrezko baliabideen eskuragarritasuna eta kanpoko probak aplikatzeko ordutegia.

Proben iraupenaren inguruko erabakiak beste alderdi batzuk ere baldintzatu ohi ditu: oinarrizko kompetentzia bakoitzaren alderdi ugariak ebaluatzeak sakontasuna eta hedapena, esate baterako, eta kompetentzia kopurua, besteak beste. Beharrezkoa da lortu nahi dena (oinarrizko kompetentzia bakoitza ahalik eta modurik zehatzenean ebaluatzea) eta ahal dena (erabili beharreko baliabideak, ikastetxeen funtzionamenduaren etete maila, ikasleen ohiturak etab.).

Hala eta guztiz ere, ikasle bakoitzaren inguruko emaitza garrantzitsuak eskaintzen dituen eta,aldi berean, oinarrizko kompetentzien gaineko alderdirik garrantzitsuenen behar bezain zabala den balorazioa bermatzen duen ebaluazioa bateratu ahal izateko beharrezkoa da kompetentzia bakoitzerako gutxieneko denbora ematea. Horrez gain, helburua emaitzen bilakaera diakronikoa ezarri ahal izatea da.

Ebaluatu behar diren mailen hezkuntza kulturara eta ezaugarrietara egokitutako eredu arrazoizkoak eta egokituak ezin du bi egun baino gehiagokoa izan. Egundorietan, proben emaitzak, galdesorta betetzea eta atsedendialdiak sartu beharko dira.

Oinarrizko kompetentzia baten ebaluazio proba aplikatzeko behar den benetako denbora kalkulatu ahal izateko, ikasleek proba bakoitzaren ezaugarriak aurkeztu ahal izateko bost edo hamar minutu behar direla (erantzunaren argibideak irakurtzeko, akatsen zuzenketa azaltzeko, adibideren bat ikusteko, giro egokia sortzeko eta zalantzak argitzeko aukera izan dezaten) kontuan hartzea ezinbestekoa da. Era berean, beharrezkoa da proben artean atsedendialdiak egitea (proba baten eta hurrengoaren artean bost minutukoak eta beste bat luzeagoa, 20-30 minutukoa, goizeko uneren batean).

Lehen Hezkuntzako eta DBHko taldeek ordutegien antolaketa ezberdina izaten dutenez, ebaluazio jardunaldietarako bi proposamen espezifiko agertzen dira jarraian, probak aplikatuko diren maila bakoitzari dagozkionak.



**Lehen Hezkuntzako 4. mailan**, saio bakoitzerako gehieneko denborak; hau da, proba bakoitzerako beharko denak, ezingo du 40 edo 45 minutu baino gehiagokoa izan hizkuntza arloarekin loturarik ez duten konpetentzien proben kasuan. Zenbait ikastetxetan eskuragarri dagoen gehieneko denbora hiru ordukoa denez goizean, probak *gutxi gora-behera* banatuko dira hurrengo orrialdeko taulan ikus daitekeen eran.

Banaketa hori egitean, hizkuntza bakoitzarekin lotura duten konpetentzia guztiak goiz berean ez ebaluatzea komeni dela hartu da kontuan, nahiz eta horiek bereizitako proben bidez ebaluatzen diren. Aipatutako konpetentzia bakoitzaren ebaluazio ordena aldatu egin daiteke aplikazio beharren eta ikastetxe bakoitzeko ordutegi espezifikoaren arabera.

Bestalde, proben artean 2 eta 5 minutu arteko uneak tartekatzea komeni da, ikasleek hurrengo probari aurre egin aurretik tentsioa arin dezaten.

**DBHko 2. mailan**, proba bakoitzean erantzuna emateko izango duten denbora handitu egingo da ikasleen ezagueriak direla eta. Hori dela eta, hizkuntzarekin lotura ez duten konpetentzien saiorako izango duten denbora 55-60 minutukoa izango da. Gainera, eskuragarri dagoen ordutegi modulua ere zabaldu egin ohi da; aplikazioko bi egunetako (egun bakoitzerako) denbora hiru ordu eta erdikoa izango da, hurrengo orrialdeko taulan ikus dezakegun moduan.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan bezalaxe, DBHko 2. mailaren kasuan ere egokitzat jo da goiz berean ez ebaluatzea hizkuntza bakoitzarekin lotura duten konpetentziak, nahiz eta horiek proba ezberdinen bidez ebaluatzen diren. Lehen aipatu dugun moduan, aintzat hartu behar da denboren banaketa gutxi gorabeherakoa dela eta azkenean prestatutako proben ezaugarrien araberrakoa izango da.

Galdesortari dagokionez, ebaluazio saioak garatzen diren eraren edo ikastetxe bakoitzeko ordutegiaren arabera, ikasleek galdesortari proben goiz berean erantzun beharko diote (15' inguruan). Galdera sorta errazak eta aurkezteko eta erantzuna emateko denbora laburra eskatzen dutenak diseinatuko dira. Galdesorta hori osatzeko, bi aukerara daude:

- a) Koadernoan erantzutea egindako galderari (gero digitalizatu egingo den erantzunen orrien ereduaren arabera).
- b) Proben aplikazioaren hurrengo astean, web bidez euskarri informatikoan osatzea, aurreko proposamenetan galdesorta osatzeko emandako denbora galdera sortan agertzen diren gaiak argitzera eta alderdi didaktikoei eta metodologikoei buruzko informazio hutsa biltzera zuzentzeko, tutorea aurrean dutela eginez gero, zailagoa baita modu zintzoan osatzea

### ■ **Zenbat koaderno izango ditu proba bakoitzak?**

Banakako emaitzak lortu nahi diren kanpoko ebaluazioa denez, probak batez ere komuna izan behar du; hau da, ikasleek item berak erantzun behar dituzte baldintza beretan. Hori dela eta, probako galdera sorta guztiak biltzen dituen koaderno bakarria izan beharko luke. Horri esker, ikasle guztiek zailtasun maila bera gainditu dutela berma daiteke eta emaitzak bateragarriak izango direla ziurta dezakegu.

Koaderno bakarreko ereduaren aukerak neurtu daitekeen konpetentzia bakoitzeko alderdi eta dimentsio kopuru txikiagoa izatea du ondorio. Egoera hori, gainera, okertu egiten du konpetentzia bakoitza ebaluatzeko eskuragarri duen denbora urriak, aurreko puntuan adierazi dugun moduan.

Arazo horrentzako alternatiba konpetentzia bakoitzerako koaderno ugari erabiliko diren ebaluazioa egitea izan daiteke. Horren abantaila nagusia hau da: oinarriko konpetentzia bakoitzeko dimentsio eta azpikonpetentzia ugari dagozkion alderdien kopuru handiagoa ebalua daiteke.

## LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

## LEHEN EGUNA: ± 3 ordu

Ikasleei ebaluazioa antolatatu eta aurkeztea:

10'-15'

Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia:  
EuskaraIrakurmena:  $25' + 5' = 30'$   
Idazmena:  $20' + 5' = 25'$   
Entzumenena:  $15' + 5' = 20'$   
**Guztira: 1 ordu eta 15'**

Jolasgaria:

30'

Matematikarako kompetentzia

 $45' + 5' = 50'$ 

Galdesorta:

 $15' + 5' = 20'$ 

## BIGARREN EGUNA: ± 2 ordu eta 50'

Bigarren eguneko probak aurkeztea:

10'-15'

Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia:  
GaztelaniaIrakurmena:  $25' + 5' = 30'$   
Idazmena:  $20' + 5' = 25'$   
Entzumenena:  $15' + 5' = 20'$   
**Guztira: 1 ordu eta 15'**

Jolasgaria:

30'

Zientzia, teknologia eta osasunerako kompetentzia

 $45' + 5' = 50'$ 

## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

## LEHEN EGUNA: ± 3 ordu eta 30'

Ikasleei ebaluazioa antolatatu eta aurkeztea:

10'-15'

Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia:  
EuskaraIrakurmena:  $35' + 5' = 40'$   
Idazmena:  $25' + 5' = 30'$   
Entzumenena:  $15' + 5' = 20'$   
**Guztira: 1 ordu eta 30'**

Jolasgaria:

20'-30'

Matematikarako kompetentzia

 $55' + 5' = 60'$ 

Galdesorta:

 $15' + 5' = 20'$ 

## BIGARREN EGUNA: ± 3 ordu eta 15'

Bigarren eguneko probak aurkeztea:

10'-15'

Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia:  
GaztelaniaIrakurmena:  $35' + 5' = 40'$   
Idazmena:  $25' + 5' = 30'$   
Entzumenena:  $15' + 5' = 20'$   
**Guztira: 1 ordu eta 30'**

Jolasgaria:

20'-30'

Zientzia, teknologia eta osasunerako kompetentzia

 $55' + 5' = 60'$

Hala eta guztiz ere, teknikoki konpontzeko zaila den erronka biltzen du aukera horrek. Ikasle guztiek item berei erantzun ez dietenez, koaderno ezberdinak izan dituztenez, zailtasun ezberdineko probei egin behar izan diete aurre. Horrenbestez, zaila da banakako errendimendua kalkulatzeko pertsona horren koadernoak batez bestekoarekin alderatuta zuen zailtasun mailaren ezberdintasuna abiapuntu gisa hartuta emaitza berriz kalkulatzeko.

Hori dela eta, 2007-2008 ikasturteko proben aplikazio pilotua egiteko garaian, banakako emaitzetan desbideratze hori konpontzeko lukeen eredu estatistikoa probatuko da, baina oinarrizko konpetentzien alderdien ahalik eta kopururik handienaren inguruko informazio askotarikoa eskainiko lukeen ebaluazioa egiteko aukera mantenduz, oso proba luzeak aplikatu beharrik izan gabe.

Koadernoetan, urtero mantenduko dira ainguraketa item batzuk. Konpetentziaren alderdi zehatza ebaluatzeko garaian garrantzi handia, fidagarritasuna eta egonkortasuna erakutsi duten itemak dira. Item mota horien txertaketak luzetarako alderaketak egitea ahalbidetzen du; hau da, urtetik urterakoak. Era berean, emaitzen bilakaera dinamikoa balo- ra daiteke horri esker. Alderagarritasuna oso erabilgarria da ikastetxeetarako, hartu dituzten neurrien eragingarritasun maila egiaztatu ahal izango baitute eta, horrenbestez, hausnarketako eta autoikasketako proiektuan lagunduko baitiete. Era berean, gainera, baliagarria da hezkuntza arloko administrazioarako, sistemaren inguruko datu orokorrak bildu eta ikastetxeetan praktika onen azterketak proposa baititzake.

Hurrengo orrialdeko grafikoan, bi eredu horietako bakoitzaren ezaugarriak eta erabaki bat edo bestea hartzeak ekar ditzakeen ondorioak agertzen dira.

### ■ Zein ezaugarri formal izango dituzte koadernoak?

Errendimendu probak aurkezteko euskarriari dagokionez, bi aukera daude: arkatza eta papera erabili beharreko proben bidez egitea edo probak euskarri informatikoan aurkeztea.

Bertako ekipamendu informatikoaren banaketa eta ezaugarriak ezagutu ahal izateko ikastetxe guztietara bidalitako inkesta<sup>7</sup> agertzen diren datuen arabera, lehen aplikazioetan, probak paperean aurkeztuko dira, zenbait probaren edukiak biltzen dituen salbuespen batzuekin (adibidez, ahozko ulermena ebaluatu ahal izateko, beharrezkoa da audio formatuko erregistroak izatea ikasleari aplikazioaren unean erreproduzitu ahal izateko). Proben aplikazio informatikoa epe ertaineko aukera da eta beharrezkoa izango da horren inguruko plangintza egitea. Hala ere, ez da erraza izango lehen aplikazioetan hori ohiko bihurtzea.

Aplikazio berean bi euskarriak erabiltzeko aukera, aukera teknikoan eta ikastetxe bakoitzeko baliabideen arabera, beharrezkoa da kontu handiz aztertzea, ikasleek probari formatu batean edo bestean erantzuteak, seguru asko, erantzunen aldaragarritasunaren inguruko eraginaren bat izan baitezake<sup>8</sup>. Aurkezpenaren euskarriak eraginak izan ditzake erantzunetan subjektuak neurri handiagoan edo txikiagoan motibatzen baititu edo, beste hainbat arloren artean, zailtasun maila ezberdinak biltzen baititu informazio jakinera sartzeko.

Ikuspuntu formaletik, koadernoak erraz erabili ahal izango dituzte ikasleek. Gainera, erakargarriak eta motibatzaileak izango dira. Arkatzarekin eta paperarekin egin beharreko proben kasuan, arreta handia jarri behar da orriaren neurriari, motari eta letra neurriari, marjinen zabalerari, erantzuna emateko espazioei, marrazkietan eta grafikoetan erabiltako koloreari eta beste hainbat arlori dagokienez.

<sup>7</sup> 2006-2007 ikasturteko hirugarren hiruhilekoan, ikastetxe publiko eta hitzartu guztietara inkesta bidali zuten ikastetxe bakoitzeko ordenagailu kopurua, ezaugarri teknikoak eta espazioan haien banaketa ezagutzeko ahalbidetuko duen informazioa jasotzeko. Haren emaitza orokorra 3. eranskinean agertzen dena da.

<sup>8</sup> Diagnostiko 2008-2009 ikasturteko ebaluaziorako, aplikazio pilotuan alderdi hori ikertu nahi dute, erabakia berme handiagoz hartu ahal izateko.

Orain arte egin diren ebaluazio guztietan, ikasleek koadernotxoan agertzen diren galderei erantzun diete eta, jarraian, erantzunak datu basean sartu eta koaderno berean irekitako itemak zuzendu dira. Hala ere, hori ez da aukerarik komenigarriena honen moduko ebaluazioa egitean, ikasleen kopurua handia baita (35.000 inguru maila bakoitzean). Hori dela eta, koadernotxotik bereizitako **erantzun orriak** erabiliko dira proba egiteko, arrazoi hauek direla eta:

- Erabili beharreko paper kopurua gutxitzen du, galderen koadernotxo berak erabil baitaitezke behar adina aldiz.
- Erabiltzeko erosoagoa da prozedura hori, digitalizazio aukera biltzen eta erantzunen zuzenketa errazten baitu, batez ere proba objektibo baten ingurukoak direnean.

Koadernotik bereizitako erantzunen orria aukeratzeak formatuan arreta berezia jartzea eskatzen du, batez ere Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen kasuan, ziur asko ikasle horiek ez baitira oso ohituta egongo tresna mota horietara. Horrekin lotuta, alde batetik, modu formalean zainduko dugu erantzunen orria ahalik eta argiena, errazena eta erakarriena izan dadin erantzun behar dion ikaslearentzat; bestetik, berriz, ikasleak proba egin aurretik, erantzunen mekanismoa ezagut eta antzeko ereduren bat aurretik proba dezaten saiatu beharko dugu.

Erantzuna emateko testua idatzi, marrazkia irudikatu edo kalkulu algoritmoak egin behar baditu; hau da, erantzunak nolabaiteko hedapena duten erregistroak sortzen dituzten lanak eskatzen baditu, horiek ere erantzunen orrian zuzenean jaso beharko dira. Ziur asko, ikaslearentzat erosoagoa izango da galderak agertzen diren koadernotxo berean erantzutea, orrian erantzuna gaizki kokatzeak eragindako akatsak ekidingo bailitu horrek, baina aurreko paragrafoetan zehaztu dugunarekin kontraesanegatik egongo litzateke prozedura.

Hori dela eta, aplikazio bakoitzean erabiliko diren materialak ikasleak berak erabiliko dituenak eta proben aplikatzaileek eta zuzentzaileek erabili behar dituztenak baino ez dira izango:

- Oinarrizko kompetentzien errendimendu probak biltzen dituzten koadernotxoak.
- Ikasleentzako erantzun orriak.
- Material osagarriak beharrezkoak diren ebaluazioko zatietarako (audio grabazioak eta abar).
- Proba bakoitzerako aplikazio arau espezifikoak biltzen dituen argibideen eskuliburua; horien artean, jazoerak jasotzeko fitxak sartu beharko dira.
- Oharretako txantiloak eta item guztietarako zuzenketako eta puntuazioko irizpideak.

### ■ Zein ezaugarri izango dute itemek eta zein tipologiatakoak izango dira?

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen oinarrizko kompetentziak ebaluatu ahal izateko ezinbestekoa da kontuan hartu diren kompetentzia moten arabera diren itemak biltzen dituzten tresnak erabiltzea, zehaztutako egoerak eta testuinguruak aintzat hartuz beren aplikazioa eta menderatze maila erakuts dezaten eta haien administrazioa bideragarria izan dadin errolda ebaluazioaren baitan.

Ebaluazioaren xede diren kompetentziek itemen formatu eta mota ezberdinak biltzea eskatzen dute. Hala ere, guztiek izan beharko dute oinarrizko kompetentzietara zuzendutako ebaluazioa, eskolako testuinguru bakoitzean aplikatutako curriculumeko ezagutzak eta teknikak soilik oinarri gisa hartu gabe. Galderak, horrenbestez, curriculumeko edukietan oinarrituz, subjektuen kompetentziak ebaluatzea izango dute helburu, horiek eskolako egoeretan eta batez ere, eguneroko bizitzan aurre egin beharko dieten egoeretan aplikatu ahal izateko.

Probak osatuko dituzten itemak prestatzeko, hiru erreferente hartuko ditugu kontuan:

- Oinarrizko Hezkuntzari buruzko 175/2007 Dekretuan egindako kompetentzien curriculum eta deskribapena, haietako bakoitza garatzen duten dokumentuekin batera, eta batez ere, azpikonpetentzia bakoitzeko adierazleen atalari dagokiona.

- Bi hizkuntza ofizialen, euskararen eta gaztelaniaren, hizkuntza kompetentziak neurtzen dituzten proben kasuan, euskaraz B1 eta B2 mailak neurtzeko balio izan duten probak, haietan proposatutako itemen ezaugarriari eta ereduari dagokionez zein proposatutako mailari dagokionez. Izan ere, ebaluazio hori aplikatu den mailekin eta aipatutako 175/2007 Dekretuan agertzen diren mailekin koherentea izan behar du.
- PISA (ELGA/OCDE) eta PIRLS (IEA) nazioarteko probetan parte hartzetik jasotako esperientzia. Proba horien helburua ikasleak eskolako testuinguruan ikasitakoa problemak ulertzeko, aztertze edo ebazteko aplikatzeko duen kompetentzia neurtzea da.

Itemak sortzeko eta eratzeko abiapuntu gisa erabiliko diren premisa batzuk hauek dira: ebaluatutako ikaslearen interes arloak, ingurunea, eguneroko bizitzako testuingurua, funtzionaltasuna, problemen ebazpena, ikasitakoaren aplikazioa, egoera ezberdinak ebazteko autonomia, egungo gizarteko etengabeko aldaketak, iritzi ezberdinak, erabakien ondorioak eta abar. Eskola ikaslearen ingurunearekin era bateratzailean eta dinamikoan lotzea izango da proben helburuetako bat.

Aurreko planteamenduak dioenarekin jarraituz, ezaugarri horiek dituen item eredu hau proposatzen dugu:

- *Item-problema.* Aukera horren oinarria ikasleen eguneroko bizitzako, egunerokotasuneko, ingurune (espazioa, belaunaldiak, gizartea, hezkuntza, interesak...) eta abarretako alderdirik garrantzitsuenak aukeratzea da. Horren abantaila nagusia da, neurri handi batean behintzat, eguneroko bizitzako arazoak eta egoerak modu birtualean erakusten dituela eta, horrenbestez, ikasleak azterketa eta ebazpena egiteko aktibatzen dituen estrategien, abilezien, baliabideen eta jarreraren inguruko ebaluazioa eskaintzen du. Horrenbestez, eskolan eta bere aldeketa pertsonalean ikasitakoa aplikatu ahal izateko testuingurua (edukiak, prozedurak, estrategiak eta abar) sortzen du. Horrek lotura egokia du oinarritzko kompetentzien inguruko diagnostiko ebaluazioaren oinarri den filosofiarekin. Item mota horrek, gainera (item-problema deitu dioguna), harekin batera agertzen den testu motibatzailearen inguruko hainbat galdera lotzea ahalbidetzen du.

Beste nolabait esanda, item bakoitzean erabiliko den testuaren bidez proposatu ohi da problema. Problema hainbat eratakoa izan daiteke (gizarte mailako edo norbanakoaren gatazka, zailtasun ekonomikoa, dilema etikoa, ingurune arazoak, aniztasun kulturala, elkarbizitzako egoera eta abar); baina, edonola ere, ikaslearen esperientzia arlo-ara gerturatu behar du (hezkuntza zein banakakoaren arlora).

Ebaluatu beharrekoa matematikaren edo hizkuntzaren arlokoa denean modu zorrotzean, testuko gaiak ikaslearengandik gertu dagoen testuingurua sortzeko balioko du. Hurbiltasun zentzua ez da espazioarekin lotuta soilik ulertu behar, denbora eta egunerokotasun arlokoa ere bada eta. Hori dela eta, ebaluatu nahi dugun ikaslearen adinaren arabekoak eta egokiak diren gaiak aukeratu beharko dira. Goian aipatu dugun moduan, gaiak askotarikoak izango dira eta ez derrigor diziplina arlokoak (helburua ez da curriculumaren ezagutza maila ebaluatzea, diagnostiko ebaluazioa ez baita curriculum arlokoa), eskolan ikasitakoa errealtateko, ingurune arazoetako, egungo bizitzako alderdirik garrantzitsuenetako eta abarretako ezaugarriak hainbat testuingurutan ebazteko edo aztertze aplikazioa ebaluatzean oinarrituta. Edonola ere, itemek alderdirik garrantzitsuenak, oinarritzkoenak eta aipagarrienak landu behar dituzte.

Item baten ohiko egitura hau izango da:

1. *Goiburua* edo aurkezpena, hasieran. Ohar orokorra edo testuaren irakurketaren helburuaren inguruko azalpenen bat edo elementu motibatzailearen bat eskaintzen du.
2. *Testua.* Gero galderei erantzuteko eskaintzen duen informazio iturria da. Era askotakoa (testu idatzia, grafikoa, taulak, formularioak, irudiak, eskema, estatistikako taula eta abar) eta mistoa ere izan daiteke; hau da, hainbat eratako testu elementuak batera ditzake (testu idatzia eta grafikoa edo irudia, esate baterako, testu liburuetan edo idatzizko komunikabideetan maiz agertu ohi diren moduan). Testuak galderei erantzuteko beharrezkoa den informazioa eskainiko du; argia eta zuzena izango da hizkuntzaren ikuspuntutik, testu horiek irakurriko dituzten ikaslearen adinaren eta ezaugarrien arabekoak, eta justifikatzen duten salbuespenik egon ezean behintzat, galderak ebazteko erabili behar ez duten informazio gehiegirekin ez luzatzen saiatu beharko dira.
3. *Oinarria.* Ikasleari egin ohi zaion galdera espezifiko da. Galderazko esaldi batekin egin ohi da ("*Zein da hau egin zuen pertsonaia:...?, "Zein eragin izan ohi du testuan agertzen den esperimenduak?"*) eta abar). Hori egiteko beste

modu bat jarraibidea edo agindua ematea da: (*“Adierazi honen osagai nagusia...”, “Kalkulatu zein materia ehuneko behar den honetarako...”, “Azpimarratu ideia nagusia”* eta abar). Oinarri mistoa ere presta dezakegu. Kasu horretan, egoera jakin baten inguruko datuak eskaini ohi dira eta, jarraian, galdera egin. Galdera hori testu orokorreko informazioa eta norberaren ezagutzak eta abileziak erabiliz ebatzi behar da.

4. *Erantzun aukerak*. Ikaslearen ustez zuzena den erantzuna aukeratu ahal izateko dituen aukerak dira. Aukera anitzeko itemetan, gehienetan, lau izaten dira. Aldiz, zenbait galderaren kasuan, bi erantzun alternatibo eskaintzen dira batzuetan (egia/gezurra, bai/ez eta abar). Edonola ere, bakarra da zuzena. Gainerakoak (distragarriak) sinesgarriak izango dira; hau da, erantzun zuzenaren maila bereko aukerak izango dira, testuko informazioa abiapuntu gisa hartuta prestatutakoak eta, ahal den neurrian, ebaluatu nahi dugun adin horretako ikasleek egin ohi dituzten akatsak erakutsi beharko dituzte.

Ikuspuntu formaletik, diagnostiko ebaluazio probetan itemen oinarrizko lau mota proposatuko dira:

- *Erantzun itxiaren itema aukera anitzeko formatuarekin*. Item itxia ere deitu ohi zaio galdera bakoitzak aukera ugari eta zuzeneko erantzun bakarra baitu. Erraz eta modu objektiboan zuzentzea ahalbidetzen du. Horrenbestez, erantzun dikotomikoa duten galderak (zuzeneko erantzun bakarra dutenak) zein erantzunen eskala mailakatua duten itemak dira. Hori dela eta, erantzun zuzena, partzialki okerra den erantzun bat edo gehiago, eta erabat okerrekoa dena zein diren pentsatu beharko dugu. Eskala mailakatuko erantzunak dituzten item itxiak erabiltzearen aukerak, gainera, prestakuntzako ebaluazioak biltzen dituen xedeetara egokitzeko abagunea eskaintzen du. Izan ere, ikasleak eskatzen zaion konpetentzia hori baduen ala ez ikusi ahal izateko informazioa eskaintzeaz gain, horren garapen maila zein den jakin dezakegu, konpetentzia batean urria den alderdiaren eta behar dituen laguntzen edo errefortzuen inguruko informazio esanguratsua eskaintzen du.
- *Item erdi-itxia*. Informazioaren aurrean, ikasleak bi aukeren artean bat aukeratu behar duena da. Adibidez, taula batean hainbat baieztapen edo galdera agertzen dira eta hauen artean aukeratu behar du ikasleak: *bai/ez, egia/gezurra, ugaztuna/narrastia, Asia/Afrika, naturala/soziala* eta abar. Ikasleak bere ustez zuzena den erantzuna zirkulu batekin biribildu edo X batekin markatu beharko du. Kasu guztietan, erantzun zuzenen adibide bat eskainiko da ikasleei beren erantzunetan laguntzeko gida gisa (erantzun erraza aukeratu ohi da).
- *Eraikuntza laburreko itema*. Beste item mota batzuen bidez ebalua ezin daitezkeen abileziak ebaluatzen zuzendu ohi dira. Aukera ugariak dira: erantzuna idazteko, zerbait marrazteko, matematiketako eragiketa bat egiteko, eskema bateko tartekak betetzeko, grafiko bat egiteko eta abar eska diezaiokegu.
- *Item irekia*. Item mota horien ezaugarri nagusia erantzunen aukera handia onartzea da; haiek, zuzenak izan arren, egiten dituen ikaslearen arabera alda daitezke. Kalifikatzeko garaian subjektibotasun arazoa ekiditeko, item mota horiek txantiloia eta zuzenketako irizpide argiak izan ohi dituzte, desadostasunak ahal den gehien ekiditeko. Zuzenketen irizpideek erantzunak mailakatuko dituzte, zuzenak eta okerrak diren erantzunen arteko tarteko exekuzio mailak finkatuz.

Item irekiak ezinbestekoak dira neurri eta azpikonpetentzia batzuk zehaztasun handiagoz neurtu ahal izateko. Hori dela eta, derrigor izan behar dira horrelako ebaluazioaren zati. Hala ere, zuzenketaren inguruko III.4 atalean ikusiko dugun moduan, desadostasun maila gutxitzeko balorazio irizpideak zehazteko garaian ahalegin handia eskatzen duen item mota da. Gainera, ebaluazio honetan bezainbeste erantzunen zuzenketa egiteko baliabide ugari behar da (etapa bakoitzean 17.000 ikasle inguru). Arrazoi hori dela eta, kontuan izan beharko da irizpide multzoa itemak prestatzeko garaian:

- a) Alderdi bera item itxi baten bidez neur daitezkeenez, ez erabili irekia.
- b) Ahalik eta item itxien gutxien egiten saiatu behar da.
- c) Item ireki bat behar izanez gero, ahalik eta itxiena egiten saiatu behar da (hobea da item erdi-irekia, irekia baino).
- d) Proben zabalera gutxitu behar izanez gero, saiatu item irekien bidez egiten.
- e) Item ireki bat sartzeko, funtzionatuko duela eta behar dela jakin behar da.

### ■ **Itemak prestatzeko garaian, hizkuntza arloko zein alderdi izan behar da kontuan?**

Esperientziak esaten digunez, hizkuntza arloko alderdi guztiek izaten dute kontrolatzeko zaila den eragina ebaluazioetan. Zenbaitetan, itemak baldintzatu egiten ditu erabilitako hizkuntzak, nahiz eta gai zientifikoa, soziala edo beste mota batekoa izan. Kasu horietan, abilezia zientifikoa, adibidez, edo, batez ere, hizkuntza arlokoak ebaluatzen ari diren zalantza egon ohi da. Arrazoi hori dela eta, arreta handia izatea eta emaitzak eta gero egin ohi den interpretazioa oker dezaketen egoera txarrak ekiditea komeni da.

Arreta berezia jarri behar da itemak prestatzeko, aukeratzeko, testuak aukeratzeko edo egokitzeko, eta erantzun aukerak idazteko garaian, alderdi horiek denek baitute garrantzi handia ebaluazioetan. Hori dela eta, ezinbestekoak dira:

- Hiztegian eta sintaxian arreta berezia jartzea, ulermena ez zailtzeko edo erabiliko den etaparako ezegokia bihur ez dadin. Sintaxi apainegiak edo oso jasoa den lexikoak zailtasun handiagoa ematen die probei eta emaitza okerrak sor ditzake pertsonak idatzizko testuak ulertzeko garatu duen konpetentzia maila dela eta, nahiz eta beste konpetentzia mota batzuk neurtzea izan helburu.
- Ebaluazioaren xede diren ikasleen arabera, galderen testua eta formulazioa egokitzea Lehen Hezkuntzako 4. mailara edo DBHko 2. mailara. Edonola ere, batez ere hizkuntza arlokoak ez diren oinarriko konpetentziak ebaluatzen direnean, hemen agertzen diren alderdiek ez lukete itemen zailtasuna handitu beharko ez eta emaitzen interpretazioa aldatu beharko ere.
- Saiatu azalpen eta argibide argiak, zuzenak eta laburrak ematen.
- Saiatu esaldi luzeak, puntuazio zeinu gutxikoak eta “kontzeptuen gehiegizko karga” ez erabiltzen, testua edo galdera iluntzen baitute soilik.
- Aukeratu edo prestatu testu laburrak. Testu laburra, printzipioz, luzea baino hobea da; testua irakurtzeko behar den denbora gutxitzeari emango zaio lehentasuna.
- Ez da item baten zailtasuna handitu behar adin horretarako ezohikoak diren hitzak erabiliz.

Euskal Herrian egin ohi diren ebaluazio probetako alderdi esanguratsu bat itemen erabilera hizkuntza da (euskara eta gaztelania). Probetan euskara eta gaztelania ahal den modurik parekatuenean erabiltzen saiatu beharko dugu eta hizkuntza bat edo bestea erabiltzeak item baten zailtasun mailaren inguruko zalantzarik ez duela sortuko bermatu beharko dugu, emaitzen fidagarritasuna kalte ez dezan.

Arrazoi horiek direla eta, probetan erabili behar diren item guztiek izango dute aplikazio aurretik eta ondoren hizkuntzaren kontrol sakona proba pilotuan, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen kalitatea, irizpideen kontrastea eta ebaluatuko diren ikasleen adinerako egokiak direla bermatze aldera.

Arrisku horiek ekiditeko ezinbestekoa da urrats orokor batzuk jarraitzea eta, gainera, diagnostiko ebaluazioetan erabiliko diren materialak egiaztatzeko eta alderatzeko lan arretatsua egitea.

- Itemak prestatzeko garaian, euskarazko zein gaztelaniazko iturriak erabili beharko dira, item gehienak bi hizkuntza horietako batekoak ez izaten saiatuz bereziki: Testuak egokitzeko ahalegin handiak egin arren, litekeena da lan hori betetzeko zailtasunak sortzea zenbaitetan.
- Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak prestatzean, ahal den neurrian, bataren eta bestearen arteko antzekotasuna lortzen saiatu eta zailtasun maila nabarmen ezberdinak ez izatea bermatu beharko dugu, hizkuntza bakoitzak berezko dituen ezaugarriak erabiltzeari kalterik eragin gabe. Horretarako, beharrezkoa izango da bi bertsioak zorrotz berrikustea eta aplikazio pilotua egiteko garaian arreta berezia jartzea. Laburbilduz, bi hizkuntza horietako bat erabiliko duen ikasleak onurarik edo kalterik ez izaten saiatu beharko dugu, emaitzen interpretazioari fidagarritasunik ez diezaion.
- Hitzez hitzeko itzulpen edo bertsioak ekidin beharko dira, zailtasun handiagoa sortzen baitute. Izan ere, nahiz eta zuzenak izan, ez dira egokitzen hartzailaren adinera (ohikoa da itzulpen zuzenak topatzea, baina “jasoagoak” edo “jakintsuagoak” izan ohi dira, kateatutako esaldiak izan ohi dituzte...). Gauza bera gertatu ohi da “askeegiak” diren bertsioekin, bata bestea baino zailagoa izatea eragiten baitute.



- Era berean, jatorriz euskaraz eta gaztelaniaz sortu diren itemen kopuru baliokidea sortuko da eta haiek beste hizkuntzara itzuliko dira. Horri esker, bi hizkuntza horietako bat jatorrizko itemak eraikitzeke garaian ohikoa izatea ekingo dugu.
- Euskarazko bertsioetan, euskara batuaren arauak hartu beharko dira kontuan, baina arreta handia jarriko dugu estandarizatutako euskalkien aldeetara ohituta dauden ikasleek uler dezaten.
- Arreta berezia jarri beharko da fase guztien kalitatea kontrolatzen: hizkuntza batean lantzea, berrikustea, itzultzea, bi hizkuntzetako bertsioa berrikustea, beste pertsona eta teknikari batzuekin alderatzea, aplikazio pilotua, emaitzen interpretazioa hizkuntza arloko alderdien eraginaren ikuspuntutik, berrikuspen berria, zuzenketa edo itema baztertzea.
- Hizkuntza arloko arazoan aurkako neurriak proba diseinatzen hasten garen unetik hartu beharko ditugu, ahal den neurrian, gero adabakiak jartzen ibili beharrik ez izateko. Hori dela eta, itemak prestatuko dituzten pertsonak eskainiko zaizkien urratsak kontuan hartu beharko dituzte (irizpide argiak, pertsona guztientzat komunak eta argiak diren adibideekin). Itemak eraikitzen dituztenek behar adina kompetentzia izan beharko dute euskaraz zein gaztelaniaz, egon daitezkeen arazoak hasiera-hasieran detektatu ahal ditzaten. Adibidez, hizkuntza arloko baliabideak erabiltzea sinonimo gisa (item itxi baten erantzunen aukeretan); izan ere, hizkuntza baten kasuan egokiak izan edo laguntza eskain dezakete eta, beste hizkuntzaren kasuan, aldiz, baliteke ez egotea horrelakorik edo erantzuna zailtea.

### III.2.3. TESTUINGURUKO GALDESORTEN EZAUGARRIAK

Errendimendu probek ikasle bakoitzaren eta ikastetxe bakoitzaren, eta Euskadiko hezkuntza sistemaren inguruan eskaintzen dituzten datuak eta informazioak ez dira nahikoa izaten, proba batean lortutako banakako zein ikastetxearen emaitzak ez baitira horiek gertatu diren hezkuntza eta gizarte arloko ingurunearekiko independenteak. Proba bateko datuek eta emaitzek esanahi osoagoa eta egokiagoa eskuratu ohi dute testuinguruko aldagaiekin lotzen eta elkartzen direnean.

Nahiz eta ez den erraza esku-hartzen duten faktore eta aldagai guztiak eta haien benetako maila edo modua eza-gutzea (askotan zaila baita zenbait aldagaik errendimenduari duten lotura maila kausa edo efektua den jakitea), diagnostiko ebaluazio honek, 1.2 atalean adierazi dugun moduan, potentzialki emaitza onekin lotu ohi diren ingurune faktoreak identifikatzea eta faktore horien eta eskolako garapeneko proba batean eskuratutako puntuazioaren arteko erlazioa aztertzea du xedeetako bat.

Horren ezagutzak emaitzetan eragina duten aldagaiak zein diren jakiteko balio izateaz gain, ikasleek, ikastetxeak eta hezkuntza sistemak bere osotasunean eskuratu dituzten emaitzak hobetzeko izan dezake eragina.

#### ■ Zein da erabili nahi dugun azterketa eredu?

Diagnostiko ebaluazioaren azterketa ereduak ikuspegi sistemiko menderatzailea izango du gizarte eta hezkuntza arloko azterketetan. Horien arabera, gizarte erakundeak, gutxienez, aldagaien hiru kategoria mota biltzen dituzten sistema gisa uler ditzakegu: testuingurua/sarrera, prozesua eta produktua. Hezkuntza arloko ikerketa guztietan, aldagai eta faktore ugariak hiru kategorietako bati esleitu ohi zaizkio haien izaeraren eta hezkuntza jarduneko elementu ugariekin duten loturaren eta eraginaren arabera.



<b>Testuinguru/sarreraren aldagaiak</b>	Haien helburua azalpeneko erlazioak zehaztea da, emaitza jakin batzuen eta ikasleen eta ikastetxearen ezaugarri pertsonalen eta ingurunearen (famiarioa eta soziala) arabera. Ikasketa estimulatzen edo, aldez, zailtzen duten ezaugarriak eta faktoreak dira (famiarioen prestakuntza akademikoa, kultur ondasunak izatea eta kontsumitzea, ingurune soziolinguistikoa, maila eta abar). Aldagaien multzo hori aldatzeko ikastetxeek duten kompetentzia, oro har, nulua edo oso mugatua izan ohi da, baina proiektuak ezaugarri horiek bete ditzen, ikastetxeak hezkuntza arloko plangintza egitean kontuan izan behar dituen alderdiak dira.
<b>Prozesuko aldagaiak</b>	Haien helburua irakaskuntzako eta ikaskuntzako alderdirik esanguratsuenak identifikatzea da, emaitza jakin batzuk lortu ahal izateko. Hezkuntza ikastetxeetan, metodoetan, hezkuntza arloko planteamenduetan, erabilitako baliabideetan eta lotura duten alderdietan oinarritu ohi dira batez ere (adibidez, eskolako giroa). Aldagai horietan eragin handia du ikastetxeak, baina nolabaiteko egonkortasuna izan ohi dute. Hori dela eta, urteroko ebaluazioa denez, ez da beharrezkoa alderdi horien gaineko informazioa urtero biltzea.
<b>Produktuaren aldagaiak</b>	Emaitzak dira, absolutuak zein esperotakoak, eta hezkuntza komunitateko kideek agertzen duten gogobetetze maila ere biltzen dute.

Ebaluazio prozesu ugarian galdesortak aplikatzen dugun esperientziari esker eskain dezaketen informazioak duen garrantzia ezagutzea ahalbidetu duen arren, kopurua eta hedapena mugatu beharra dagoela ere erakutsi dute, askotan, eskatzen den informazioaren zati batek ez baitu izaten loturarik ebaluazioko emaitzak azaltzen laguntzeko garaian.

Arrazoi hori dela eta, ezinbestekoa da baliabideak eta ahaleginak ekonomizatzea, galdesortak egingo zaizkien pertsonak eta kolektiboak eta bakoitzak eskain dezakeen informazioa identifikatuz, emaitzak interpretatzeko duten loturaren arabera.


Aurrekoa kontuan hartuta, galdesortak prestatzeko garaian irizpide hauek hartu beharko dira kontuan:

- Galdesortek ez dute bikoiztuko iturri ugariatik jasotako informazioa, kasuren batean triangulaketa egitea egokitzat jotzen den kasuan izan ezik. Horretarako, jarraian aukeratutako kolektibo bakoitzak eskaintako informazioa abiapuntu gisa hartuta zein aldagai aztertu behar den zehaztuko dugu, dagokion aldagai horren inguruko informazioa eskaintzeko kompetentzia handiena dutenei dagozkien galderak proposatuz.
- Galderak, ahal den neurrian, itxiak izango dira, erantzun beharko dutenen ahalegina gutxitzeko eta zuzenketako eta azterketako lanak errazteko.
- Ikastetxearekin lotura duten aldagai batzuek duten egonkortasuna dela eta, ez da beharrezkoa izango haien inguruko informazioa urtero biltzea.
- Ahalegin guztiak galdesorta ugariak, ahal den neurrian, web bidez erantzutera edo erantzun ahal izatera zuzendu beharko dira.
- Abiapuntu gisa, nahiko txikia den aldagaien multzoa hartu beharko dugu. Elkarrekin irmoki lotuta egoteaz gain, emaitzen aldagarratasunaren inguruko zati handia erakutsi beharko dute.

Edonola ere, beharrezkoa da batez ere deskribapen arloko eredu dela kontuan izatea. Kasu horretan, batez ere, korrelazioen azterketa erabili beharko da eta ez da posible izango kausa-efektuaren erlazio argiak eta behin betikoak finkatzea, nahiz eta emaitzen eta aldagaien arteko lotura positiboak ikusi ahal izango diren. Eredua koherentzia metodologikoa interpretazio arloko soiltasunarekin bateratzea da, emaitzekin modurik egokienean elkartzen diren aldagaiak identifikatzea helburu duen proba testuinguruan.

### ■ Zein arloren gaineko informazioa bilduko da eta zein izango dira galdesorten hartzaileak?

Jarraian, behin-behineko testuinguru analitikoak agertzen da. Beste ebaluazio batzuetan egindako emaitzen eta azterketaren arabera, emaitzei dagokienez garrantzitsuak eta azalpena eskaintzeko ahalmena dutela uste den faktoreak eta aldagaiak biltzen ditu.



Erreferentzia gisa ebaluazioko esperientzia ugariak hartuz, nazioartean zein estatu mailan eta gure Komunitatearen arloan, funtsezkoa den testuinguruaren aldagaietako bat indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISE1) da. Ikasketen mailarekin eta gurasoen laneko egoerarekin lotura duten aldagaietatik abiatuta zein etxeko ondasun kulturaletatik eta beste hainbat ondasun izatetik abiatuta eraiki ohi da aldagaia (eguneroko prentsa, aldizkari espezializatuak, ordenagailua eta Internet...).

Indize sozioekonomiko eta kultural hori bi mailatan erabil daiteke: ikasle bakoitzaren indizea eta ikastetxe bakoitzeko ikasleen batez besteko indizea. Hezkuntza ebaluazio eta ikerketa arloko esperientziak agerian utzi du emaitzetan eragina duena ez dela ikaslearen banakako jatorri soziala bere horretan soilik, baizik taldearen edo ikastetxearen osasuna soziala<sup>9</sup>.

<sup>9</sup> PISAren ondorioetako bat, zehazki, hori da: ikastetxe bateko ikasleen osasuna sozialak hobeto aurreikusiko duela ikasleen errendimendua norbanakoaren ingurune sozialak baino. Horrek esan nahi du ikastetxeko ikasleen batez besteko indize sozioekonomiko eta kulturalak, banakoa-ekin konbinatuta, hobeto azaltzen dituela itxuraz ikasleen arteko aldeak banakako indizeak berak bakarrik baino.

Aurreko taulak zehaztutakoaren arabera, hurrengo taulan lortu nahi diren oinarritzko informazioak eta sartuko den gal-desortaren hartzailea agertzen dira:

Aldagaiak	GALDESORTAK				Aplikazioan jasotako datuak
	Ikasleak	Familia	Tutoretza	Zuzendaritza	
Sexua	DBH 2./LH 4.				x
Jaiotze data	DBH 2./LH 4.				x
Familiako hizkuntza	DBH 2./LH 4.				x
Geruza				x	x
Ondasun kulturalak izatea eta kontsumitzea	DBH 2./LH 4.	LHko 4.arekin parekatzea			
Familiaren maila akademikoa	DBH 2./LH 4.	Bi mailekin parekatzea			
Familiaren laneko maila	DBH 2./LH 4.	Bi mailekin parekatzea			
Interneteko konexioa	DBH 2./LH 4.				
Familiaren jatorria	DBH 2./LH 4.			x	x
Familiaren egitura	DBH 2./LH 4.				
Eskolatzearen hasiera	DBH 2./LH 4.	LHko 4.arekin parekatzea			
Autokontzeptua eta ahalegina	DBH 2./LH 4.				
Irakurketarekiko interesa	DBH 2./LH 4.				
Jarrera problematikoaren indizea	DBH 2./LH 4.				
Familiak hezkuntzan duen esku-hartzea	DBH 2./LH 4.				
Familiaren itzaropena	DBH 2./LH 4.				
Familiaren parte hartzea	DBH 2./LH 4.				
Familiaren asebetetzea	DBH 2./LH 4.				
Ikastetxearen neurria				x	x
Ingurune soziolinguistikoa				x	x
Talde bakoitzeko ikasleak				x	
Maila erreplikatzeko	DBH 2./LH 4.				
Aurreko ikasturteko notak	DBH 2./LH 4.				
Hizkuntza proiektua			x	x	
Hezkuntza metodologia			x	x	
Eskolako giroa	DBH 2. maila		x	x	
IKTen erabilera	DBH 2./LH 4.		x	x	
Prestakuntza eta berrikuntza			x	x	
Hezkuntza beharrak dituzten ikasleak		DBH 2./LH 4.	x	x	x
Taldeko lana			x	x	
Material didaktikoak			x	x	
Ikasketa denbora			x	x	
Irakaskuntzako esperientzia			x	x	

Ikus dezakegun moduan, informazioa galdesorta espezifikoaren bidez zein probak aplikatzeko prozesuan bilduko da. Azken kasuan, informazioaren zatirik handiena galdesortaren baten bidez baieztatuko da.

Hasieran, lau galdera sorta mota proposatu dira: ikasleak, familia, tutoretza eta ikastetxearen zuzendaritza. Aplikazio bakoitzean, zein galdera sorta erabiliko den erabaki beharko da informazioa jasotzeko eta garapenean dauden beste ikerketa batzuen beharren arabera.

Oro har, irizpide hauek jarraitu beharko dira:

- Urtero, galdesorta izango da ikasle bakoitzarentzat, aplikazio bakoitzean aldatu egiten baitira. Eskatzen diren datu batzuek (famiariaren indize sozioekonomikoarekin eta kulturalarekin lotura dutenak, bereziki) garrantzi berezia dute; hori dela eta, eskaintako informazioa jasoko dela eta zuzena izango dela bermatzeko prozedura finkatuko da.
- Ikastetxeko zuzendaritzari zuzendutako galdesorta ez da urtero aplikatu beharko; izan ere, oro har, eskatu ohi diren datuak egonkorak izan ohi dira. Hori dela eta, lehen aplikazioan ikastetxe guztietan erantzun beharko da eta, jarraian, aurreko ikasturtean erantzundako galdera sorta bidaliko zaie berriro eskatutako informazio berria osatu eta aldaketak egin ditzaten.
- Gainerako galdesortak (tutoretza eta famiariak) lortu nahi den informazioa ondorengo azterketetarako beharrezkoa bada soilik aplikatuko dira.

Azkenik, inplikaturako eragile ugariari irizpide hauen arabera aplikatuko zaizkie galdesortak:

- Ikasleei zuzendutako galdesortak errendimendu probak aplikatuko zaizkien egunetako batean emango zaizkie. Lehen aipatu dugun moduan, koadernotxoaren bidez edo ordenagailuan, web orri bidez osatu ahal izango dira.
- Irakasleei eta ikastetxeetako zuzendaritzari zuzendutako galdera sortak web orri bidezko prozedura telematikoa erabiliz erantzun ahal izateko moduan prestatuko dira.
- Famiari zuzendutako galdera sorta Lehen Hezkuntzan aplikatzeari dagokionez bi aukera daude: taldeko tutorea izatea galdera sorta famiariari emango diena, itzultzeko epe jakina ezarri, edo ikaslearen bidez egitea. Kasu horretan, ikasleak probaren aplikazioaren aurreko egunean eraman beharko du galdera-sorta (gure esperientziaren arabera, prozedura horren bidez galdesortak bete izanaren indize altua lortu ohi da).

### III.3. APLIKAZIO PROZESUA: EZAUGARRIAK ETA BALIABIDEAK

Atal honetan, funtsezkoak diren zenbait gai jorratuko dugu:

- *Zer fase izango ditu aplikazio prozesuak irakaskuntza ikastetxeetan?*
- *Zein giza baliabide eta baliabide tekniko behar dira proba horien kanpoko aplikaziorako?*
- *Zer antolaketa izango du aplikazio prozesuak eta zein irizpide hartuko dira kontuan?*
- *Antolaketa mailako zein lan eta neurri bete beharko dute ikastetxeek?*

Galdera horiei erantzuteko, beharrezkoa da aurreko ataletan zehaztutako ebaluazio ereduaren ezaugarriak kontuan hartzea. Hau da, jarraian agertzen den aplikazio prozesuak irakaskuntza ikastetxeen kanpokoak diren baliabideen bidez aplikaturako eta kontrolaturako ebaluazioaren eskakizunak betetzen ditu. Ikasle guztientzat ia erabat komuna den proba eredu biltzen du eta lehen aipatu dugun iraupena du.

### III.3.1. APLIKAZIO FASEAK

#### ■ Zer fase izango ditu aplikazio prozesuak irakaskuntza ikastetxeetan?

Prozesu hori modu egokian bideratu ahal izateko, ezinbestekoa da hurrengo grafikoan agertzen diren jardunbideak abian jartzea. Jardunbide horiek aplikazioaren aurretik, probak aplikatzeko garaian zein haren ondoren bideratu beharreko ekintzekin du lotura.

##### a) Prestaketako eta sentsibilizazioko fasea.

Oro har, ez dago Administrazioetik bultzatutako ebaluaziorako kulturarik eta ebaluazioen tradiziozko ebaluazio honetan eman nahi diogun prestakuntza zentzuarekin. Kanpoko ebaluazioak, derrigor, kontuen errendimenduko eta kontroleko funtzioekin du lotura eta horrek ikastetxeen mesfidantza eta errezeloa eragiten du. Horietan, lortutako ikasketako emaitzen irudi eskasa emateko beldurra sor daiteke.

Egin behar duten ebaluazioaren zentzuaren eta ezaugarrien inguruan hezkuntza komunitatea sentsibilizatuz hasiko da aplikazioaren prestaketa.

Ikastetxeetarako diagnostiko ebaluazio proben erabilgarritasunerako beharrezkoa da hauen inguruko errezelo mota guztiak kentzea: zer zentzuekin aplikatzen diren benetan, prozesu osoan eta aplikazioan bertan modu espezifikoan irakasleen beharrezko esku-hartzea nondik datorren. Betiere, ikasleen emaitza ona errazte aldera.

Arrisku horiek ekiditeko, honelako neurriak bultzatu beharko dira:

- **Hezkuntza komunitateari eman beharreko informazioa:** Proben aplikazioaren aurretik beti hezkuntza komunitateari zuzendutako informazioa gehitu beharko zaio ebaluazioaren zentzua argitzen eta egitera bultzatzen laguntzeko. Hainbat baliabideren bidez egindako hedapenez gain, hezkuntza administrazioak ikastetxeetako zuzendaritza taldeengana eta ebaluazioan esku-hartuko duten irakasle tutoreengana joko du beharrezko eta behar adinako informazioa eman ahal izateko.
- **Isilpekotasun bermea:** Hezkuntza komunitatearen sentsibilizazioaren zati batek, eta ebaluazioarekin lotura zuzena duten eragileek bereziki, emaitzen isilpekotasunaren eta hobetzearekin lotura eskusiboa duten helburuekin erabiltzearen bermea dute oinarri. Fase horretan, erabat argituta geratuko da eta ikasleek lortutako emaitzen arabera ikastetxeek betetzen duten posizioa biltzen duten sailkapenak ez direla egingo edo argitaratuko bermatu beharko da ziurtasun mailarik handienarekin.
- **Joerak eta urratsak:** Prestaketa fasean bete beharreko beste alderdi bat ebaluazioa egin ahal izateko joerak eta urratsak eskaintzea da. Ebaluazioa behar bezala gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da ikastetxeek, gutxienez, gai hauen inguruko informazioa izatea:
  - Ebaluatu beharreko konpetentzia bakoitzaren dimentsioak eta konpetentziak.
  - Probak aplikatzeko zehaztutako egutegia eta proben iraupena.
  - Erabili beharreko proben edukiak, ezaugarriak eta egitura, galdera moten adibideekin.
  - Aplikazioaren baldintza espezifikoak (ikastetxearen lanak, lokalen baldintza fisikoak, beharrezko ekipamendua, ikastetxearen lankidetzat...).
  - Ebaluazioaren ondorio gisa jasoko duten informazioa eta informazio hori erabiltzeko aukerak.
  - Hezkuntza komunitateko sektoreei eta, zehazki, familiei informazioa emateko dokumentazio ereduak.
- **Ikasleak probaren formatuarekin ohitzea.** Ikasleek ikasitakoa erakutsi ahal izan dezaten, oso garrantzitsua da diagnostiko ebaluazio probei nola erantzun behar zaien eta haiei erantzun beharko dieten eguna nolakoa izango den jakitea. Egin entseguak, batez ere Lehen Hezkuntzako 4. mailan, probetako egoera imitatuz (neska-mutilek ezagutzen ez duten aztertzaile bat, denbora mugatua eta abar) eta erabili antzeko formatua duen proba. Horrek proben aurrean haurrei urduri ez jartzen, erantzunen orri bat erabiltzeko teknika ezagutzen, eta eskatzen zaien ahaleginari

balioa ematen lagunduko die. Horri esker, proba egunean ez dute oztoporik topatuko dakiten eta egin dezaketen guzti hori erakutsi ahal izateko.

- **Zuzeneko informazioa:** Aurretiazko fase horren informazio osoa zuzenean eskainiko da Sailak eremu hartan dituen langileen bidez (Ikuskapena eta Berritzegune).

#### *b) Aplikazioaren eta azterketaren fasea*

Probak aldi berean aplikatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan eta Hezkuntza Administrazioak aurrez ikusitako egutegi komunaren arabera egingo dira. Egutegi horren salbuespenek (udalerrri bakoitzeko irakaskuntzako egutegiaren berezitasunen arabera) ahalik eta desfaserik txikiena sortu beharko dute ikastetxeen orokortasunean egindako aplikazioaren gainean.

Aplikazioa Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako talde guztietan egin beharko da. Probak beren ikastetxeetan eman beharko zaizkie, aurrez zehaztutako ekipamenduko edota ezaugarri fisikoen baldintzak betetzen dituzten lokaletan, eta aldi berean dagokion ikastetxeko talde guztietan.

Aplikazioak behar bezala funtzionatu ahal izateko faktore garrantzitsua da ikasleak motibatzea probei erantzuteko garaian. Probak aplikatzeko garaian, ikastetxeak hartuko du ebaluazioa dedikazio, arreta eta interes mailarik handienekin egiteak ikastetxearentzat zein ikasleentzat duen interesa nabarmentzeko ardura, nahiz eta ikasleen etengabeko ebaluazio prozesuan emandako kalifikazioan eraginik ez izan.

Aplikatzaileek behar adinako aurrerapenez emango zaizkien aplikazioko urratsak eta argibideak zehatz-mehatz jarraituz bete beharko dute beren lana. Aplikazio garaian, ikasgeletan ohikoak diren neurriak hartu beharko dira edozein proba behar bezala garatu dela bermatzeko.

#### *Aplikazioaren kalitatea kontrolatzea*

Aplikazio eredu horretan, zati bat kanpotik aplikatuta, ezinbestekoa da prozesu osoaren kalitate kontrola egitea, nazioarteko eta nazio baitako ebaluazio gehienetan gertatu ohi den moduan.

Ebaluazio osoaren kalitate kontrola hezkuntza arloko ikuskapen teknikoko langileek egingo dute eta, beharrezkoa izanez gero, ISEI-IVEIko langileen laguntza jaso ahal izango dute.


Helburua ebaluazio irizpide guztiak errespetatu eta aplikazioko tresnak erabiltzen direla egiaztatzea eta hezkuntza ikastetxeak prozesu osoaren informazio guztia duela ziurtatzea da.

Kontrol hori zuzenean egingo da eremu bakoitzean; horretarako, aplikazioaren kalitate kontrola egiteko ikastetxe eta taldeen kopuru bat aukeratu beharko da (ehuneko horrek ezingo du taldeen %15 baino handiagoa izan).

Aplikazioa amaitu ostean, ISEI-IVEIk, kontratatutako pertsonen bidez, bere gain hartuko du proba bakoitzeko item iriak zuzentzeko lana (alderdi hori III.4 atalean agertzen da modu espezifikoan zehaztuta). Horretarako, aurrez zehaztutako zuzenketako eta puntuazioko irizpideak eta esleitutako puntuazioak sartzeko dagozkion datu baseak erabili beharko dira.

#### *c) Hobetze fasea*

Datuak zuzendu, garbitu eta emaitzak aztertu ostean, ikastetxeek haiei dagozkien datu guztiak jasoko dituzte Hezkuntzako Ikuskapen Teknikoaren bidez eta horrek dokumentu honen IV. kapituluan agertzen den hobekuntza prozesua jarriko du abian.



### III.3.2. KANPOKO APLIKAZIORAKO BEHARREZKO BALIABIDEAK

Aplikazio honen eskakizunak osotasunean jaso ahal izateko, beharrezkoa da urtero ebaluazioan parte hartuko duten ikastetxeen, taldeen eta ikasleen kopurua ezagutzea. Jarraian, datuak 2005-2006 ikasturteari dagozkion hezkuntza-ko etapen, lurraldeen eta sareen arabera agertzen dira eta ikus dezakegun moduan, beste ikasturte batzuetako datuekin alderatuta, ezberdintasunak ez dira nabarmenak:

	Lurraldeak	Sarea	Ikastetxe kopurua	Talde kopurua	Ikasle kopurua
<b>Lehen H. 4. maila</b>	Araba	Publikoak	50 (1 LH+DBH)	73	1.318
		Hitzartuak	26 (1, LH bakarrik)	50	1.110
	Bizkaia	Publikoak	164 (1 LH+DBH)	221	4.056
		Hitzartuak	106 (3, LH bakarrik)	205	4.651
	Gipuzkoa	Publikoak	105	156	2.810
		Hitzartuak	79 (10, LH bakarrik)	144	2.943
		Publikoak Hitzartuak	319 211	450 399	8.184 8.704
	<b>Lehen Hez. guztira</b>	<b>530</b>	<b>849</b>	<b>16.888</b>	
<b>DBHko. 2. maila</b>	Araba	Publikoak	15 (1 LH+DBH)	55	1.104
		Hitzartuak	27 (3, DBH bakarrik)	62	1.427
	Bizkaia	Publikoak	69 (1 LH+DBH)	218	4.080
		Hitzartuak	106 (3, DBH bakarrik)	223	5.339
	Gipuzkoa	Publikoak	46	131	2.516
		Hitzartuak	74 (5, DBH bakarrik)	147	3.232
		Publikoak Hitzartuak	130 207	404 432	7.700 9.998
	<b>DBH guztira</b>	<b>337</b>	<b>836</b>	<b>17.698</b>	
<b>GUZTIRA</b>			<b>867<sup>10</sup></b>	<b>1.685</b>	<b>34.586</b>

Taula: 2005-2006 ikasturteko datuak

Ikus dezakegun moduan, DBHn Lehen Hezkuntza baino %30 ikastetxe gutxiago dauden arren, ikasleen zein taldeen kopurua oso antzeko da. Kasu ugarian, hitzartutako eskolek bi etapetako ikasleak eskolatu ohi dituzte eta sare publiko ikastetxeen kasuan, hori ez da horrenbestetan gertatzen.

Ikasturte bakoitzean, horrenbestez, behar adina langile beharko dira 1.700 talde ingurutan aplikazioa bideratu ahal izateko. Pertsona horiek behar adina hizkuntza arloko kualifikazio eta prestakuntza tekniko izan beharko dute (aurre-ago azalduko dugu zein den) lehen aipatutako funtzio horiek bete ahal izateko.

Aplikazioan, irizpide hauek errespetatu beharko dira:

<sup>10</sup> Kontuan izan behar da ikastetxe hitzartu ugari eta ikastetxe publiko batzuek bi etapetako ikasleak dituztela eskolatuta; hori dela eta, taulan agertzen den guztizko ikastetxeen kopurua ez da ikastetxe ezberdinei dagokiena.



- Talde bakoitzean, aplikazioak bi goiz iraungo du III.1 atalean agertzen den moduan. Ikastetxe bakoitzeko ordutegi espezifikoak egokitu ahal izango da, baina aplikazio bakoitzean ezagutarazitako irizpide orokorrak errespetatuz.
- Ikastetxe bakoitzean, egun beretan aplikatu beharko da maila bereko talde guztietan, oro har, barneko multzoak errespetatuz.
- Ikastetxe batek ebaluazio honen xede diren bi mailetako ikasleak eskolatzen dituenean, hasiera batean, ez da beharrezkoa izango bi etapetan aplikazio egunek kointziditzea.
- Etapa bakoitzean, aplikazioaren iraupenak ezingo du gehienez bi aste baino gehiagokoa izan (aplikazioko 10 astegun). Edonola ere, bi etapen artean batutako aplikazioak ezingo du izan hilabete baino gehiagokoa.
- Etapa bakoitzeko aplikazioa ondoz ondoko izan edo modu paraleloan egin ahal izango da; hau da, maila bereko ikastetxe guztietan aplikazioa egin eta gero beste maila batean oinarritu ahal izango dira, edo Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleak ikastetxe askotan eskolatzen direla aprobetxa dezakegu aplikazioa elkarrekin antolatu ahal izateko.

Aurreko datuak eta irizpideak oinarri gisa hartuta, maila batean aplikazioa garatzeko behar den pertsona kopurua hau da:

	LHko 4. maila	DBHko 2. maila	GUZTIRA
Taldeak	849	836	1.685
Aplikazio egunak (talde kopurua x 2 egun)	1.698	1.672	3.370
Aplikazioko 10 egunetarako beharrezko aplikatzaile kopurua (2 aste)	170	167	337
Aplikazioko 20 egunetarako beharrezko aplikatzaile kopurua (4 aste)	85	85	170

Pertsona horien guztien aplikazioa eta koordinazioa egiteko, pertsona hauek beharko dira:


Pertsona	Beteko duen lana
<b>Koordinatzaile nagusia</b>	Aplikazio osoaren prestaketa eta garapena koordinatzen eta aplikazioko koordinatzaileak zuzentzen dituen pertsona da. Era berean, ISEI-IVEIrekin etengabeko harremanetan dagoen pertsona da.
<b>Aplikazio taldeen koordinatzaile</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Aplikazioa garatzeko antolatu ohi diren aplikatzaileen taldeetako bakoitza zuzentzen duten pertsonak dira.</li> <li>· Aplikatzaile bakoitzaren lana aplikazio garaian, aurretik eta ondoren kontrolatzen eta gainbegiratzeko dutenak dira.</li> <li>· Aplikatzaileen taldearen prestakuntza bermatu, beren lana ezarritako irizpideen arabera behar bezala egin dutela aztertu eta aplikazio garaian erabili ohi diren dokumentu eta fitxa guztiak behar bezala eta osorik bete direla gainbegiratu behar dute.</li> <li>· Azkenik, aplikazioan erabilitako material guztiaren kontrola ziurtatu behar dute.</li> </ul>
<b>Aplikatzailea</b>	<p>Ikastetxean aplikazioa zuzenean egiten duen pertsona da. Talde bakoitzean dituzten funtzioak eta lanak hauek izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Aplikazioetarako beharrezko prestakuntza jasotzea (prozesua ulertzea, proben garapena azterzea, antolaketa alderdiak, saioa zuzentzea, gidioa ezagutzea, kontrol fitxak, materiala prestatzea eta jasotzea eta abar).</li> <li>· Ikastetxearekin harremanetan hastea.</li> <li>· Ikastetxearekin adostea aplikazioko baldintza guztiak (ordutegi eta data espezifikoak, inplikaturako pertsonak, taldea, ikasleak, baliabideak eta ekipamendua, lokalen ezagutzea...).</li> <li>· Bisita personala egitea ikastetxeko zuzendariari edo koordinatzaileari aplikazio egunaren aurretik.</li> <li>· Aplikaziorako material guztiak prestatzea, kodetzea eta antolatzea (koadernoak, etiketak eta zerrendak identifikatzea, eta aplikazio kutxak prestatzea).</li> <li>· Materialak garraiatzea ikastetxeraino eta ikastetxetik aplikazio egunean.</li> <li>· Dagokion mailako talde bakoitzeko ikasle guztiak proba egin dutela kontrolatzea.</li> <li>· Aplikazioa egitea ezarritako arauen arabera, denborak kontrolatuz eta zehaztutako prozedurak jarraituz.</li> <li>· Parte hartzeari buruzko informazioa erregistratzea kontrolleko fitxetan.</li> <li>· Materialak jasotzea, kontrolatzea eta antolatzea proba amaitu ostean eta ebaluazioko talde koordinatzaileari itzultzea.</li> <li>· Aplikazioko datu guztiak sartzea dagokion datu basean.</li> <li>· Hizkuntza konpetentziaren probako idazketa lanetako hitzen kopurua zenbatzea.</li> <li>· Dagozkien kalitate kontrolak osatzea.</li> </ul>

Pertsona	Beteko duen lana
<b>Kalitate kontrolatzailea</b>	Ikastetxe kopuru jakina igaroko duten pertsonak dira eta haien lana probetako urrats guztiak behar bezala aplikatu direla kontrolatzea da. Edozein unetan eta aplikazioa egingo duen edozein ikastetxetatik igaro ahal izango dute. Kalitatearen kontrol hori, lehen aipatu dugun moduan, Hezkuntza Ikuskaritza Teknikoko langileek egingo dute eta, beharrezkoa bada, ISEI-IVEIren laguntza izango dute.
<b>Aplikazioaren koordinatzailea ikastetxean</b>	Ikastetxeetan harremana izateko egongo den pertsona da, eta aplikazioa behar bezala garatzeko beharrezkoak diren harremanak harekin mantendu beharko dira. Kasu guztietan, ikastetxeak izendatutako pertsona izango da. Gainera, gehienetan, hobekuntza prozesuan zehaztutako diagnostiko ebaluazio batzordeko kide izango da.

### III.3.3. APLIKAZIOAREN GARAPENA

Ebaluazio hau garatzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kanpoko erakunde bat kontratatuko du, lehiaketa publiko bidez. Erakunde horren eginkizuna aplikazioa gauzatzea izango da, dokumentu honetan adierazitako irizpideei eta dagokion kontratazioaren baldintza teknikoek pleguan zehaztutako diren bestelako jarraibide guztiei zorrozki jarraituz.

ISEI-IVEIk zuzendu eta gainbegiratu du aplikazioaren prozesu osoa, eta prozesu hori garatzeko, kontratatutako erakundeak ondoko grafikoan azaldu den antolaketa proposamenari eta jarraian adierazi diren urratsei jarraitu beharko die:



#### a) Ikastetxeetan proben aplikazioa prestatzea

- Aplikaziorako “taldeko koordinatzaileak” aukeratzea. Aplikatzaileen taldea zuzendu eta koordinatuko dute. Ezaugarri hauek izan beharko dituzte: esperientzia ebaluazioetan edo galdeketetan, pertsonak zuzendu izana eta gauzatu beharreko lanaren ikuspegi orokorra izatea. Beharbada, enpresa aplikatzaileko profesionalak izango dira pertsonarik egokienak.
- Aplikatzaileen aukeraketa. Ezaugarri hauek izan behar dituzte:
  - Lanbideko prestakuntza edo ikasketa maila: ez dute nahitaez lanbideko prestakuntza oso handia izan behar;

unibertsitateko ikasleak ere izan daitezen gomendatzen da. Baina lanak berekin dakartzan zereginak eta erantzukizunak ikasteko gai izan behar dute, eta emango zaizkien jarraibideei hertsiki jarraituz gauzatu behar dituzte.

– *Ahozko komunikazioa euskaraz eta gaztelaniaz erraz menderatu behar dute.*

- *Taldeko koordinatzaileen prestakuntza:* prestakuntza hori ISEI-IVEIk emango du, eta prestakuntzan aplikaziorako eskuliburuak eta aplikazioan erabili behar diren askotariko tresnak aurkeztuko dira.
- *Aplikatzaileen prestakuntza:* prestakuntza hori taldeko koordinatzaileek emango dute, eta beharrezko irizten dioten iraupena izango du. Aplikazioaren prozesuak, saio bakoitzeko aplikazioaren garapena eta kontrol tresnen erabilera sakonduko ditu prestakuntzak, aplikazio guztiek ikastetxe guztietan antzeko parametroei jarrai diezaizten lortze aldera.
- *Aplikazioaren materiala gordetzea:* Aplikazio materiala (probak eta galdesortak) enpresak horretarako zehaztuko duen tokian emango da, eta une horretatik erabilitakoak digitalizatuko dituen enpresara bidali arte eta gainerakoak bere garaian adieraziko den tokira eraman arte, kontratatutako enpresak izango du haiek zaintzeko ardura. Horrela, material guztia babestuta izango da eta non dagoen jakin behar da une oro.
- *Bisita ikastetxera, aplikaziorako baldintzen berri ematea:* Aurkezteko deia egin ondoren, ikastetxean esku hartuko duen aplikatzaileak edo, aplikatzaile batek baino gehiagok esku-hartuko badu, gutxienez haietako batek, bisita egingo du ikastetxe guztietara. Bilerak horrek hainbat helburu izango ditu: ikastetxeari eta irakasleei dagozkien galdesortak ematea, aplikazioaren baldintzak adostea, ebaluazioan parte hartuko duten ikasleen zerrenda edo zerrendak aztertzea, aplikaziorako datarik egokienak zehaztea, aplikazioa behar bezala egin dadin beharrezko baldintza guztiak betetzen direla bermatzea eta aurrez zehaztutako baliabide guztiek funtzionatzen dutela egiaztatzea.
- *Aplikazioko materiala prestatu eta kodetzea:* aplikatzaile bakoitzak aplikazio egunetan erabiliko duen material guztia prestatu behar du (galdesortak, errendimendu probak eta kontrol fitxak). Material horretako elementu bakoitzak ikastetxeko kodearen eta ebaluazioan parte hartuko duen ikaslearen kodearen bitartez identifikatuta izan behar du.

## b) Ikastetxeetan proben aplikazioa garatzea

- *Berehalako arretarako telefono ikastetxea abian jartzea* aplikazio aldian telefono bat eta, gutxienez, libre dagoen pertsona bat izan behar da ikastetxeetan sor litezkeen arazoei eta zailtasunei konponbidea emateko. Zerbitzu hori berezia izango da eta berariaz indartuko da aplikazio egunetan. Halaber, beharrezko baliabideak izan behar dituzte, aplikazioan zailtasunak gertatzen direnerako.
- *Kalitate kontrola:* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko zerbitzuek gauzatutako kalitate kontrolaz gain, gutxienez ikastetxeen %10ean, enpresa aplikatzaileak ikuskatzea gauzatu behar du aplikazioa behar bezala eta zehaztutako jarduera irizpideekin eta arauekin bat egiten ari dela kontrolatzeko. Aplikazio hori ikastetxean bertan eta aplikazio taldeetan gauzatu behar da.
- *Materiala ikastetxera eramatea:* aplikazio egun bakoitzean, aplikatzaileek aplikazioko materiala eraman eta zainduko dute. Probetako material guztia isilpekoa da eta aplikatzaileak kontrolpean izan behar du une oro. Orobat, ez du utziko inork eraman edo erabil dezan aplikatzailea bertan izan gabe, eta ez du utziko inolako bitartekoen bidez inork haren kopiak egin ditzan (fotokopiak, grabazioak, argazkiak...).
- *Aplikazioaren segimendua:* aplikazio egunetan, enpresa aplikatzaileak etengabe kontrolatu behar du ikastetxe guztietan ari direla probak gauzatzen, eta sor litezkeen arazoak konpontzen saiatu behar du.
- *Aplikazioko kontrol fitxak betetzea:* aplikazioko saio bakoitzean, aplikatzaileak segimendu fitxa bete behar du. Fitxa horretan aurreikusitako ikasle guztiak etorri diren eta parte hartu duten jasoko du, kodeak bat datozela kontrolatuko du eta pertsona berak gauzatutako proba guztietan ikasleak identifikatuko ditu. Halaber, saioan zehar eta saioak bukatzen direnean, ordutegiak eta sortu ahal izan diren gorabeherak jasoko dituen aplikazio fitxa bat osatuko du.
- *Erabilitako materiala aztertu eta biltzea:* saio bakoitzean, ikastetxetik irten aurretik, beharrezkoa izango da ikastetxera eraman den material guztia bilduta dagoela eta aplikatzaileak material guztia biltzeko ezarriko den ikastetxera itzuli duela bermatzea.
- *Ikastetxeari eta irakasleei dagozkien galdesortak biltzea:* Behin ikasleekin gauzatu beharreko saioa bukatu denean, bisitaren egunean emandako ikastetxeari eta irakasleei dagozkien galdesortak bilduko dira.

- *Errekuperazio saioak*: probak aurreikusitako ikasleen %80 baino ikasle gutxiagok egin dituzten taldeetan berriz joan beharko da ikastetxera, eta errekkuperazio-saioa egin beharko da, gutxienez, ehuneko horretara iristea bermatuko duen ikasle-kopuru nahikoarekin. Nolanahi ere, probak egingo dituzten ikasleen ehuneko osoak ez du izan beharko ebaluazioaren lagin osoaren %85 baino txikiagoa.

#### c) Materialaren kontrola

- *Materiala ordenatu eta paketatzea*: behin aplikazioak bukatu direnean, material guztia ordenatuko da ezarritako irizpideei jarraituz, paketatuko egingo da eta digitalizazio ikastetxera bidaliko da.
- Aplikazio bakoitzean erabilitako *material guztia eramango da* kasu bakoitzean adieraziko den egoitzara.
- Aplikazio informatikoan erabilitako *segimendu eta kontrol fitxak grabatzea*, helburu horretarako ezarritako den web bidez.

#### Aplikazioaren amaiera

- *Aplikazioaren azken txostena* izandako gorabeherari eta abarri buruzkoa: Enpresa aplikatzaileak aplikazioaren garapenaren azken txostena egin beharko du. Txosten horretan izandako gorabeherak jaso beharko dira, eta baita hobetzeko proposamenak ere, etorkizunean antzeko gorabeherarik izan ez dadin.

## III.4. DIGITALIZAZIOA, PROBAK ZUZENTZEA ETA DATUEN ANALISIA

Proba eta galdesorta guztiak aplikatu ondoren, garrantzi handiko barneko fasea hasiko da. Fase horrek hiru fase ditu, III.5. atalean aurkeztu diren txosten motak egitera garamatzatenak. Hauek dira hiru faseak:

- a) Materialaren sailkapena eta erantzun orrien digitalizazioa.
- b) Item irekien zuzenketa.
- c) Datuen analisia.

ISEI-IVEIk zuzendu eta koordinatuko ditu hiru eginkizun horiek. Dagokien lana gauzatzeko berariaz kontratatutako kanpoko langileek garatuko dituzte lehen biak.

### III.4.1. SAILKAPEN PROZESUA ETA DIGITALIZAZIOA

Orain arte egindako ebaluazioetan, ikasleek beren koadernoetan erantzun izan diote probari, erantzun orrietan erantzun ordez. Item irekien erantzunak eskuz grabatu izan dira datu base batean, eta galdera irekiak koadernoan bertan zuzendu izan dira. Prozedura horrek, baina, hainbat arazo eta eskakizun logistiko ekarri ditu (materiala lekuz aldatu beharra, koaderno guztiak kontrolatu beharra, zuzenketa egiteko egoitza komuna behar izatea...).

Gaur egun, prozesu hori gauzatzeko prozedura zehatz, arin eta eraginkorra kaptura digitala edo erantzun orriak digitalizatzea da. Abantaila hauek ditu, besteak beste:

- Denbora asko aurrezten da.
- Kalitatea: hutsegite tasa nabarmen baxuagoa da beste edozein prozedurarekin alderatuz.
- Aurrezteak: nabarmen aurrezten da ekipamenduari, langile kopuruari eta eremu fisikoari dagokienez; izan ere, ez da beharrezkoa, digitalizatu ostean, erabilitako material guztia gordetzea edo biltegiatzea.

- Erraztasuna erabilera fisikoan eta irisgarritasun handiagoa, edozein informazio mota oso azkar bilatzea eta hutsegiteak datuak garbitzeko unean konpontzea ahalbidetzen baitu.

Lan hori gauzatzeko, konpetentzia, esperientzia eta segurtasun nahikoa duen kanpoko enpresa bat kontratatuko da. Horrela, lanaren kalitatea bermatuko da.

Prozedura horrek erantzun orri guztiak disko gogor bakarrean biltzeko aukera ematen du, eta edozein tokitatik Internet edo Intranet bidez eskura daitezke. Betetako erantzun orri guztiak digitalizatu egingo dira, eta bi datu base sortuko dira:

- Lehenengo datu baseak erantzun orri guztiak hartuko ditu, eta datuak berriz aztertzeko eta garbitzeko balioko du.
- Bigarrenean, berriz, galdera irekiak baino ez dira sartuko, irudi gisa, eta zuzenketarako balioko du.

### III.4.2. ZUZENKETA PROZESUA

Probetako itemen zuzenketa galderen formatuaren arabera aldatzen da. Aukera anitzeko galderak automatikoki zuzentzen dira, ez da pertsonen esku-hartzerik behar. Programa konputazional batek aztertuko du ea ikasleek galdera bakoitzean aukera egokia markatu duten.

Hala ere, proba bakoitzeko item irekiak zuzentzea da elementu zailenetakoa, bereziki ebaluatu beharreko ikasle-kopurua hain handia denean (gutxi gorabehera 17.000 ikasle, etapa bakoitzeko); hau da, proposatuko den item ireki bakoitzeko 17.000 zuzenketa inguru egitea planifikatu beharko da, etapa bakoitzean.

Lehenago 51. orriko taulan aipatu den bezala, proba bakoitzeko item irekien zuzenketa da VI. fasean sartutako lehenengo etapa. *Emaitzak aztertzea eta interpretatzea.*

Lehenago ere adierazi den bezala, errendimendu proben ezaugarriak deskribatzean, probetan lau galdera mota sartu direla ikus daiteke:

1. Item itxiak. Denak automatikoki zuzenduko dira eta, beraz, ez dira kontuan hartuko atal honetan.
2. Item erdi-irekiak:
  - Zuzenketa automatikoa (zenbaki bat, datu bat...).
  - Zuzenketa erraza, ez espezializatua eta azkarra: esaldiak lotzea, hitzak gehitzea...
3. Item irekiak:
  - Erantzun laburrekoak, erraz muga daitezkeen zuzenketa irizpideekin.
  - Erantzun luzekoak (bi edo hiru lerroko idatzizko ekoizpenak).
4. Idatzizko ekoizpenak, hizkuntza konpetentzietan:
  - Laburrak, 40-50 hitz ingurukoak, 2 edo 3 zuzenketa irizpiderekin.
  - Luzeak, 100 hitz ingurukoak, 4 edo 5 zuzenketa irizpiderekin.

Atal honetan berriaz hitz egingo dugu item irekien eta idatzizko ekoizpenen zuzenketa prozesuaz.

Erantzun orri guztiak digitalizatu ondoren, hainbat probatan sartu diren item irekien zuzenketa ordenagailuz egingo da, linean eta pantailan, berriazko softwarea erabiliz. Horrela, ez da inolako materialik lekualdatu beharko, eta ez da nahitaezkoa izango zuzentzaile guztiak egoitza edo toki berean izatea, prestakuntza eta ikuskatze aldietan salbu; izan ere, Interneteko sarbidea izango den edozein tokitan egin ahalko da zuzenketa lana.

Zuzenketa itsua izango da, alegia, anonimoa izango da, eta zuzentzaile bakoitzak sartzeko kode pertsonal bat izango du, dagozkion itemak zuzen ditzan. Orobat, puntuazioa jartzea ere ordenagailuaren bitartez egingo da. Zuzenketak egi-

teko kontratatu den enpresaren eginkizuna izango da bermatzea zuzentzaileek baino ez dituztela erabiliko sartzeko kodeak.

lido horretan, ebaluazio prozesu honetan guztian bada elementu garrantzitsu bat, prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiek isilpekotasun osoa izango dutela nahitaezko beharrarekin zerikusia duena bermatzeko, bai erabilitako galde sortei eta errendimendu probei dagokienez, bai lanerako irizpide eta prozedura guztiei dagokienez, bai eta diagnostikoko ebaluazio horri loturiko edozein alderdiri dagokienez ere.

Urrats eta irizpide hauek bideratuko dute zuzenketa prozesua:

- **Zuzentzaileen aukeraketa;** ezaugarri hauek bete beharko dituzte: Funtsean, zuzenketa irizpideei behar bezala jarraitzeko gai izango diren unibertsitateko ikasleak izan daitezzen gomendatzen da, irizpide horiek aplikatzea ahalik eta baliokideena eta egonkorrena izan dadin lortze aldera. Zuzentzaile guztiek behar bezala menperatu behar dute euskarazko eta gaztelaniazko idatzizko ulermena; horretarako, zuzentzaileen ehuneko esanguratsu batek EGA agiria duela ziurtatu beharko du.
- **Zuzenketaren iraupena:** Zuzenketa lanak ez du lau asteko epea gainditu behar (hilabete, gutxi gorabehera), erantzun orri guztien digitalizazioa bukatzen den unetik hasita. Denbora aldi horren barnean izango da prestakuntza. Nekearen ondorioz gerta daitezkeen hutsegiteak saiheste aldera, zuzentzaile bakoitzak ez du egun berean 6 ordu baino gehiagoz zuzentze lanean aritu beharko.
- **Zuzentzaileen prestakuntza:** ISEI-IVEIk izango du item irekiak zuzenduko dituzten zuzentzaileen prestakuntzaren ardura. Prestakuntza horrek bi eguneko iraupena izango du gutxi gorabehera.
- **Arreta iraunkorreko zerbitzua:** ISEI-IVEIk kontsultak egiteko eta zalantzak argitzeko arreta zerbitzua jarriko du zuzentzaileen esku, posta elektronikoaren eta skype programaren bitartez. Horri esker, zuzentzaileek berariazko aholkularitza izango dute zuzenketa prozesuan zehar.
- **Zuzentzaileen lana gainbegiratzea:** Zuzenketa egunetan, zuzentzaile bakoitzak zuzendutako materialaren bi egiaztatze egingo dira gutxienez, eta egiaztatze horien inguruko txostena eta beharrezko diren iradokizunak bidaliko zaizkio. Oso alde handiak izanez gero, zuzentzaileak gainbegiratze saiora joan beharko du, eta entrenamendua egin beharko du.
- **Galdera irekien zuzenketa:** galdera irekien zuzenketa enpresak ezarritako tokietan egingo da (zuzentzaileek beren etxetik egin ahaliko dute), eta informazioaren isilpekotasuna bermatuko da beti.
- **Zuzenketa bikoitza:** Zuzentzaile berberak gutxienez zuzendutako itemen %25en zuzenketa bikoitza egingo dute.
- **Zuzenketaren azken txostena,** izandako gorabeherari eta antzekoei buruzkoa: Enpresa aplikatzaileak zuzenketaren garapenaren inguruko azken txostena egin beharko du. Txosten horretan izandako gorabeherak jasoko dira, baita etorkizuneko zuzenketetan sartzeko hobetzeko proposamenak ere.

### Zuzenketa irizpideak

Egin eta erabiliko diren zuzenketa irizpideek jarraibide jakin batzuei jarraitu beharko diete:

- Argiak eta zehatzak izan behar dute.
- Adibideak izan behar dituzte.
- Erraz ulertu eta azaltzeko modukoak izan behar dute.
- Adiera bakarra izan behar dute.
- Berehalako kontsultarako sarbidea izango dute (linean).
- Gero eta adibide gehiago izan beharko dituzte, jasotako galderen arabera.
- Zuzenketarako prestakuntza (edo norberaren prestakuntza) eman behar dute.

### III.4.3. ZUZENKETARAKO BEHARREZKO BALIABIDEAK

Zuzenketarako beharrezko baliabideak, funtsean, probetan sartuko diren item ireki eta erdi-ireki kopuruaren arabera zehaztuko dira. Aurreikuspen orok nolabaiteko mugak dituen arren, eta probetan hainbat motatako itemak sartzeko interesa dagoela eta (besteak beste, mota horretako itemek irakaskuntzan aztertzea interesgarriak diren alderdietan eredu gisa eragina dutelako), komenigarria da hurbilketa bat izatea.

Hau da behin betiko probetan alderdi honen inguruan egin daitekeen aurreikuspena<sup>11</sup>:

Konpetentzia	Item ireki kopurua
Euskarazko hizkuntza konpetentzia	2 idazlan Erantzun laburreko 2 item
Gaztelaniazko hizkuntza konpetentzia	2 idazlan Erantzun laburreko 2 item
Matematika konpetentzia	Erantzun laburreko 2 item
Konpetentzia zientifikoa, teknologikoa eta osasunerakoa	Erantzun laburreko 3 item

Item irekiak zuzentzean beharrezkoa izango da kalitate-kontrola aplikatzea. Kalitate-kontrollean gutxienez koadernoaren %25en zuzenketa bikoitza egingo da, eta zuzenketa kontrol hori sartu diren galdera ireki guztietan gauzatu da. Kontrol hori hauetan bakarrik ez da egingo: zuzenketa baino gehiago berriz kodetzea izango den galdera erdi-irekietan, edo irizpideen aplikazioa zuzena denetan.

Eginkizun honek 10.000 lan ordu inguru hartuko dituela aurreikusi da. Lan ordu horiei, baina, prestakuntza orduak gehitu beharko zaizkie (prestakuntzak, hala ere, ez du oso denbora luzea hartuko, zuzendu beharreko item kopurua txikia delako). Denbora gehiegi ez luzatze aldera, prozesu honek ez ditu lau aste baino gehiago hartu behar.

Irizpide horiek kontuan izanik, zuzenketa prozesuan 100 lagunek 4 astetan lan egin beharko dute.

### III.4.4. DATUEN ANALISIA

Datuen analisiak ahalik eta informaziorik fidagarri eta erabilgarriena lortzea izango du helburu, ikasle bakoitzari, ikastetxei, eta hezkuntza sistemari begira. Hau da, ikastetxeek erabil dezaketen informazioa lortu beharko da, trebakuntza prozesuaren gaineko erabakiak hartzeko eta funtzionamenduan hobekuntzak egin ahal izateko.

Azken batean, datuek ikuspegi bikoitza ematea lortu nahi da. Hau da:

- Unean uneko egoera, ikasle bakoitzari eta ikastetxeari proba egiteko unean. Horretarako, konparaketa egin ahal izateko erreferentzia zehatz batzuk eman beharko dira (Euskal Herriko egoera orokorra, antzeko ezaugarriak dituzten ikastetxeetako egoera...).
- Denboran zehar ikasleengan eta ikastetxeetan jazotzen diren aldaketak, kasuan kasuko egoerarekiko eta kanpoko erreferentziarik (Euskal Herria eta antzeko ikastetxeak...).

Datuen analisi mota guztiz lotuta dago definitutako ebaluazio ereduarekin. Kanpo ebaluazioari dagokionez, konparaketak egiteko moduko datuak eman ditzake denboran zehar, eta kasu horretan, Itemaren Erantzunaren Teoria (IET) era-

<sup>11</sup> Aplikazio bakoitzean ebaluatuz joango diren konpetentzia berriei jarraituz item irekien kopurua aldatu egingo denez, ondoko aurreikuspena baliozkoa izan daiteke, aplikazioko alde finkoari dagozkion zenbakiak (hizkuntza-konpetentzia eta matematika-konpetentzia) aplikazio guztietan mantenduko baitira, eta alderdi hori da ebaluazio honetan leku handiena hartzen duena.



bili beharko da datuak aztertzeko. Izan ere, prozedura horixe bera da hainbat proba alderatzeko aukera ematen diguna, item komun batzuen arabera.

Itemaren Erantzunaren Teoriak abantailak eta desabantailak ditu. Honako hauek, hain justu:

· *Abantailak*

- Emaizta indartsuagoak: proben egitura kontuan hartuta, ikasleen egoera kompetentziari buruzko segida baten arabera kokatzen dute emaitzek, eta segida hori eduki batzuekin lotu daiteke.
- Emaiztak denboran zehar alderatzeko aukera ematen du, probak eskala baten arabera kokatuta, baldin eta gutxienez baldintza hauek betetzen badira:
  - Eskalaren arabera kokatu beharreko probetako itemen %20, gutxienez, komunak izatea.
  - Item komunek ordena berari eustea proba guztietan.
  - Laginen tamaina egokia izatea (gutxienez, 200 gizabanako).
- Hainbat motako gorabeherak koherentziari eutsiz integratzen ditu.
- Ebaluaziorako ikuspuntua zabaltzen du "itemen bankuen" bidez, ikasle bakoitzaren arabera (TAI).
- Itemen zailtasuna eta horri aurre egiteko beharrezkoa den kompetentzia unitate berean daude.

· *Desabantailak:*

- Emaiztekin lan asko egin behar da, estatistiken arloan, itemak parekatu ahal izateko.
- Ez da erraza, hasiera batean, emaitzen esanahia zuzenean ulertzea, eta beraz, azalpen sakonagoa behar izaten dute.

Probak taxutzeari dagokionez, gehienek onartzen duten printzipio orokor bat dago, eta honako hau dio: ikasle baten emaitzak beste ikasle batzuen emaitzekin alderatu ahal izateko, beharrezkoa da guztiek proba bera egitea, eta eredu matrizial batek edo neurri batean matriziala den eredu batek (galdera komun batzuk eta galdera desberdin batzuk) ez du balio banakako datuak eskuratzeko. Hala ere, matrizeen araberrako probak baliatuz gero egin daitekeen hutsa zein den analizatzeko azterlanak ere egin dira. Ildo horretan, proben aplikazio pilotu prozesuan, banakako emaitzeta-ko akatsa txikia eta onargarria izateko eta kompetentzien erreferentzia zabalagoa duen ebaluazioa egiteko moduko konbinazioa nola lor daitekeen ikertuko da.

*Zer aldagai mota erabiliko dira desagregazioetarako?*

Aurreko ataletan esan dugunez, diagnostiko ebaluazioan, kompetentziei buruzko probak egiteaz gain, galdesortak erabiltzeko aukera ere badago, informazioa analizatzeko eta testuinguruan kokatzeko (ikus III.2.3 atala, galdesortei buruzkoa).

Galdesortetako datuak hiru modu hauetan erabiliko dira:

- a) ***Aldagai zuzenak.*** Zenbait informazio mota zuzenean erabiltzen dira (ikaslea, errepikapena, ikasketetako hizkuntza, familiako hizkuntza...). Euren kabuz informazioa ematen duten aldagaiak dira, eta datuak interpretatzen laguntzen dute.
- b) ***Aldagai multzo baten eraldaketa lineala:*** elkarrekiko harremana duten gorabehera batzuk batera analizatuz gero zenbait kategoria osatzen dituztenak. Esate baterako, familiaren egitura, edo familiaren jabetzak eta ondasunak...
- c) ***Aldagaien azterketa estatistiko bidez sortutako indizeak:*** Rash analisiarekin eta wle balioekin (sinesgarritasun handiena eta haztatua), edo aldagaien analisi faktorialen bidez. Indize horien adibide izan daitezke indize sozio-ekonomikoak eta lanekoak, edo irakurzaletasun indizeak.

Ebaluatu nahi diren kompetentziekiko koherenteak diren indizeak landu behar dira, ikastetxeetarako eta hezkuntza sistemarako informazio erabilgarria emango duten indizeak. Gainera, ahalik eta galdesortarik laburrenak erabili behar dira.



Datuen aurkezpenari dagokionez, desagregazio mota bat edo bestea erabiliko da dagokion txostenaren arabera, eta txostenaren hartzaileen arabera. Oro har, honako desagregazio mota hauek erabiltzen dira:

- Sexua.
- Hizkuntza eredia (edo besterik ezean, hizkuntza ibilbidea).
- Geruza (titulartasuna + hizkuntza eredia).
- Familia hizkuntza edo/eta probako hizkuntza.
- Maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren indizeko orriak.
- Adina/Errepikapenak.
- ...

Irismen luzeko prozesua diseinatzen ari garenez, baliteke denboran zehar beste desagregazio batzuk eranstea, ikastetxeetako egoera eta lana azaltzeko balio dutelako. Era berean, baliteke beste batzuk baztertea, egoera ulertzeko interesik ez dutela hauteman dugulako.

### III.5. EBALUAKETA TXOSTENAK

Hezkuntzaren Lege Organikoaren eta 175/2007 Dekretuaren arabera, Hezkuntza Administrazioei dagokie “*diagnostiko ebaluazioak garatzea eta kontrolatzea, horien mendeko ikastetxeen parte-hartzearekin, eta dagozkion ereduak eta sostenguak ematea, ikastetxe guztiek trebakuntzako barne ebaluazioak behar bezala egin ahal izateko*” (144.2 artikulua). Era berean, Hezkuntza Administrazioei dagokie “*ikastetxeek egiten dituzten diagnostiko ebaluazioetako emaitzak eta horietatik datozen jardura planak hezkuntza komunitateari ezagutarazteko moduak arautzea*” (144.3 artikulua).

Helburuen atalean adierazi dugunez, diagnostiko ebaluazioen azken xedea da ikastetxeei ikasle bakoitzaren egoerari buruzko datuak ematea, testuinguruaren arabera kokatuta. Hartara, ikastetxeek diagnostiko ebaluazioa osatu ahal izango dute, familiei berorren berri emateko.

Argi egon behar du, hasiera-hasieratik, familiei informazioa emango diena ikastetxea bera izango dela. Izan ere, kanpoko neurketaren bidez eskuratuko diren datuak testuinguruaren arabera kokatzeko informazio zehatza ikastetxeak du.

Ikuspegi horren baitan, hiru txosten mota daude, eta diagnostikoa egiteko datuak aztertuz landu beharko dira. Honako txosten hauei buruz ari gara:

1. Banakako txostena, ikastetxe bateko ikasle bakoitzari buruzkoa.
2. Ikastetxeko txostena, taldekako datu orokorrekin.
3. Txosten orokorra, komunitatearen datuekin.

Txosten bakoitzaren edukia, ziur asko, ikasturteetan zehar zehaztuko da, eta hartara, ikastetxeetako eta komunitateko egiazko beharrezanetara egokituko da. Hala ere, alde zuzeneko zenbait ideia proposatu daitezke, txostenen edukia zuzentzeko. Honako hauek:

- Ikastetxeek eta familiek hurrengo ikasturteko lehenengo hiruhilekoan (lehenbailehen) izango dituzte euren emaitzak.
- Sailak emaitzen bertsio osoa izango du, txosten orokor batean.
- Zabalkunderako txostenak egin daitezke, hezkuntza komunitaterako.
- Familiek banakako emaitzak eskuratu ditzakete Itemaren Erantzunaren Teoriaren (IET) mailak bai, baina puntuazioak ez.

- Era berean, diagnostiko ebaluazioetatik ateratako datu interesgarriari buruzko txosten zehatzak eta ikerketak ere argitaratu daitezke.

### III.5.1. BANAKAKO TXOSTENA

Erabilitako probak eta galdesorten bidez eskuratutako datuek osatuko dute. Honako hauek, besteak beste:

- Ebaluatu diren oinarrizko konpetentzien emaitzak. Ziur asko, errendimendu mailaren arabera emango da puntuazioa. Hau da, ikasle bakoitza errendimendu maila jakin batean kokatuko da (bost edo sei maila), izan dituen emaitzen arabera.
- Kasuan kasuko ikastetxearekiko edo antzeko ezaugarriak dituzten ikastetxeetako taldeekiko alderaketa (esate baterako, maila sozio-ekonomikoaren, sexuaren, hizkuntza ereduaren edo titulartasunaren arabera).
- Helburua da ikasle bakoitzak denboran zehar izan duen bilakaerari buruzko informazioa eskuratzea (Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailara), eta hartara, hezkuntza ibilbideari buruzko erreferentzia bat eskuratzea, eta ikastetxeek hezkuntzaren arloko erabaki pertsonalizatuak hartu ahal izatea.

Txostenaren formatua banakakoa izango da; hau da, ikasle bakoitzarekin txosten zehatz bat egingo da, familiarentzako. Baliteke familiarentzako txostenaren eredia denboran zehar aldatzea, ondoz ondoko aplikazioen ondorioz, eta hartara, ikastetxeetako beharrezkoak egokitzea, eta eskuratutako informazioa, diagnostikoaren ikuspuntutik balio handia duena, testuinguruan kokatu ahal izatea.

### III.5.2. IKASTETXEKO TXOSTENA

Ikastetxeko ikasleei buruzko taldekako datuak bilduko ditu, eta baita ikastetxeko datu orokorrak ere. Datu horien bidez, talde bakoitzak ikastetxean duen kokalekua zehaztu ahal izango da, baita kasuan kasuko ikastetxeak beste batzuekiko duen kokalekua ere. Ondoz ondoko aplikazioei esker, berriz, taldeek eta ikastetxeak denboran zehar izan duten bilakaerari buruzko erreferentzia bat izateko ere balioko du ikastetxeko txostenak.

Eskuratutako informazioa testuinguruaren arabera kokatuko da, ahal bezainbeste, galdesorten bidez eskuratutako datuetan oinarrituta. Baina nolana ere, kontuan hartu behar da denboran zehar izandako bilakaera alderatzeko balio duen egiazko informazioa ikastetxeak berak duela. Izan ere, ikastetxea da informazio zehatza erantsi dezakeena, ikasurte batetik bestera ikasleetan izaten diren aldaketak azaldu ahal izateko, eta batik bat, banakako konpetentziekin zerikusia duten alderdien bilakaera azaldu ahal izateko.

Ikastetxeko txostenak izan ditzakeen edukietako batzuk honako hauek dira:

- *Ebaluatu diren oinarrizko konpetentzien emaitzak.* Puntuazioa 500 (edo 300, 100...) puntuko eskala batean emango da, zenbateko gisa. Era berean, ikasleak errendimendu mailaren arabera kokatu daitezke. Hau da, ikastetxeko ikasleak errendimendu mailan kokatu daitezke (bost edo sei maila), dagozkien emaitzen arabera.
- *Emaitzen alderaketa antzeko ezaugarriak dituzten* ikastetxeetako taldeekin (esate baterako, maila sozio-ekonomikoa edo kulturala, sexua, maila -hizkuntza eredia edo titulartasuna- kontuan hartuta).
- *Ikastetxe bakoitzean eskuratu den eta espero zen emaitzaren arteko aldea*, emaitzak azaltzeko balio duten aldagai batzuen arabera (batik bat aldagai sozio-ekonomikoak eta kulturalak).
- Ikastetxeari buruzko informazio orokorragoa ere sartu daiteke uneren batean (galdesorten bidez eskuratutako informazioa, komunitateko beste ikastetxe batzuekiko kokalekua zehazten lagundu dezakeena).
- DBHko ikastetxeen kasuan, helburua da ikasleek denboran zehar izan duten bilakaerari buruzko informazioa eskuratzea (Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailara), eta hartara, hezkuntza ibilbideari buruzko erreferentzia bat eskuratzea, baita ikastetxeek hezkuntzaren arloko erabaki pertsonalizatuak hartu ahal izatea ere. Noski, informazioaren balioa are handiagoa izango da hezkuntza prozesuko bi etapak dituzten ikastetxeen kasuan.

Ebaluatutako maila bakoitzak txosten bana izango du. Erreferentziako ikuskatzaileak txostena ikastetxe bakoitzari emango dio.

### III.5.3. TXOSTEN OROKORRA

Ebaluatu diren kompetentzietan buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko datu orokorrak biltzen dituen txosten orokorra da. Beraz, hezkuntza sistemaren unean uneko egoeraren eta bilakaeraren erreferentzia eta analisi gisa erabil daiteke.

Baliteke txosten bakarra ez izatea. Aitzitik, hasierako datuen bilduma (emaitzak ikastetxeetara igortzen diren garai bereko datuena) eta analisi sakona (ez nahitaez maila guztiena) bateratu ditzake, eta emaitzak ez ezik, aldagaien analisi sakonagoa ere kontuan hartu dezake.

Era berean, denboran zehar aztertutako aldagai jakin batzuen gaineko monografikoak ere izan ditzake. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da diagnostikorako ebaluazioak egiteko prozesuak lan handia duela datuen bilketari dagokionez, eta ondorioz, datu horietatik ahalik eta etekinik handiena aterako duten analista taldeak behar izaten direla.

Diagnostiko ebaluazioetarako berriaz sortutako web orrian ere eskuragarri egongo da txosten orokorra.

#### ■ Informazioaren tratamendua

Azaldutako ikuspegiari jarraiki, kontuan hartu behar da kontuz erabili beharreko informazioaz ari garela: ikastetxeetako eta ikasleen emaitzen gaineko datuez, hain justu. Ondorioz, informazio hori ahalik eta isilpekotasunik handienarekin tratatu beharko da.

Horretarako, datuak babesteko zenbait neurri hartu beharko dira. Honako hauek, esate baterako:

- Kode alfa-zenbakizkoak erabiltzea, pertsonen izenen orde. Eskolatzeko liburuaren zenbakia erabiliko da, edo ikasleak identifikatzeko adinako egonkortasuna duen beste edozein zenbaki, emaitzak kasuan kasuko ikaslearenak direla bermatzeko, baina era berean, banakako datu horiek edonoren eskura egon daitezkeen saihesteko. Beharbada, prozesu bat sortu beharko da, ikastetxe bakoitzak bertako ikasleen kodeen erreferentzia bat izateko, eta ikastetxetik ateratzen den informazio guztia kodetuta egoteko.
- Ikastetxeei buruzko informazioa ere isilpekoa izango da, eta hori eskuratu dezaketenen pertsona guztiek isilpean gorde beharko dute. Ikastetxeei buruzko informazioa ezagutzen duten pertsonen kopurua ahal bezainbeste mugatu behar da, eta nahitaezko pertsonen bakarrik eman beharko zaie haren berri (esate baterako, kasuan kasuko ikastetxeko ikuskaritza teknikoak, ISEI datuen tratamendurako...). Gainera, ikastetxeek baino ezin izango dute informazioa kanpora atera, eta beharrezkotzat jotzen dituztenen eskura jarri (eta izatekotan ere, Ikuskaritza Teknikoak).



**IV.**  
EAEko  
diagnostiko  
ebaluazioko  
hobekuntza  
prozesuak



Diagnostiko ebaluazio horren helburua bete ahal izateko, beharrezkoa da elkarrekin lotura duten hiru lan ildo bultzatzea ikastetxeetan hobekuntza eragingarria lortu ahal izateko:

1. *Ikastetxeetako ohiko lanetan hobekuntza prozesuak sartzea.* Funtzionamenduko oinarrizko gaiekin lotura duen hobekuntzako prozedura bat ikastetxeetara oro har bideratu beharra ez da ulertu behar apartekoa eta ohiko funtzionamendutik bereizita dagoen prozesu gisa; izan ere, oso garrantzitsua da ikastetxeek beren ohiko lanen artean funtzionamenduaren diagnostikoa egiteko azterketa sartzea eta, horrenbestez, hobekuntzak proposatzea.
2. *Diagnostiko ebaluazioaren emaitzek hobekuntza hasteko euskarria izan behar dute.* Diagnostiko ebaluazioari esker, ikastetxeko ikasleek lortutako emaitzekin lotura duen hobekuntza prozesu zehatza has daiteke ebaluatutako oinarrizko konpetentzien inguruan. Hobekuntzako prozesu horren helburua mantentzeko, hobetzeko edo aldatzeko erabakiak hartzea da lortutako emaitzak hobetu ahal izateko.
3. *Hobekuntza prozesuak, abiapuntua emaitzetan izan arren, ikastetxeko funtzionamendu osora zabaldu behar dira.* Ikastetxe baten funtzionamendua bertako barne zereginak osatzen dituzten hainbat aldagai espezifikoren zehaztasuna da; hau da, oinarrizko konpetentzien probetan lortutako emaitzen diagnostikoan oinarritutako hobekuntza prozesuari esker, eremu horietariko askotan sartu eta, bide batez, ikastetxeko funtzionamendu orokor osora eta ikasketak-irakaskuntza prozesura hedatzen diren alderdi ugariaren aurrerapena errazten du

Ikastetxeak, diagnostikoaren ebaluazioak biltzen duen faktore abiarazlea abiapuntu gisa hartuta, hezkuntzako dinamikan egokienak eta benetakoenak direla uste duen aldagai horiek barnetik ebaluatzen saiatu behar du. Prozesu horrek ez du derrigor osoa izan behar, baina urtez urte funtzionamenduko alderdiak balora ditzake pixkanaka, gero lortutako emaitzekin lotu ahal izateko:

Ikuspuntu hori abiapuntu gisa hartuta, kapitulu honetan galdera hauei erantzungo diegu:

- Zein dira hobekuntza prozesuaren ezaugarriak?
- Zein dira ikastetxeen funtzionamendua hobetzeko esku-hartze prozesuko elementuak?
- Hobekuntza prozesu horrek laneko karga betetzen du?

## **IV.1. HOBKUNTZA PROZESUAREN EZAUGARRIAK: DIAGNOSTIKOAREN EBALUAZIOTIK ESKU-HARTZERA IKASTETXEAK HOBETZEKO**

Ebaluazio ororen helburua, bere definizioan ikus daitekeen moduan, haren ondorioz, ebaluatutako horrekin lotura duten hobekuntzako ekintzak aurrera eramán ahal izatea da.

Oinarrizko kompetentzien diagnostiko ebaluazio hau zehaztuta dagoen moduan, prestakuntzako ebaluazioan topatuko dugun erronka nagusia ebaluazioko emaitzak ikastetxeetarako hobekuntza prozesu bihurtzeko urratsa nola gauzatu behar den izango da. Ebaluatutako errealitate hori hobetzeko esku-hartze irmoa abiapuntu gisa hartuta soilik izango da bideragarri urrats hori.

Lan zaila da, eta ikasi beharrekoa. Erronka horrek hainbat aldagairekin du lotura; hori dela eta, gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da Hezkuntza Administrazioari hainbat zerbitzuren (Irakaskuntza Sistema Ebaluatzeko Erakundea, Hezkuntzako Ikuskaritza eta Hezkuntza Berrikuntza) eta ikastetxeen (prozesu osoaren ardatz nagusi gisa) laguntza eta esku-hartzea, eta araudi testuinguru argia izatea.

Hobetzea xede duen esku-hartze horren abiapuntua bi koordinatutan dago:

### **1. Prestakuntzako ebaluazio prozesu guztien helburua ebaluatutako errealitatea hobetzeko esku-hartzea da.**

Begi-bistakoa denez, diagnostikoaren ebaluazioak, zehaztuta dagoen eran, bere horretan ez duela zentzurik uste dugu baldin eta ez bada zenbait helburu erdiesteko erabiltzen. Proposa daitezkeen helburuetariko bakoitza izaera orokorra duen beste baten mende geratu behar da. Horrek ebaluazioaren azken helburuarekin izan ohi du lotura eta ebaluatutako errealitatea hobetzea izan ohi da.

Ebaluatutako errealitatea hobetzeko, hauek hartu behar dira kontuan:

- a) Hobekuntza prozesuek ikastetxeei eta hezkuntza komunitateari ahuluneak eta indarguneak identifikatzen, eta egoeraren, antolaketaren, curriculumaren eta materialen aukeren araberrako irtenbideak bilatzen eta garatzen laguntzeko diseinatuta egon behar dute.
- b) Prozesu hori bideratzeko, beharrezkoa da kalitate irizpideak aplikatzea; hori batez ere pertsonen menpe dagoela ulertu behar da. Ezinbestekoa da ikastetxearen parte hartzea, konpromisoa, borondatezko esku-hartzea, lankidetzat, talde lana, prestakuntza eta autonomia aintzat hartzea azterketa eta erabakien baitan.
- c) Ebaluazioa ez da sortzen oinarrizko kompetentzia jakin batzuk betetzen diren egiaztatzeko soilik. Ebaluazioak eskaini ohi duen informazioa oinarri gisa hartuta, jarduera hobetu, prozesu batzuk aldatu, sekuentzia jakin batzuk moldatu, motibazioko estrategiak aldatu, zenbait helbururen denbora handitu, ekintzen plangintza egin, ikasgelako giroan aldaketak bultzatu eta abar egin behar da.
- d) Hobekuntzak ekintzaren gaineko hausnarketa prozesuarekin lotura zuzena du. Irakasleek irakaskuntzako jarduera baten inguruko hausnarketa bultzatzeak ikastea izan beharko luke helburu. Askotan, akats berak errepikatu ohi dira, metodoa falta delako. Praktika burutsuak azterketako benetako lana bultzatzen du, inolako atsegirik eta justifikaziorik gabe, eta arau hau izan ohi du oinarri: egiten ez dakigun hori eginez egiten ikastea.



**ZENTROETAN HOBEKUNTZARAKO ESKU-HARTZEA****EBALUATUTAKO ERREALITATEAREN HOBEKUNTZA**

Ikastetxea ez da soilik datu batzuen deskribapenean oinarrituko (ebaluazioaren emaitza); hausnarketa egiteko abiapuntua izan behar dute eta handik abiatu behar da hobekuntza ildoak zehaztuz esku-hartzeko.

Ebaluazioa hezkuntza sistemari hurrengo galderen modukoak erantzutea ahalbidetzen duen ekintza bihurtu ohi da:

- Zein kompetentzia dute ikasleek eskolako gaietan?
- Ba al dakite agertzen zaizkien edo eguneroko bizitzan agertuko zaizkien problemei erantzuten?
- Gure ikasleak egungo munduan ari al dira ulertzen eta adierazten ikasten?
- Zein eremutan topa dezakete zailtasun gehien?
- Eskolak laguntzen al die aukerak ahalik eta gehien garatzen eta abiapuntuko aldeak nolabait konpentsatzen?

Emaitzak abiapuntu gisa hartuta, ikastetxeak haien ahuluneak eta indarguneak identifikatu, eta egoeraren, antolaketako, curriculum arloko eta materialen aukeren arabera egokiak diren irtenbideak bilatu eta garatuko ditu irakasleentzat zein ikasleentzat.

Hori lortzeko, hau egin behar da:

- Zenbait sekuentzia aldatu.
- Motibazio estrategjaren bat aldatu.
- Zenbait helburutarako eman ohi den denbora handitu.
- Jarduera ezberdinak proposatu.
- Aldaketak bultzatu gelako giroan

## **2. Hezkuntza ikastetxeak ebaluatutako kompetentzien emaitzen azterketa sakontzen duen bitartean, azterketa hori funtzionamendu osora hedatu ohi du, baretik beste aldagai batzuk ebaluatzen saiatuz.**

Ikastetxeetan ebaluazio kultura sartzeaz gain (hori baita ebaluazio honetan eta honekin proposatu nahi diren helburuetariko bat), beharrezkoa da kompetentzien ebaluazioa finkatzea testuinguru zabalagoan, batez ere hobetzeko esku-hartzean pentsatuz.

Ikastetxeak ebaluazioko emaitzak beste aldagai baten gisa erabiltzen ditu funtzionamenduaren baitan. Emaitzak aztertu, baloratu eta diagnostikatu egiten ditu, baina gogoan du ikastetxearen funtzionamendu orokorra, hura zehazten duten aldagaiekin lotuta.

Funtzionamendua haren porrotaren edo arrakastaren arduraduna zein neurritan den, problemak nola detektatzen diren eta haietan nola esku-hartzen den neurtzea da. Irakasleak finkatutako hezkuntza arloko helburuak betetzeko eta ikasleek horiek jasotzeko zailtasunak izateak ikastetxearen funtzionamendurako azterketa egitea eskatzen du, beste hainbat gairen artean.


Ez da lan erraza, baina bai beharrezkoa. Ikastetxe bateko konfigurazioa osatzen duten aldagai ugarien ebaluazioa oso tresna baliagarria izan daiteke. Diagnostiko ebaluazioak ebaluatzeko behar hori sortzen laguntzen du eta, batez ere, hobekuntzarekin lotzen badugu.

Ez dago funtzionamenduaren eta kudeaketaren gaineko ezagutza arazoak konpontzeko eta hobetzeko ezinbestekoa dela zalantzan jartzen duen ikastetxerik. Era berean, jardueraren ebaluazioa edota balorazioa egiteko nolabaiteko erre-

sistentzia dago. Bi gai horiek bateratzea oinarrizko lana da emaitza nahi dugun hori izan dadin: hobekuntza. Problema ez dira independenteak haien artean; izan ere, lotura zuzena dute beren artean. Horrekin lotuta, ebaluazioa ikastetxe-ko autonomiarako aurretiazko urratsa dela esan dezakegu. Kalitateko oinarrizko osagaia da.

Zein dira ikastetxe baten funtzionamenduko oinarrizko ardatzak? Zalantzarik gabe, eta eredu eta proposamen ugariaren arabera, antzeko eremuak dituzten ikastetxeetan komunak diren funtzionamenduko aldagai gisa aurkez ditzakegu hauek:

- Ikasketa-irakaskuntza prozesuaren antolaketa: Programazioak eta irakaskuntza jarduera.
- Metodologia. Baliabide didaktikoak eta teknikoak.
- Antolaketa eta funtzionamendua.
- Koordinazio pedagogikoa: Ikastetxe Hezkuntza Proiektua eta Ikastetxe Curriculum Proiektua.
- Gobernu organoen funtzionamendua. Lidergoa (nortasuna eskaintzen dutenak, lidergoa dutenak, jarduerak planifikatzen dituztenak... hitz gutxitan esanda: plusa eta asmoa).
- Eskolako giroa.
- Ikasleen zerrenda: Tutoretza eta erantzukizuna ikasketetan.
- Familiekin eta giroarekin harremana.
- Lortutako emaitza akademikoen azterketa: Balorazioa eta neurriak.
- Ikasleek ebaluatutako oinarrizko konpetentzietan lortutako emaitzen azterketa.



Ez da nahikoa eskolan zer gertatzen ari den deskribatzea edo azaltzea; beharrezkoa da egoera batetik bestera indar handiz igaro ahal izateko jarduera estrategiak zehaztea

Adierazitako ardatzen helburua ikastetxe bat eragingarriagoa izateko gaiak gogoan izatea da:

- Aldaketek eragina izan ohi dute gugan.
- Problemen kasuak ez dira beti muturrekoak.
- Alternatiba berriak proposatzeko gai izan behar dugu.
- Beharrezkoa da proiektu komuna izatea.
- Eskolako giroa funtsezkoa da.
- Zuzendaritza Taldeak lidergo handiagoa agertu behar du.
- Egungo arazoak egungo pentsamendutik abiatuta konpondu ohi dira.
- Hezkuntza komunitatearekin dituen harremanak oso garrantzitsuak dira.
- Itxaropen baxuak apurtzeko gai izan behar dugu.
- Koordinazio pedagogikoa eta ikasketa-irakaskuntza prozesuaren garapena hobetuko dugu ikasgeletan.
- Ikastetxearekiko konpromisoa guztiona da.

## IV.2. ESKU-HARTZE PROZESUKO ELEMENTUAK IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA HOBETZEKO

Atal honetan, galdera hauei erantzun nahi diegu:

- Zein dira hobekuntza prozesuan garatu beharreko ekintzak?
- Zein ezaugarri dute hobetzeko dokumentuek?

### IV.2.1. HOBEKUNTZA PROZESUAN GARATU BEHARREKO EKINTZAK

Hobekuntza prozesuak ekintza hauek biltzen ditu kompetentzien diagnostiko ebaluazioaren ondorioz:

#### A) *Kompetentzien ebaluazio proba egin aurreko ekintzak*

##### • Ikasturte hasieran:

- **Informazioa emateko bilera:** Erreferentziazko ikuskariak, Berritzeguneko erreferentziazko aholkulariarekin koordinatuta, ebaluazioa jaso behar duten ikastetxeetako zuzendariari eman beharko die informazioa ebaluazioaren inguruko oinarritzko gaien (ekintzak, epeak, dokumentuak...) eta ikastetxe bakoitzean ebaluazioaren talde koordinatzailea eratzearen inguruan. Ebaluazioa egingo zaien mailetakako ikasleen familiei, klaustroari eta OOGri zuzendutako informazio lanen plangintza ere egin beharko da.
- **Ebaluazioaren koordinazio taldea eratzea.** Ikastetxe bakoitzak Ebaluazioaren koordinazio taldea eratu beharko du. Talde horrek izan behar du ebaluazioko erreferentea. Lanaren zati bat zuzendaritza taldeari deskargatu eta hauen inguruko jarduerak biltzen ditu: ikastetxeko ebaluazio prozesuaren koordinazioa, probak aplikatzeko lankidetzak eta ikastetxeko txostena zein Hobekuntzarako Esku-hartze Plana prestatzen laguntzea. Osaera eta funtzionamendua ikastetxeak berak zehaztuko du; halere, partaideek, gutxienez, hauek izan beharko dute: zuzendaria, ikasketa burua eta ebaluatutako maila bakoitzeko tutore bat: Lehen Hezkuntzako 4. maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila.

Saio horretan bertan, erreferentziako ikuskariak probak egingo dituzten ikasleen datuak jaso eta dagokion unean ISEI-IVEIk eskuragarri jarriko dion zerbitzariaren bidez bidali beharko ditu.

• **Ebaluazio proba egin arte:**

Lehen bisitatik probak egin arte, Berritzeguneko erreferentziako aholkulariak eman beharreko aholkularitzarekin lotura duten bi lan garrantzitsu betetzeko oinarrizko denbora geratuko da.

- Lehenengoa konpetentzia kontzeptuaren inguruko prestakuntza eskaintzea da eta, batez ere, ebaluatu beharreko konpetentzia horietara egin beharreko gerturatzea. Konpetentzia eta curriculum, konpetentzien ebaluazio irizpideen, helburuen eta konpetentziaren definizioa, besteak beste, dira ikastetxeetan landu beharreko gaiak. Berritzeguneei eta Hezkuntza Administrazioiko prestakuntza zerbitzuak irakasleekin eta ikastetxeekin prestakuntzako jarduerak garatzen dituzten arren, konpetentziekin eta curriculumarekin lotuta, arlo horien gainean ikastetxeek egindako aholkularitza mailako eskaerei erantzuna eman beharko litzaieke.
- Bigarrenak ebaluazioa izango duten mailetako irakasleei lagunduko dieten adibideekin izango du lotura, ikasleak ebaluazio aurrean kokatu ahal izateko. Jarduera horri esker, irakasleak jarduera hedatu ahalko du ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan, eta aurreko atalean azaldutakoa zehazten lagunduko dio.
- Aldi honetan, aurreko biez gain, beste ariketa batzuk ere egin daitezke; adibidez: ebaluatu beharreko ikasleen zerrendak, hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak, ebaluaziorako eta proba egunean entregatu beharreko galdera sortak (beharrezkoak badira) betetzea, probak egiteko beharrezko azpiegitura eta ekipamendua prestatzea...
- Azkenik, zuzendaritza taldeak, ikastetxeko funtzionamenduaren inguruko aldagaien diagnostikoa egiteko galdera sortaren bidez, diagnostikoan zabaldu ahalko du haietakoren baten egoera, eta berak hala nahi izanda ebaluazioan lortutako emaitzekin lotuko du (ikastetxeko funtzionamenduaren azterketari dagokion puntuan ikus daitezkeen moduan).

**B) Probak egiteko prozesuaren kalitate kontrola**

Hezkuntza arloko Ikuskaritzak prozesuaren kalitate kontrola egingo du ikastetxeen lagina bilduko duten probak eginez. Horrekin lotuta, esan beharrekoa da ISEI-IVEIk helburu horrekin prestatutako dokumentua bete beharko dela eta, aldi berean, ikuskariak egoera deskribatzen duen txostena egingo du, proben aplikazio prozesua baloratzuz.

**C) Diagnostiko ebaluazioaren ondorengo ekintzak**

**C1. Emaitzen aurkezpena**

Informazio osoa eta emaitzak zuzenak direla egiaztatzeko, hobekuntza prozesua hasi aurretik, ISEI-IVEIk txostena emango die ikastetxeei akatsak zuzen ditzaten eta haiek konpondu ostean, behin betikotzat joko dira. Datu guztiak baieztatu ostean, ebaluazioaren eta dagozkion txostenen behin betiko emaitzak Hezkuntza Sailburuordetzara bidaliko ditu ISEI-IVEIk eremu hartako ikuskari eta erreferentziako aholkuari bakoitzarentzako gakoekin batera.

Hezkuntza Sailburuordetza izango da informazio hori Ikuskaritza Zentralaren esku jartzeko arduraduna. Une horretatik hasita, ikastetxe bakoitzeko erreferentziako ikuskatzaileek eta Berritzeguneetako erreferentziako aholkulariek beren gakoekin dagozkion txostenak deskargatu ahalko dituzte eta horrek jardueren hurrengo segida ekarriko du:

- Erreferentziako ikuskariak, Berritzeguneko erreferentziako aholkulariarekin batera, diagnostiko ebaluazioaren talde koordinatzailearekin bilera deialdia egingo du emaitzen gaineko lehen gerturatzea egiteko eta hurrengo lanak egite-

ko beharrezko informazioak jakinarazteko: Ikastetxeko txostenaren prestaketa eta Hobekuntzarako Esku-Hartze Plana lantzea.

- Ikastetxeko zuzendariak klaustroari eta OOG/CEri aurkeztuko dizkio datuak.
- Ebaluatutako mailetako tutoreek dagozkien mailetako gurasoei emango diete datuen berri.

Emaitzak hedatzeko eta aurkezteko prozesu horretan, isilpekotasuna beharrezkoa dela hartu beharko da kontuan.

### C2. Ikastetxeko txostena prestatzea

Ebaluazioaren koordinazio taldeak bere gain hartuko du txostena prestatzearen ardura; horretarako, Berritzeguneko erreferentziako aholkulariari beharrezko aholkularitza eskatu ahalko dio. Txosten hori erreferentziako ikuskatzaileari bidali ahalko zaio hark balora dezan.

### C3. Hobekuntzarako Esku-Hartze Plana prestatzea

Ebaluazioaren koordinazio taldeak bere gain hartuko du txostena prestatzearen ardura; horretarako, Berritzeguneko erreferentziako aholkulariari beharrezko aholkularitza eskatu ahalko dio. Txosten hori erreferentziako ikuskatzaileari bidali ahalko zaio hark baloratu eta jarraipena egin dezan.

Bi dokumentu horiekin, Ikastetxearen Txostenarekin eta Hobekuntzarako Esku-Hartze Planarekin, diagnostiko ebaluaziora aurrera egin ohi da ebaluatutako errealitatearen hobekuntzan esku-hartzea erabaki dezan eta ikastetxeko funtzionamendura heda dezan. Lan zaila da hori eta aurrez irakasleek eta bertan sartuta dauden zerbitzuek ikasi beharra dute.

## DOKUMENTUAK HOBEKUNTZARAKO ESKU-HARTZEA

### IKASTETXEAREN TXOSTENA

#### **Helburua eta egitura:**

1. Emaitzen azterketaren abiapuntua:
  - Emaitzak eta ikastetxea.
  - Emaitzak eta curriculumaren ebaluazioa.
2. Egoeraren diagnostikoa:
  - a) Ikastetxearen datuak:
    - Mantentzeko indarguneen identifikazioa.
    - Hobetzeko ahuluneen identifikazioa.
    - Kausen azterketa.
  - b) Banakako datuak:
    - Desbideratze handiak antzematea.
3. Lehentasuna ematea gai hauetako esku-hartze arloetan:
  - Curriculum. e/a prozesuarekiko lotura.
  - Metodologia. Irakaskuntzarekin lotuta.
  - Baliabide teknikoak eta didaktikoak.
  - Antolaketa eta funtzionamendua.
  - Harremanen eta elkarbizitzaren giroa.
  - Familia eta ingurunea.
  - Zehaztu beharreko beste batzuk
4. Erabakiak (2. puntuarekin lotura dutenak)
  - Ikastetxe mailan.
  - Banakako kasuetan.

### HOBEKUNTZARAKO esku-hartze PLANA

#### **Helburua eta egitura:**

1. Ekintzen proposamenak eta haien diseinua:
  - Helburua/k.
  - Adierazlea/k.
  - Tenporalizazioa.
  - Beharrezko baliabideak.
  - Arduradunak.
2. Hobekuntzarako Esku-Hartze Plana abian jartzea:
  - Jarraipena.
  - Ebaluazioa.
  - Berrikuspena.

## IV.2.2. HOBKUNTZARAKO DOKUMENTUEN DESKRIBAPENA

### A) IKASTETXEAREN TXOSTENA

Haren helburua ikastetxeko testuinguruaren baitan emaitzak "irakurtzen" jakitea da. Ebaluatutako kompetentzietan ikasleek lortu dituzten emaitzak abiapuntu gisa hartuta diagnostikoa egitea da helburua; balio numerikoetan soilik oinarritu beharrean, balio horiek indarguneak direla erakusten duten alderdiak identifikatzeko edo, aldiz, ahulak direla eta, hobetu beharrekoak diren alderdiak zein diren zehazteko.

Egitura atal hauen arabera izan ohi da:

#### 1. Emaitzen azterketa:

- Emaitzak eta ikastetxea
- Emaitzak eta curriculum ebaluazioa.

Puntu honen baitan, galdera hauei erantzun beharko litzaieke:

- Ebaluatutako kompetentzia desberdinen emaitzen artean izan daitezkeen aldeak. Esperotakoak izan al ziren?
- Kompetentzien ebaluazioaren emaitzen eta alor horietan ikasleen emaitza akademikoen artean aintzat hartutako aldeak. Bat al datoz ikasleen curriculum ebaluaziorekin? Banakoen defiziten indentifikazioa esanguratsua.
- ISEI-IVEIren txostenetan dauden, deigarriak iruditzen zaizkigun eta irakaskuntza praktikarekin edota ikastetxean eragiteko beste aldagai batzuekin lotu ditzakegun beste gai batzuk.

#### 2. Egoeraren diagnostikoa, honakoak barne hartzen dituen emaitzen azterketaren ondorio gisa:

- Ikastetxearen datu orokorrak:
  - Mantentzeko indarguneak identifikatzea.
  - Hobetzeko ahuluneak identifikatzea.
    - Optimizazio erabakiak, sistema osatzen duten elementuen bidez (kasu honetan, ikastetxea) emaitzak hobetu daitezkeela ulertzen denean.
    - Bigarrena, emaitzetan defizit garrantzitsua antzeman denean.
  - Kausen analisia.
- Banakako datuak:
  - Desbideraketa esanguratsuak antzematea.

- Emaitzak onak izan daitezzen lagundu dutela ulertzeagatik, mantendu beharreko ikasgelaren edota ikastetxearen funtzionamenduaren alorrak identifikatzea. Zein indargune nabarmenduko zenuke mantentzeko?
- Onak ez diren alorrak erakusten dizkiguten baina emaitza hobeak lortzea espero dugun emaitzekin lotura dutelako, hobetu behar diren (optimizatu) alorrak identifikatzea. Zein ahulune adieraziko zenituzke hobetzeko?
- Optimizatzeko helburuarekin, ebaluazioko elementu batzuk identifikatzea, hauek esate baterako: baliabide pertsonalen bat ugaritzea, eguneroko zenbait egoera aldatzea, batez ere, ikasgelaren funtzionamendurekin, mailaren eta zikloaren ekipoarekin, sailarekin... lotutakoak.
- Ebaluazioko zenbait elementu identifikatzea aldatu ahal izateko, baleude; bertan, emaitzek defizit garrantzitsuak izan dituzte eta beharrezkoa izan da plangintzako akatsak, egokiak ez diren prozesuak eta nahikoak ez diren lorpen mailak konpontzea; horrez gain, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan, antolaketaoetan, jarrera edota sorkuntza okerrak aldatu behar dira. Zein aldaketa erabaki hartu beharko zenituzke, eta zein alorretan?
- Ikastetxearen errealitateari lotutako kausa posibleen azterketa, eta lortutako emaitzak azaldu ditzakeena.

#### 3. Ikastetxean, esku-hartze alor zehatzen alorrak lehenestea:

- Curriculum. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin lotuta.
- Metodologia. Irakaskuntza praktikarekin lotuta.
- Baliabide teknikoak eta didaktikoak.
- Antolaketa eta funtzionamendua.
- Harremanen eta elkarbizitza giroa.
- Familia eta ingurua.
- Besteak (zehaztu).

#### 4. Erabakiak (2. puntuaren gainean)

- Ikastetxearen mailan.
- Banakako kasuetan (ikasleak, gabezia esanguratsuekin).

## B) HOBEKUNTZARAKO esku-hartze PLANA

Hobekuntzarako Plana zehazteko, garrantzitsua da gogoraraztea hobekuntzarako komuna den abiapuntua kontuan hartzea oso garrantzizkoa dela. Abiapuntu horrek kontuan izan behar du hobekuntzako proposamenekin lotutako edozein erabaki ikasle guztientzat komuna den "erabilera balioa duen ezagutza"rekin identifikatu beharko litzatekeela.

Ezagutza horrek derrigorrezko hezkuntzan curriculumaren doiketa edo birplanteamendua egitea behar edo ekarriko du, errealitateko behar aldakorrek zerikusi handiagoko lotura ahalbidetuko duen ikasketaren ikuspuntu orokorragoa bilatuz. Horrekin lotuta, esan beharrekoa da batetik, ikaskuntzako oinarrizko tresnetan gehiago nabarmentzea dela garrantzitsuena (irakurketako ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, kalkulua, problemen ebazpena) eta bestetik, aldiz, oinarrizko edukiak berriro azpimarratzea (ezagutzak, konpetentziak, jarrerak eta balioak).

Oinarrizko konpetentziak jaso ahal izateko, beharrezkoa da gaien eta arloen arteko zubiak egitea edukien integrazioa nabarmena izan dadin; hau da, ezagutza sor dezan (oinarrizko konpetentziek ez dute lotura gai jakin batekin, denekin baizik).

Hori dela eta, **Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua** funtsezkoa da hezkuntza arloko helburuak, edukiak eta xedeak aukatzeke ikastetxeko autonomiaren erreferente gisa eta irakasleek egindako hausnarketa aktiboaren ondorio moduan. Edukiek ez dituzte aldaketa handiak eskatzen; litekeena da sekuentziario logiko zein psikologiko hobea behar izatea, eta aldatu beharrekoa, aldiz, ikuspegia da. Edukiak ikasteak konpetentziak jasotzea ekarriko duen metodologiari jarraitzea da helburua (irakaskuntza ikaskuntza bihurtzea).

Hezkuntza arloko proiektuak eta, haien baitan, **Curriculum Proiektuak** funtsezkoak izango dira derrigorrezko hezkuntzan oinarrizkoa zer den berriz zehazteko, erabilera balioa duen ezagutza eskaintzen duela uste delako ezinbestekotzat jotzen diren ikasketa horiek azpimarratzea ahalbidetuz. Horretarako, curriculum baitan beharrezkoa izango da konpetentzia arloko elementuak identifikatzea, haietan nagusi diren ezaugarriak zehaztea eta ikasle bakoitzak eskuratu beharreko maila (haietako bakoitzean oinarrizkoa dena) zein den finkatzea.

**Curriculumek** lortu nahi diren ikaskuntzen multzoa biltzen dute eta une batzuetan gutxieneko edo ukaezin gisa hartu ohi direnak baino zabalagoak izan ohi dira. Oinarrizko konpetentziei erreferentzia egiteak ikaskuntzako programazioa zuzentzeko birtualtasuna du, ezinbesteko izaera duten ebaluazio irizpideak eta edukiak identifikatzea ahalbidetzen baitute (curriculumeko egungo eredia hobetzea ekarri beharko luke). Arrazoi horiek direla eta, oinarrizko konpetentziak curriculumeko beste elementu bat eta ebaluaziorako erreferente izango dira. LOE legearen eta 175/2007 Dekretuaren arabera, erreferentzia da Lehen Hezkuntzako zikloa bultzatzeko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako amaierako titulaziorako zein diagnostiko ebaluazioetarako.

**Hobekuntzarako Esku-Hartze Planaren** helburua Ikastetxeko Txostenean hartutako erabakiak eta ondorioak biltzea eta hobekuntzarako beharrezkoak diren ekintzetan haien plangintza egitea da. Hau da, beste nolabait esanda, modu sistematikoan garatzea eta ebaluatzea eta, dagokionean, lortutako emaitzaren arabera berrikustea (zuzendaritza taldeak eta irakasleak bilduz barne ikaskuntza egitea).

Hobekuntzarako Esku-Hartze Planaren **egitura** Ikastetxeko Txostenean agertzen diren proposamenen baitako ekintza errealisten proposamenaren arabera da: curriculum, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren diseinua, metodologia, irakaskuntza, baliabide didaktikoak eta teknikoak, antolaketako eta funtzionamenduko alderdiak, familia eta inguruena, loturen eta elkarbizitzako giroa eta haiei dagokien diseinua.

Azkenik, errealista izateko, ez dugu ahaztu behar oinarrizko konpetentzien eta curriculumaren artean dagoen lotura. Izan ere, oinarrizko konpetentziak curriculumaren baitan daude. Curriculumeko gaien eta lanen helburua ikasleek hezkuntza arloko helburuak erdiestea da eta, horren ondorioz, oinarrizko konpetentziak eskuratzea. Zenbaitetan, ordea, ez da erraza erlazio hori finkatzea. Alderdi batek hainbat konpetentzia lortzen lagun dezake eta, aldi berean, hainbat konpetentzia arlo bat landuz eskura daiteke. Ez da lan erraza eta, hori dela eta, oinarrizko konpetentzien

garapena lortzen laguntzeko curriculumeko arloak eta gaiak lantzea lehen aipatu ditugun antolaketa eta funtzio mailako hainbat neurriekin osatu behar da.

Planeko hobekuntzako ekintza ugarien diseinuak hauek bildu behar ditu gutxienez:

- Ekintzaren helburua.
- Finkatutako helburua gainditzea edo ez gainditzea burutu ahal izateko finkatutako adierazlea/k.
- Tenporalizazioa. Dagokion ekintzan agertzen diren jarduerak bideratu ahal izateko uneak.
- Beharrezko baliabideak. Baliabide pertsonalak eta materialak bildu behar ditu hobekuntza ekintzak.
- Hobekuntza ekintzaren arduraduna/k.
- Hobekuntza Planaren ebaluazioa eta berrikuspena. Nor, noiz eta nola zehaztea.

Era berean, Hobekuntza Planean, hori gauzatzeko ebazpena egiten lagun dezaketen aholkularitzako beharrek lotura duen puntua agertuko da.

Azkenik, Ikastetxeko Txostenak (IT) zein Hobekuntzarako Esku-Hartze Planak (HP), ikastetxeek osatu ostean, erreferentziako ikuskatzaileari bidaliko zaizkio hark balora ditzan.

### IV.2.3. ARDURADUNAK ETA EPEAK

Lehen aipatu duguna kontuan hartuta, Hezkuntza Administrazioaren ikuspuntutik, diagnostiko ebaluazioa hezkuntza zerbitzu ugarien arteko lankidetzako eta koordinazioko lanaren eredia prestatzeko aukera dela ondoriozta dezakegu.

Ebaluazioko edukian eta, batez ere, ikastetxeak eta ikasleak hobetzeko esku-hartze prozesuari, eta lehen aipatutako lankidetzari eta koordinazioari dagokionean, horiek Irakaskuntza Sistema Ebaluatzeko Erakundearekin, Hezkuntzako Ikuskaritzarekin eta Laguntza Zerbitzuekin (Berritzeguneak) dute lotura eta beti indarrean dagoen araudiaren arabera esleitutako funtzioetatik abiatuta. Horiek honela labur ditzakegu:

➔ **Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI):** Diagnostikoaren ebaluazioa, probak eta kontrola diseinatzea. Era berean, datu orokorrak eta partzialak aztertzeaz eta txostenak egiteaz arduratuko da: Hezkuntza sistemaren txosten orokorra, ikastetxe bakoitzaren txostena eta ebaluatutako ikasle bakoitzaren txostena.

➔ **Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza:** Oinarrizko kompetentzien definizioa eta Berritzeguneen aholkularitza ikastetxeak hobetzeko prozesuan. Probak egin arte, oinarrizko kompetentziak zehazten lagunduko du eta ebaluaziorako itemen ereduak aurkeztuko ditu. Probak egin ostean, aldiz, ikastetxeei aholkularitza eskainiko die dagozkien Ikastetxeko Txostenak eta Hobekuntzarako Esku-hartze Planak prestatzen zein hobekuntza horiek gauzatzen laguntzen.

➔ **Hezkuntza ikuskaritza:** Ebaluazio prozesuaren kalitatearen kontrola egiten ikastetxeetan, Ikastetxeko Txostenetan eta dagozkion Hobekuntzarako Esku-hartze Planetan agertzen diren ikastetxeetako hobekuntza konpromisoen inguruko txostenen balorazioa egiten eta, jarraian, Plan horiek gauzatzearan jarraipena egiten.

Hurrengo grafikoan agertzen dira ekintzak, epeak eta arduradunak:



Esku-hartzearen oinarritzko ardatzak	JARDUERAK	GARAIA	ARDURADUNA/K
Irakaskuntza ikastetxeen esku-hartzea ebaluazio prozesuan	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastetxe bakoitzean <b>ebaluazioa kontrolatuko duen taldea</b> sortzea.</li> <li>2. Ikastetxean <b>informazioaren, aholkularitzaren eta diagnostiko ebaluazioaren garapenaren prozesua</b>. <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Informazioa eta</b> sentsibilizazioa: koordinazio taldeari azaltzea diagnostiko ebaluazioa zertan datzan eta hark ikastetxean duen eragina zein izango den</li> <li>- <b>Informazioa eta</b> sentsibilizazioa: diagnostiko ebaluazioaren nondik norakoak eta hark ikastetxean izango duen eragina azaltzea klaustroan, OOG/CEn.</li> <li>- <b>Informazioa eta</b> sentsibilizazioa: diagnostiko ebaluazioaren nondik norakoak eta hark ikastetxean izango duen eragina azaltzea ebaluatutako ikasleen guraso taldeei (ikasturte bakoitzeko 1. bileran).</li> <li>- <b>Ebaluatutako dituzten mailetakako ikastetxeei eta irakasleei zuzendutako informazioa</b> proba motaren, ebaluatutako dituzten konpetenzien, epeen eta abarren gainean.</li> <li>- <b>Garapena</b>. Ikastetxean egingo duten ebaluazioaren gaineko plangintza.</li> </ul> </li> <li>3. <b>Probak egingo dituzten ikasleen zerrenda prestatzea eta dagokion basean datuak sartzea.</b></li> <li>4. <b>Lehen bisitatik probak egiteko unera arte, aholkularitza:</b> Konpetentziak eta proba mota.</li> </ol>	<p>Iraila Urria</p> <p>Azaroa</p> <p>Abendutik Otsailera</p>	<p><b>Zuzendaria</b></p> <p><b>Erreferentziako ikuskaria</b></p> <p><b>Koordinazio taldea</b></p> <p><b>Tutoreak eta koordinazio taldea</b></p> <p><b>Erreferentziako aholkularia</b></p> <p><b>Erreferentziako ikuskaria, Erreferentziako aholkularia, Koordinazio taldea</b></p> <p><b>Zuzendaria eta Erreferentziako ikuskaria</b></p> <p><b>Berrigutzeguneko aholkularia</b></p>
Kalitate kontrola aplikazio prozesuan	<ol style="list-style-type: none"> <li>5. <b>Kanpoko proben aplikazioa.</b></li> </ol>	<p>Martxo edo apirila</p>	<p><b>ISEI-IVEI (*)</b></p> <p><b>Erreferentziako ikuskaria (ebaluazioaren kalitatearen kontrola)</b></p>
Informazioaren eta emaitzen hedapena	<ol style="list-style-type: none"> <li>6. <b>Behin betiko emaitzak biltzen dituen txostena</b> ikastetxeko talde koordinatzaileari <b>aurkeztea</b>.</li> <li>7. <b>Behin betiko emaitzak aurkeztea</b> klaustroari eta OOG/CEri.</li> <li>8. <b>Behin betiko emaitzak aurkeztea</b> familiei.</li> </ol>	<p>Hurrengo ikasturteko lehen hiruhilekoa</p>	<p><b>Erreferentziako ikuskaria</b></p> <p><b>Erreferentziako aholkularia</b></p> <p><b>Zuzendaria</b></p> <p><b>Zuzendaria eta koordinazio taldea</b></p>
Hobekuntzarako esku-hartze prozesua	<ol style="list-style-type: none"> <li>9. <b>Aholkularitza prozesua</b> ikastetxeko txostena eta Hobekuntzarako esku-hartze plana prestatzeko</li> <li>10. <b>Ikastetxeko Txostena prestatzea.</b></li> <li>11. <b>Hobekuntza Plana prestatzea.</b></li> <li>12. <b>Ikastetxeko Txostena eta Hobekuntza Plana ikuskapenera bidaltzea hark balora dezan (txostena)</b></li> <li>13. <b>Erreferentziako ikuskatzariak hainbat txosten prestatzea.</b></li> </ol>	<p>Hurrengo ikasturteko lehen hiruhilekoa</p>	<p><b>Erreferentziako aholkularia</b></p> <p><b>Zuzendaritza Taldea eta Koordinazio Taldea</b></p> <p><b>Zuzendaritza Taldea eta Koordinazio Taldea</b></p> <p><b>Zuzendaria</b></p> <p><b>Erreferentziako ikuskaria</b></p>

(\*) ISEI-IVEIk bere gain hartuko du probak prestatzeko, balioztatzeko eta egiteko prozesu osoa, txostenak prestatzeko lanak bezalaxe.

#### IV.2.4. LANEKO KARGARA GERTURATZEA

Diagnostiko ebaluazioarekin lotura duten jardueren plangintza Ikuskaritzako Urteroko Planetan eta Berritzeguneetako Jarduera Planetan sartuko da. Horiek kontuan hartu beharko dute zerbitzu bakoitzerako jarduera honen garapenak laneko karga handia biltzen duela.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN